

KULISKA SORTA

57'garren zenbakia

K U L I S K A S O R T A

JUAN SAN MARTIN

EZTENKADAK

(Gertaera barregarridun liburua)

Julian Zabaletan dibujuak

ITXAROPENA ARGITALDARIA - ZARAUTZ - 1965

DEPÓSITO LEGAL S. S. 313—1965
N.º DE REGISTRO 391—1965

Copyright © 1965 Itxaropena Argltaldaria - Zarauz

«Itxaropena Argltaldaria» irar-lentegietan argitaratua emana - Zarautz (Gipuzkoa)

ESKEINTZA

Toribio Etxebarria

Luis Ormaetxea

Antonio Iturrioz

Manu Fernández

Antolín Alberdi

erri-miñez bizi diran

aiskide ta laguntzaillicri,

esker onez.

Egilliak

BILLA-BIDIA

SARRERA...	9
I.—Aunditasunaren miseriak	13
II.—Dudia	15
III.—Zer egin?	16
IV.—Danba! danba!	16
V.—Ez zan penitentzia makala	23
VI.—Untau ezin dako jueza	23
VII.—Aingerua	25
VIII.—Uezaba esku-zabala	26
IX.—Frantziako osteria zala ta	27
X.—Ikaragarrizko eriotzak	29
XI.—Zelan?	30
XII.—Miel ero	31
XIII.—Kaporala	34
XIV.—San Pedrok telefonoz	36
XV.—Arek ziran miñak	37
XVI.—Nai ta nai ez	38
XVII.—Meritu gutxiko pelotaria	39
XVIII.—Osintxuko euzki epela	39
XIX.—Bildurra	41
XX.—Ijituenak	42
XXI.—Oitura...	48
XXII.—Fralle ona	48
XXIII.—Fakir	50
XXIV.—Nerekin ez kontau	51
XXV.—Zer ikusirik ez	53
XXVI.—Lotsagabekeria	53
XXVII.—Goizago	55
XXVIII.—Zazpirak bat	55
XXIX.—Erretzallien osasuna	57

XXX.—Artalía bere ustez	58
XXXI.—Alperrik galdutako ura	59
XXXII.—Naiz da itsutu	60
XXXIII.—Bidia zuzentze alde	61
XXXIV.—Aurka?	63
XXXV.—Gure semian modukorik..!	64
XXXVI.—Ezin leikeana	66
XXXVII.—Igartzalle txarra	67
XXXVIII.—Etxe-kalten koñatua	67
XXXIX.—Ogei urte zarrago	70
XL.—Ori eztok larritzekua	70
XLI.—Akordatzen	72
XLII.—Alperrik	72
XLIII.—Nok nori?	73
XLIV.—Arraiñik ez, baña pikau bai	74
XLV.—Berezo biarra	75
XLVI.—Parejia	78
XLVII.—Obe biarrez	79
XLVIII.—Ez izan itxas-gizonak... ..	82
IL.—Petitarren eztenkadak	84
L.—Txanboliñen “konpasa”	89
LI.—Angulak Plaentxian	89
LII.—Zirisartzalliak	90
LIII.—Aberats barria	91
LIV.—Ollarra ollar	93
LV.—Buru auste gogorra	93
LVI.—Erdi-tontua	95
LVII.—Fakultadiak	96
LVIII.—Maskuelo ta belak	97
LIX.—Zartzaroko aiziak	99
LX.—“Ardurabakuen” jira, arioplanuan... ..	100
LXI.—Xapua, xapua!	106
LXII.—Jatorrizko gustu txarra	109
LXIII.—Kortaso-ren balorazio neurriak	109
LXIV.—Kuadru bat geiago	111
LXV.—Beti edaten	112
LXVI.—Aizarnaren pronostikua	113
LXVII.—Amama!	114
LXVIII.—Soñian zeroian	115
LXIX.—Aidia	120
LXX.—Konsejuxto bat	120
LXXI.—Ezezkorrak	121
LXXII.—Bertso berriak, automobil zarrari	121
LXXIII.—Dudakuak	124
LXXIV.—Irurogei kilometro orduko.	125

LXXV.—Zelan emon?	126
LXXVI.—Takurraren iritziak	127
LXXVII.—Maitasun bat	131
LXXVIII.—Burrukalariak	132
LXXIX.—Barautsik aundiña	136
LXXX.—Alperren nausia	136
LXXXI.—Zezenak Elgetan	138
LXXXII.—Pruebia	146
LXXXIII.—Eskerrak tomaterik ez eukana	147
LXXXIV.—Baliencia	148
LXXXV.—Gutxi gora-berako neurriak	148
LXXXVI.—Ez euan ain gaizki	150
LXXXVII.—Parisen Parisko erara	150
LXXXVIII.—"Koletia"	154
LXXXIX.—Eztenkadak	154
XC.—Argi gosia	157
XCI.—Artoberotarrak	158
XCII.—"Klokadak"	162
XCIII.—Izkuntza bakarrakin jai daok	162
XCIV.—Calbetón-entzako sargu-eskalluak	163
XCv.—Pikutan	164
XCVI.—Belarritxakuak?	165
XCvII.—Bata edo bestia	166
XCvIII.—Diruan gora-berak	167
XCvIX.—Laguntza	167
C.—Eriotza pronostikua	168
CI.—Argiña ta medikua	171
CII.—"Baita neuk be"	171
CIII.—Ezkertia	172
CIV.—Laguna baiño geixago	172
CV.—Erentziak zorperatuta	173
CVI.—"Emen nagok ni!"	175
CVII.—"Eju, eju...!"	176
CVIII.—Oindiok aillegau barrri	177
CIX.—Trukez	177
CX.—Tratu ona	178
CXI.—"Gizona!"	179

S A R R E R A

Eztenkadak, Zirikadak-*ren* anaia da, ta Per-
nando Plaentxiatarra-*ren* lengusua. Eibartar guz-
tiak letz, Arratetik sortua bada be (1), Sagar-erre-
kako urekin bautizaua —gatza be Plaentxiakua
ete dan ustean gare—. Urki aldian ditxu oñarriak,
ta, uste dogunez, inguru aretan izango dau azken
deskantsua be. Kanposantua andik beste norabait
aldatzen ez badabe, beintzat.

Laguntzalle asko izan ditxu, ta euretariko ba-
tzueri eskeiñia doia; ain zuzen be, erbesteratuak
dareneri. Euren erri goguangularria presente izan
deixen.

Beste ipuin kontari bat be izan dot. Eibarren
bizi dan plaentxiatarra bera. Ikusi ninduan baten,
esan zestan: “Biok alkarregaz afari-merianda bat
eitxe alde txuleta bat pagatzen badestak, neuk kon-
tauko deudaz ipuiñak ugari.” Orrenbestek txule-
tia merezi ebalata, zelan eiñ uko? Illuntzi batian

(1) Aintziñatik esaten da, umiak, beste leku batzuetan si-
gueñiak edo Paristik bezela. Eibarrera Arratetik ekarzen dirala.

Manueleneko tarbenara juañ giñan. Ta, bai ugari kontau be, naizta probetxurik atara al izan ezin. Arek eukan etorrixa, a zan iturrixa, izan be plaentxiatarra beti izan da azkarrixa. Kontu-kontari asi zanian, bere jarduna etetzekia zan. Bakarrik, lastima izan zan; arek kontautako gertaera guztiak ezaunak nituan, bizperan Zirikadak nere liburua irakurrita etorri zan da.

Aurretikuan esan zan letz, Plaentxian diñue, eibartarrak dirala olako ipuiñen asmatzailliak, baña ez dira konturatzen Sagar-errekako urak dirala. Eibarko eibartarrak bakarrik ziranian, Sagar-errekakotik bakarrik eraten eben. Barriz, erbestekuak etorri diranian, Sagar-errekako ura naikua ezala-ta, beste leku batzuetako urak ekarri ziran, ta kitxo. Arrezkero eztago lengo umorerik. Plaentxiako Sagar-errekakuak eukan gatzari majo igartzen jako. Bai orixe. Ezta egixa ala?

Onetariko gertaera gutxi batzuek, "Eibar" errebistan inguru onetakotzat argitaratuak dare, ta andik artuak dira. Ez da jaramon askorik eiñ Sagar-errekako bedinkaziñozkuak diran ala ez ziur erabagitzen. Orretariko banakaren bat izan leike inguru onetakua ez izatia. Baña, ori, erri guztietan eta denpora guztietan gertau dan gauzia da. Edozein modutan be, ezaun dabe emengo giroz darena. Orretxegaitik nasai esan geinke, gutxienez beintzat, Sagar-errekako urakin konsagratuak darelá. Batedon-batek beste nunbetxen entzun edo irakorri badau emengo modukorik, a izango da

plaentxiatarreri plajiautakua; egon seguru. Ez al dakigu ba Esopok be orixe bedori eñ ebala? Emen artu, ta gero, beranak ziralala esan.

Ego-errekako izketaz argitaratzia "Orixe"-ren iritziari zor detsa (2). Bestela, aurretikuan agindu zan bezela (Zirikadak-ren itzaurrean esan nai da) gipuzkoeraz urtengo zan. Eibartarrak beti izan dira euren euskeriari gutxi-etsirik eta. Ze, inguruak ez, baña urriñeko jentiaak beti jardun izan dau eibartarren euskera mordoilluaren kontura adarjotzallien jardunetan, atso autubatzalliak letze; ala be, euskerarik ez dakixenak. Surrik eztaukanari, mokuak. Baña, eskerrak "Orixe"-ren iritzia lelo memeluen modukua ez zana, ara emen barriz be Arratetikuen eran. Ego-errekan galduaz doian euskera bizian.

Ez dau ezertariko metodurik jarraitzen, Plaentxia ta Eibarko umoria, bere urduri gordinian, gauzak alai azaltzeko sistimia izan ezik. Erri girua dau jabe bakarra. Ta, apainduretan alegindu bariarik doia, Nobel saririk espero ez dabelako.

Ala be, esango genduke, umoria dala literaturan edaririk onena. Orregaitik da barregarriena. Ta, gañera, demokrataena. Barrerik geien eraitzetik aparte, malla guztientzat da, edade, gustu, dirudun, pobre, jakitun ta ezjakin, guztiak edan leikie malla bardinietik; malla ori da: barria.

(2) Ikusi "Karmel" aldizkariaren X'gn. urteko Irai-lla-Urrilla-ko zenbakiaren azkenengo orrialdea, atzeko azalaren barrukaldetik. Larrea-Zornotza, 1960.

Orrez gañera, umoriak erakusten dau uskerien alde serioa ta seriotasunaren uskerizko aldia. Orregaitikan, liburu onetan, tontokeri itxurazko gauzak be esango dira, baña seriotasun barik. Ta iñor ezta arrituko seriotasunez tontokeriak esaten diran denpora onetan.

Fischer-ek errazoi faltaz ez zitxuan juzgau pentsalariak eta eskribitzalliak —arek be baeban iturriren bat Sagar-errekakuan modurakua—. Esaten eban, pentsalariak beti pentsatzen pasatzen ebela euren denpora ta ez eukela eskribitzeko betarik; ta eskritoriak beti eskribitzen ta ez jakuela pentsatzeko denporarik gelditzen.

Ta, liburu onek ez dauka beste eginkizunik, larregi pentsatzeka barre eraiñ baño. Ta asmu ori beteko baleu, konforme giñake.

Diñuen moduan, umoria osasungarria bada; Plaentxia erririk osasuntsuena. Ta eztakigu erbeste-ko turistak zelan eztiran bertara juaten, Benidorm-era euzki billa juan biarrian. Bai. Umoria osasungarria izatera, sagar-errekako ura medizinarik onena. Botillan saltzen ezalako, liburuan ipiñi dogu. Alperrik izango da errezetiakin botikara juatia, ez dozu an billauko. Irakorri gura badozu, zoiaz liburu-dendetara. An saltzen da.

Osasuna zaintzia biarrezkua bada be, umoriak badau bestelango ongarririk. Ta, egia esan, gizonak ez leuke euki biar umoria galtzeko eskubiderik.

J. S. M.

I

AUNDITASUNAREN MISERIAK

Mundu onetan eztago zorion utsian bizi danik. Goikuak eta bekuak, aundiak eta txikiak, aberatsak eta pobriak, danak dituez aunditasunak eta miseriak; bestela galdetu plaentxiatarreri.

Eibartarrak pe zerbait diralakuan dare, baña plaentxiatarrak laster esaten dabe satisfetxo arruak dirala. Aundikeri asko baña Plaentxia-ko ura biar arpegia garbitzeko. Eibartarrak, "farolak".

Berriz, eibartarrak, nor nolakua dan neurtzen asten diranian aguro esaten dabe: elgoibartarrak, gizonak; baña plaentxiatarrak, xelebriak.

Erri bakotxak, eta gizon bakotxak, bere gauzon da ondasunak azkar erakusten ditu mundu zabalaren lau aldiatara; baña bere barrukaldetik doiazen prezosiñuak garbi asko ikusi arren, obeto ixiltzen ditu. Beti izango dira auzokuak gure barrukaldean ixillik dabizen gauzak azalduko dituenak. Iñon begiko samarra erreza ei da ikusten.

Eibar-ko etxiak dauken ur-korrientia —korrientia izan biar, Sagar-errekan markakorik ez dala-ko—, ixa ointxura arte, guztia Plaentxia-tik eroiena izan da. Plaentxia-ko Sagar-errekakua, ez ordia duakua; beti izanda asko kostautakua plaentxiatarrerri trukautakua.

Ezer danian plaentxiatarrak esateko eukitzen dabe, eureri eskerrak azaltzen dirala eibartarrak garbi txamar. Ta, euron urorrek Eibar-ko ardauak graduetan bajatzen ba-ditue be, eibartarrak plaentxiako uretik edaten dabenetik askoz zelebriauak ei dira. Balitxeke ur orrek izatia zirikatetarako grazia, plaentxiatar guztiak ortik edanaz sortu dira ta.

Negu gogor batian, izotzak Eibar-ko kaliak ibilli ezindako moduan laga zituan. Eibar-ko dendetan euan gatz guztia izotza urtzen gastau zan, ta ala ta guzti be ez zan naikua izan izotz dana kentzeko, erriko semiak kalian seguru ibilli daitxian.

Dotorien oitxuraz, telefonoz ots ein eben auzo errietara ta kanbioi bat juan zan Plaentxiara gatz eske; kañoi-fabrikako ekonomatuan ba-zala ta.

Eibartarrok ara eldu ziranian, konsejal batek esan ei zetsen:

—Zer mutillak; Olan dok ala! Lenago ura eruan zenduen da oin gatza nai dozue? Oin ezkeriok berakatzak pe emongo detsueguz; eibartarrok berotzeko berakatz-sopia eiñ deizuen.

Milla urte pasau ta ura bere bidian; orrek danok entzun da plaentxiarrekin obe bakian.

Berriz, Eibar-en, len Ariatza zan lekuan, argidun iturri barri bat ipiñi zanian, arro ziran eibartarrak euren "fuente-luminosa" orrekin, Euskal-errietan pare bat ez zala ta. Baña, ori zala ta be, plaentxiarrak majo zabaldu eben autua: Eibartarrak, "fuente luminosa" deitzen detsen iturri barri bat eiñ ebela, Plaentxiako urakin da Eibar-ko "farolekin".

II

DUDIA

Biarrerako afiziño gutxi eben banakaren bat edo beste ezautu dira Plaentxia-n be, erri guztietan izaten diran antzera.

Padarra zan bat, Ameriketa aldian urte illara bat urratu ondoren poltzia berotzeke etorri zana. An be danak ezin ba aberastu. Eldu zan errira, ta bein agertu jakon beste familia bateko bat euren anai Kokoteder-en barririk ete eukan. Ia alkarren inguruan edo noizbait tokau ziran, urtietan il edo biziko barririk ez eukala ta.

—I, Padarra; gure anaia be ordok pa aspaldiko urtietan. Bere barririk ba ete dakik? Bizi ete dok?

—Zuen anaia...? Kokoteder eztok? Nere lagun zarra. Bai gizona. Ointxen gogoratzen nok ondo. Azkenengoz alkar ikusi giñanian, ez nagok seguru, bera zan bi polizien erdian zeroiena ala neu nintzan alan neroiena.

III

ZER EGIN?

Lagun bik ogei durokua billau eben, ta alkarri ziñuen:

—Ogei durokua! Zer eingo juagu oin ainbeste dirugaz?

—Ori erreza dok. Emeritzi duron ardua ta duro baten ogia erosi.

—Ta, zer eingo juagu orrenbeste ogigaz?

—...?

IV

DANBA! DANBA!

Gizurrak kontatzen dauken famiagaz baintzat, eztago kazarieri ur emotekorik. Ez da Euskalerrikua bakarrik. Kazariak mundu guztian daroie gizurti familia. Bismarck-en iritxiz, iñoiz ez ei da gi-

zur geiago esaten gerra baten bizperan edo kazarko bizperan baño. Eibarren norek eztaki kazari ezaun ari gertautakua? Agiñazpi-ñeko tabernan kontu-kontari ziarduan, uste-gabian amalau libarko erbiak sasi artetik urten da, tiro bateko eskopetia izanarren: "Danba! Danba!" jaurti ei zetsan.

Tiro bateko eskopetiakin "Danba! Danba!" eitzeke, zer ez ete dabe eingo gure kazariak. Baita alanbre gañian ollagorra be. Ta, Eibarko "Diana"-n, (1) dianak eta ez-dianak.

Eibarren diñuenez, zerbait dakarrenian, da ori ezta sarri izaten, Untzaga plaza erditik pasatzen eidiraz etxerutz arro-arro jenterik geien dabillen orduan, txakurrak pe buztanari erañnaz. Barriz, utsik datozenian, geienetan gertatzen jakuen moduan, ayuntamentu ostetik, trenbidetik ziar apal, txakurrak pe buztana ankapan gorderik lotsiaren-lotsaz. Baña bixamonian txori txortak kontauko dituez.

* * *

Beste bein, Plaentxia-ko Meltxor-enian, bere inguruan izugarrizko korrillua ebala, olako ao-zabal batek zeroian sakia; bazan an ollagorra, erbia, tiro otsa ta abarra.

Tertulixako batek ziñuan:

(1) "Diana" dau izena Eibar-ko eiza ta arrantza alkarte batek.

—Laga, laga bedorri berbetan, oin be botako jok botatzekoren bat.

—Bai, nik famia baña beste betzuek lania. Nik ez-ezik beste batzuek pe botatzen jitzuek ba tiruak ugari, baña erbi gutxi ikusten juat nik kazuelan. Ba, sinistu nai ez-pozue be, oin kontatzen diardutena egi-egia dok; neu ementxe nagon moduan. Atzo illuntzian bertan nere begiekin ikusitakua. Pago-bedeinkatutik bera nentorrela Sanandres-pian gelditu nintzuan, keixa arbola batzuek daren txaran. Zuek ondo ezautzen dozuen tokixa dok ori. Geratu banintzuan, geratu nintzuan. A! zuan a! Eztok jaio kazaririk egundo olakorik ikusi dabetik. Joseus!... zer zuen a! Sentidu najuan esko-petarik eza. Ango karraztarro, zozo, biriarro ta abarrek ez eukan akaburik. Mutillak! mutillak!... zer zuan a!... Ango zarra-parria ta ango-angua. Gutxien gutxienez bosteunen bat bazitxuan; orixe bai!


—...!?

Inguruak mutu gelditu ziran.

—Zer ba, dudia dago ala?

—I, txotxo, badakik gero bosteun txori eguak zabalik zenbat diran?

—Eskolatik pe i bestian banagok gero ni, e. Zer pentsatzen dok pa ik? Eguak zabalik edo eguak itxita, bosteun esan juat eta bosteun, bosteun ditxuk. Millaren erdixa beti bosteun, emen da Japonen. Neuk ez najuan ba ikusi pixuan-pixuz keixa arbolia jausi biarrian...



YULEN.

—Bestiok iñuzentia-ak garala uste al dok? Plaentxia-ko zeruan eztagok lekurik bosteun txepetz eguak zabalik kabitzeko.

—Ik zer dakik pa, sekula Eibartik pe ez aiz pasau ta. Neri esan gostak ik? Bosteun ez-pazitxuan be ez zitxuan urrin ibilliko.

—A! Ori beste gauza bat dok. Kendu beruana, kendu.

—Bueno, eunen bat bazitxuan baintzat.

—Asi aiz gutxituaz. Seguru asko ezta eun be.

—Ik esan gostak neri?

—Tira, tira... Ezta eun be!

—Pozturia eingo eustake berrogetamar ba-zirala.

—Seguru ete ago gero berrogetamar aña txori zirana. Lartxo ez ote dok.

—Ba, dana-dala, txara aretan zan zarra-parriakin... gutxienez ogeiren bat baietz pozturia.

Eskerrak pozturarik eiñ ezin zeikiana.

* * *

Ez zan gutxiago Karraspio-ri pasautakua.

Basarri inguru batian ebillen txakurran arrastuari jarraika, ta batera-batera: "Danba! Danba!". Benetan gañera, ze, Karraspiok ba-eukan tiro biko eskopetia, ta zerbaiti tiratu biar izan zetsan.

Basarriko ataian etxeko gizona euan da tiro otsa entzun da lasterrera, bere aurrekaldetik pa-

sau jakon erbi eder bat, osasun onakin igesik. Karraspion tiñuari anka ein da.

Geruago an agertu zan Karraspio, egarria asezeko ur eske.

—I izan aiz or tiroka? —preguntau zetsen basarritarrak.

—Bai, ta ix-eixa bota juat erbi bat. Bigarren-go tiruan belarri bat kendu jetsat.

—Olan bada, ondo ein detsak. Etxaukan zertan jua iru belarrikin.

* * *

Errebiro be, ez zan kazari makala. Ezeuan lekutik pe mordua ekartzen ei zitxuan.

Lagunartian, bestiak txist bat eitxeka euazen artian, ur-bitzetan kontatzen ebillen:

—Gaztandolako pagadi gañian, jua zan pase sasoian, zer zuan a. Goiz batian berrogetiru usu bota najitxuan. Denpora gutxian gañera. Orduerdi inguruan, izugarrizko usu bandararak pasau ta pasau, gelditzeka. A zuan "amama", arnasarik artzeka jardun najuan: Danba! batera, Danba! bestera, Danba! albora, Danba! arutzagora...

—Zer, txo-txo? Danba!, danba! ta danba!... Ze'an baña? Da, eskopetia kargau, noiz? —lagun batek itaundu zetsan.

Da, Errebirok:

—Ze uste dok ba ik? Ainbeste usu etozela, kargatzeko astirik baneukala ala?

* * *

Satorra-zarra be domekero juaten zan kazara, baña arek ekarritako txoririk ez eban iñork ikusten, Guardianeko tabernan edo izan ezik. Aspal-dian ebillen bere andria pentsamentu okerretan. Edo zuzenetan. Nork daki?

—Etxakixat nik ik kaza atxikian zer darabixan. Domekero basora ta iñoiz eztok ezer ekartzen. Kazarixon artian sistema zarra dok: txakurrari azur-rak ta andriari gizurrak.

Satorra-zarrak ziñuan berekiko: “Auxe dok auxe, gure atso txaplatia susmu txarrekin dabik eta egunen baten txoriz konsolau biarko juat”.

Urrengo domeka-illuntzian, an azaldu zan Satorra-zarra txori txorta eder batekin, barrez-barez. Sukaldeko mai gañera botaaz:

—Autsonaz, da esain urrengo be ezer ez dodala ekartzen.

—Da onek euk il ditzuk ala?

—Ez, zerak..., zeruan dagon Pepe Zollo zanak ilgo jitxunan.

—Ik! Tira, tira, gizurrik ezaik esan. Ik zelan ilgo zitxuan ba? Eskopetia etxian aztuta laga dok eta...

—Anda karajo! Ba-neuanan ba ni... Nik bai igarri, tirua jaurtzerakuan esku-artian zerbaitx falta nebana.

V

EZ ZAN PENITENTZIA MAKALA

Paskuakuak zirala ta, konfesionario aurrekaldian jente pilla ederra euan. Gizon bati tokau jakon txandia ta abadiak galdetu zetsan:

—Zer ofizio dozu?

—Titiriterua.

—Zer da ori?

—Ba,... komeriantia.

—Da, ortik bizi al zara?

—Bai jauna.

—Komeria orrek zelan egiten dozuz ba?

—Ara —esan da, aitxiaren ein orduko auspaz ipiñi zan, eskuak lurrian da anakak goian.

Ori ikusirik, an zain euazen andrazko guztiak emon zetsen igesiari.

Ta abadiak bixkor urten eban konfesionario barrutik andreri diarka:

—Nora zoiaze?

—Penitentzia ori betetzeko frakak jaztera!

VI

UNTAU EZIN DAKO JUEZA

Juan zan bat, senidiekin lur kontuko erentzia bat zala ta eza'la erabillen eztabaida baten gañeko gauzak abogauari azaltzera, juiziora deituak zirala

bere defenzia eskatuaz. Kontau zetsazen ipi-apa euren arteko gora-berak guztiak.

—Ara ba: erentziaren agiria modu orretan einda ba-dago ez-jatsu ezer tokatzen eta galdua daukazu —esan ei zetsan abogauak.

—Ta ez al legoke modurik, besterik ezian juezari zerbaitx untau ta, lurrak, danak ez-padira be, erdiak edo nereganatzeko?

—Ezta pentsau be...

—Baña, jueza pixkat busti ezkerro be ez?

—Ja! Bergarako jueza diruakin azpijanian irabazi? Ezta pentsau be. Ezaun da a ondo eztozuna ezautzen. Ari dirua emongo ba-zeskio, orduan da txarrago —ziñuan abogauak—. Ain zintzua da eze, untau ko ba-zenduke orduantxe bai galdua daukazula auzia; baita errazoian jabe ba-ziña be...

—Zer? Errazoian jabe banintzake be baietz?

—Bai orixe. Eztau arek ezer gorrotogarriago orrelako zurikerizko untuekin beragana juatia baño. Orixo bedori da naikua kontra jartzeko, ta galdua ziñake.

—Arraixua! Ez neban olakorik esango. Baña, entzun izan dot bai: lekuan lekuan ardiak, baltzen artian zuriak.

—Ba, bai. Ta zentitzen dot okaziño onetan zeuri lagundu eziña. Demanda orri etsi zeike.

Denporadatxo bat pasau zan alkar ikusteka, ta urrengo kalian alkarregaz trink eiteko okaziñua izan ebenian. Urreratu jakon abogaua, esanaz:

—Da, zuen juizio a zertan gelditu zan?

—Irabazi neban.

—E? Irabazi...? Zelan?

—Ba, errez. Asi nitzan juezari dirua, eperrak, zargu-eskalluak, amorrañak eta iñun diranak bialtzen ta irabazi neban. Bialdutako erregalueri esker oso-osorik nere alde ipiñi zan.

—E! Ezin neike sinistu, ori juez-ori dan zintzuakin untan ta norberaganatu leikianik. Oin arte beintzat bestaldera izan da, ta beti egon izan da zerbait bialdu izan detsenen aurka.

—Baña, ez gizona!; nik bestien izenian bialtzen netsazen.

VII

AINGERUA

Goiz baten, Jabiartxo urreratu zan amagana.

—Ama, egia da aingeruak eguak daukezena ta ega eitxen dabiena?

—Bai, semetxo, bai.

—Ba, gure aitak kriadiari aingerua deitzen detsa ta noiz egin biar dau ba ega?

—Gaur artsaldian bertan!!

VIII

UEZABA ESKU-ZABALA

Eibar-ko fabrikarik aundiñetako baten, uezabak urten eban ofizinatik eta mutiko bat ikusi eban almazeneko kajoi baten gañian jarrita tebeo irakortzen.

“Olako kakanarru alperrak tallarrari jateko besterik eztitxuk izaten. Olakuak mantenidu? Zertako? On egiñan pagua, ate ostian palua. Neu ikusita be gañera ez jok ikararik eitxen. Orraitxiokarren gure tallarrian eztagok iñor neri adarra jotzeko, ta au be laster bialduko juat txakurran salan pasiatzera. Zer karajo!” —Ziñuan uezabak berekautan, eta furrustauaz esan zetsan:

—I, txikito: kintxenan zenbat irabasten dok ik?

—Irureun peseta.

—Autzaz irureun pesetok eta geiago ezari etorri. Emen ez juau biar ire moduko baba-lorarik (1). Gaurtik despatxauta ago.

Diruori gorde ta arritutako arpegiakin aguro ospa egin eban mutikuak, beretzako esanaz: “Auxe dok gizona frankua”.

Uezabak almazeneko kontra-maixuari galde-tu zetsan:

(1) Baba-lora, *amapola*. Gogoz epela danari edo motela danari deitzen jako Eibar-en.

—Zein dok oin despatxau dodan kakanarru al-perra?

—Ori? Kajoi bat ekartzera etorri dan estaziño-ko enpliau bat.

IX

FRANTZIAKO OSTERIA ZALA TA

Benitxo, udako bakaziñuetan Frantziara osteria eñ barri zan, ta kafian lagunak inguraturik euan bere osteraren gora-berak kontauaz.

Da gure kafietan, lagunarteko tertuliak onda-tze alde edo, zaliak diraz radiua goi-goitik zarata-ka ipintzen, bakezaliari gerria emonaz. Egun aretan, Donostia-ko “Los Xey” diralakuak, batzuen ustez kantariak, ba-ziarduen radio-aparato koxkoretik arrantzaka.

Lagunarteko batek:

—Katalin! Ixildizuz radiotik orruaka diarduen orrek.

—Orruaz?...

—Orrek ondo jiarduek —ziñuan Benitxok bestaldetik.

—Ondo? Zeri deitzentsak ondo?

—Bai, ondo; eureri tokatzen jakuen moduan. Zer nai dok pa? Obeto kantatzekotan ba-dituk kantariak.

—Egia dok. Errazoi aundia daukak. Orrek euren mallan jiarduek. Katalin! Radiua ipiñizu betek, ixa entzun ezindako bezela, kantariren batzuek azaldu artian. Santa Ageda-rako emiziñorik ez guretzat.

Katalin esanetara etorri zan, da gure gizonak, biar bada auzuan ziranen batzuk aiskide ezpaziran be, jarraitu zetsen euren ariari.

—Da, Benitxo? Diñenez, emakume kontuan da ondo egon biar jok Frantzia, e?

—Baj! Guk, beñora-ezkeriokan ba-dakik zer daukagun: Gerritik gora tenziñua ta gerritik bera intenziñua.

—Oo! Orduan uts...

—Ez guztiz. Ala be, banpiresaren bat edo beste arrimau jatan. Baña nik, tati! Benitxo eztagon zuentzako. Bakarrik, neska polit batek errekauein jestan, ta ain polita ta ona zuan eze, ezin ba ukatu. Dotriñan ikasi genduan lagun-urkoa maitatzen, da...

—Orduan, biotzak ukat ein deuk iri be.

—Ain ona ba-zuan berakin ezkondu biar intzake —esan zetsan beste batek aldamenetik.

—Orrenbeste neuk pe pentsau najuan bai. Bai ta berbia emon be.

—Ta...?

—Fronteran nenkarrela karabiñeruak kendu jesten.

Itxuria, Benitxori, ez jakon gelditu aranzelak pagatzeko laiñ.

—Baña, ezin zeikie igarri Toulouse-n zer ikus-
tera eldu nintzan.

—Zer? —lagun danak ago-batera.

—Korridia.

—Korridia Frantzian?... Zezenekin?

—Klaro ba, zezenekin.

—Zelako zezenak zitxuan?

—Lelena baltza.

—Ta, bigarrena?

—Bal-baltza.

—...!

—Ta irugarrena, bal-baltz, baltz-baltza.

X

IKARAGARRIZKO ERIOTZAK

On Mateo Mujika jauna Bitxorixako Obispo za-
la, juan ei zan egun batian Deba-ra, oitxura eban
lez bizita bat egitera. Ta don Martin Aranburu
bergaar medikuari galdetu ei zetsan: "Jente asko
iltzen al da emen?"

Aranburu bergaarrak, erantzuna:

—Emen danak; batzuk lenago ta beste batzuk
geruago.

XI

ZELAN?

Gertaera au, aurretikua bezela, bergaar batek kontautakua da. Ta, aitzen emon biarrian nago on Mateo Mujika beasaindarra danez, Bergarako errian balantza guztiak ez dituala bere alde. Alperrik obispua izan. Santu bat dago bitxartez alkarrenganako lokarriak austeko. Berriz, jakin deixela San Martin-ek ez dabela nai auzi orretan parterik, da baketan lagatzia eskatzen dot.

Azalpen au eñ ondoren. Noian bergaarrak kontautako modu-moduan agertzera:

Aintziña, Mateo Mujika obispo jaunak —“jauna”-rena, bergaarreri parkaziñua eskatuz—, Gipuzkuako Goierrira ostera bat eñ eban, ango erriren batzuek bizitauz. Erri bakotxeko parrokueri galdetzen ei zetsan, ia urte barruko gora-berarik aundiñak zertzuek ziran. Konturatu zan, iru edo lau erritan, berdintsu esan zetsela, Lekamendiko Patxik neska gazteren bat bete ebal.

Eldu zan beste erri batera, ta parroku jaunak esan zetsan, ezkongai zan neska batek umia izan ebal eta beste bat pe izateko bidietan euala.

—Ta, nor izan danik?

—Lekamendiko Patxi.

Obispo jaunak esan ei eban berekautan: “Sosegauko ete dok Lekamendiko Patxi dalakuori”.

Urrengo erri baten be antzerako barria, Lekamendiko Patxik neskato bat beteta laga ebala. Aldia guztietan, orrek ziran Lekamendikuan azak. Alako "donjuanik".

Zaildu zan jakitzen ia mutil ori nungua zan, eta berakin egoteko bide bat eñ eban.

—I aiz Lekamendiko Patxi?

—Bai jauna; zerbitzeko.

"Ederki nintzakek ire zerbitzeko moduen premiñan banintzok —esan ei eban on Mateok berekiko—. Obe euke gurasotzat zerbitzen baenki".

Baña, erantzun ziurraren premiñan galdetu zetsan, on Mateok:

—Ik laga al dituk, Goierriko zenbait erritan, neska gaztiak beteta?

—Ba-liteke.

—Ba-litekela?!

—Ba...

—Baña, zelan eñ dok ori?

—Bizikletan.

XII

MIEL ERO

Erri guztiak dauke tontoren bat. Ta ala biar be. Bestela, erri txikiak aspergarriak izango litza-kez.



YULEN.

Orregaitik edo, mundua eitxerakuan kontuan izan zan erri bakotxari bere tontua ipintzeko, ta aundieri bat baño geiago. Zergaitik eze, erri aundiak beti gorde dabe euren nausitasuna gauza geiago ta obiak izateko. Erriren bat aurkitzen bada tontorik gabe, errukigarri. Ango umiak barre gutxiago eingo dabe, ango jendiak zer kontau gutxiago izango dau. Tonto baten gertakizunak umoriaren gatza emoten detsa erri bati. Ta gañera, tontuak berak pe, bere burua premiñazkotzat izaten dau. Orregaitxik, iñoren gorroturik barik, danen begirapen onaren jabe da errian.

Auzoko erri batian, kalez-kale zoian arpegi balzdun bat, panazko frakekin, tunika argi labur bat euzkiak kolore barik lagatakua, txapeltxo bat buruan kabidu eziñik, eta bizkarretik aldia banatara, aurrera ta atzera, upeltxuak txintxilixka. Bere diarrak kalia betian entzutzen ziran:

—Miel, mielero! Miel, mielero!!...

Baña, erri aretako tontua, ez zan bildurtia. Ta, mielerua ikubilka joten asi zan.

Gizon batzuek apartau biar izan eben, mielerua maspilduko ez-paeban. Ta Migel tontuak ernegauta ziñuan:

—Ni ez Miel ero! Ni ez Miel ero!!...

XIII

KAPORALA

Kaporala gizajuari, azkenengo urtiak guztiz larriak pasatzia tokau jakon. Etxe onian sortu zan baña txarrian amaitu. Dirurik ez jakon geldituko baña bai surra ta matrallak gorri-baltz.

Esaten ebanez, osasun larregiak ekarri ej zetsan bere ondamentia. Bera ez ei zan arruinau. Kalkulu bat gaizki eiñaren ondorenak ei ziran. Ustet, eukazen diru ta aziendak jan baño lenago ilgo zalakuan euan, baña ez zan ola gertau. Ta, azkenengo urtietan narras agertu zan gizajua.

Mototxeneko tabernara sartu zan batian, Mariñelak esan ei zetsan:

—Iño!, Kaporala, orrek ditzuk koloriak.

—Ondo kostautakuak.

Bai orixe. Kaporala, bere ondasunak, jan ez, edan zituana genduan.

Amaika koxka baeukan Mototxenian. Bitoriano bildurtze zan atian ikusten eban bakotxian.

Orraitxiokarren, egun aretan, uste ezeko makala izan eban. Norek eta Kaporalak amar durokua atara, bere kozkak bardintzeko.

Bitoriano asi zan ziero arrituta, amardurokuari begira, benetakua ete zan.

—Zer, dudia daukak ala —esan zetsan Kaporalak—. Nik olakuak millakak gastau jitzuat. Zer uste dok pa?

—Entzutia jaukat naikua diru izan zuana.

—Bai, neri Jaungoikuak naikua diru emon jectan. Bakarrik, nik uste baño urte geixago artu jitzuat. Diru asko bai, baño osasuna geixago. Or dagok akatza.

—Ba, entzutia daukadanez, medikuak esaten ei juek, arduak bizitza laburtzen dabela.

—Bai, medikuak errazoia jaukek. Konturatu ta nagok ni, edan bariko egunak luziauak izaten dirala.

Berrido Kaporalari duro bat ikusi orduko urtiak pasauko ziran. Baña, orregaitik ez uste eguneroko txikiteua lagako ebanik. Ta, an jarraitu eban koxkak multiplikutzen. Taberna askotan anak parau ei zetsezen. Ala be; maniatzen zan alboka ibiltzeko lain zurrutada eitxen.

Bein, Bitoriano umore txarreko artu eban baten; aurretiko zorrak pe naikua ziralata, asarrututa, kalera bialdu eban.

Baiña, bestiak, erantzun au emon ei zetsan:

—A! Ori be bai? Ondo dagok, Bitoriano. Emendik aurrera “kliente” bat gutxiago.

Mototxenetik asarre urtetzerakuan, Tutuluko Aizarna zanaren dizipulu batek au kantau ei zetsan:

*Sei baso atara ta
sei tragan ustu,
beste sei erateko
iñor biar eztu,
erango leuke baña
pagatzia aztu,
olan tabernaria
ezin aberastu. (I)*

XIV

SAN PEDROK TELEFONoz

Elgoibarko San Pedro fabrikatik deitu eben:

—Eibarko “Star”eko fabrika al da?

—Bai jauna.

—Emen San Pedro. Pistolak erostia naj genduke...

—Baña zuek pe bai?

—Bai. Eun pistola biar ditugu.

—Eun pistola?

—Bai. Eun pistola, ainbat ariñen.

—Baña... da... zelan nai zenduke ba orra bialtzia?

—Sabiñekin.

(1) Ikusi bertso au M. Elicegui eta A. Zavala-ren *Pello Errotaren bizitza*, 154-garren orrialdean. “Auspoa Liburutegia”. Tolosa, 1963.

Telefonuak sarri izaten ditxuen zarategaitik edo ez eban ondo aitu Sabiñ errekadistian izena.

—Zeñekin esan dozu?

—Sabiñekin.

—Gagariñekin?

—Bai. Ori da gure errekadistia.

—Bueno, bueno. Geure kontu. Urrengo zeruetara eitxen daben biazian bialduko doguz.

—Bueno, ondo dago. Adixo!

—Bai. Adixo San Pedro, salauori! Gorantziak Santo Tomasi. (“Entzun es baneu, sinistu ez”).

XV

AREK ZIRAN MIÑAK

Ez zan plaentxiatarra, andaluza baño, eta euki eban kargua gaitik ondo ezauna. Erriko jueza ta euskerarik tautit pe jakin ez. Ainbeste seme azkar erri barruan eta erbesteko militar erretirau batentzat kargu ori be.

Ankako-min itzalak oratu zetsan gure juezari, gorriak ikusteko, (len ikusi eziña baeukan be).

Don Jose medikuari deitu zetsen. Etorri zanian. Ezer baño len, andriak sukaldera eruan eban, gizonari gertatzen jakona ipi-apa kontatzeko.

—Ara, don Jose, izugarrixa da nere gizonari pasatzen jakona, ez dau bakerik, ez jan, ez lo. Oin-

diok eztira bi miñutu, bere aienekin etxe onek zoro-etxia zirudiana.

—Baña, Karmen, ainbesterañokua al da?

—Esaten detsudan moduan. Bildurgarria da ankiakin zer parezitzen dauan.

Doña Karmen da medikua, bixak batian sartu ziran geixua euan kuartura. Baña, doña Karmen, izututa, berriz sukalderatu zan, negar-zotinka.

—Ia, ikusi daigun, don Kritilo; patxadaz esaidazu zer sentitzen dozun.

—Arrigarria ez, bildurgarria da au don Jose...

—Ia, ia; trankil. Zein ankatan dozu min.

—Ointxe, ointxe esango detsut...

Tartia, geixua asi da andriari diarka:

—Karmentxu maitia, zein anka zan miñez neukana? Ezkerra ala eskumia?

Ta, don Josek, piparminduta:

—Astuan arrantzia, min gabia.

XVI

NAI TA NAI EZ

—Emen tallarrian noiztik diarduk biarran?

—Kalera botako ninduela esan zestenetik.

XVII

MERITU GUTXIKO PELOTARIA

Atano III-garrena bere sasoirik onenian euan denporan; Eibarko tallar baten uezaba pelotazale itsuak, kartaz burua berotu ei zetsan Salamanca-n eukan errepresentante bati, Atano ikustera etortzeko. Berak eiñgo zetsazela bideko gastuak eta Eibarko egoera ta.

Ainbeste erregutu ta gero, etorri ei zan.

“Astelena” frontoian, orduango pelotari onen-txuenetako biren kontra ei eukan partidua. A partidua be, beste asko bezela, errez irabazi ei eban; baña salamankarra ez ei zan asko arritu.

Eibartarrak esan zetsanian:

—Da, konturatu zara Atano zelako fenomenua dan?

—Baj! Gauzia. Olan, neuk pe irabaziko neuke; kaintxan, pelotia, beti, iñor ez dauan lekura bota ezkerero...

XVIII

OSINTXUKO EUZKI EPELA

Trankasu edo gripe izeneko gaitzak ainbat erio-tzaz erririk geienak kolkordu zituan egunetakua da.

... Plaentxiako erriak jipoi ederra artu eban, ta biziakin urten ebenak, osasunez gogortzen zoiazelala, oitura euken Osintxu aldera, tipi-tapa, ibillitxo bat eitzeko. Jakiña, egualdia lagun ebenian.

Geruago ta mordoxkiago juaten ziran Osintxuko auzora. Izan be, Plaentxia baño euzki begiago be bazan da.

Osintxukuak, ainbeste plaentxiatar geixo ikus-tiaz ez ebizen aiskide. Baebillen naikua autu ta berbakizun plaentxiatarren kontra. Euren auzua, Plaentxia baño osasuntsuago gorde zala trankasutik baño orduantxe gripe dalako geixoz kutsutu biar ebela gosikillen itxurako plaentxiarrak.

Sasoi aretan, gaitzizenez "Sakristaua" deitzen zetsen Letetar bat euan Osintxuko auzuan alkate. Ta, ez eban beste biderik euki zurrumurru txarri-jamon eiñ baño. Ta, arratsalde batian, oituriari jarraituz, ogeiren bat euzki epeletan euazela, jokera orri muga ipiñi naian, onela edo antzera berbatu zan Osintxuko alkate jauna :

—Zuek badakizue ni naizela erriko alkatia, ta, alkate naizenez, erriko osasunari begiratu biarrian nagola, esan biar detsuet. Errazoj orrek biartzen nau neurri gogorrek artzera. Konprenditzen? Orregaitik, emendik aurrera, debekatzen detsuet emengo euzki epela artzera etortzia.

—Ara ba, alkate jauna, euzki epel ori, zuek pagatzen dozuen beste geuk pe pagauko genduke ba.

—Ez da ori kontua. Bakotxak beria Jangoi-
kuan legia. Ni naiz alkatia, ta alkate moduan, ez-
tot nai erritarrerri zuen gaixua pegatzerik.

—Jauntxokeriekin aspertuta gare!

—Jauntxokeria ez! Emen geu gara jabe! Gai-
xo lorratzik ez dogu biar, ta txarrera eldu baño
len alde emendik. Ospa!

—Ba, ba... Guaziak Plaentxiara. Gizurra ji-
rudik, "sakristaua" izan da onek etxok nai entie-
rrurik pe bere errian.

XIX

BILDURRA

Ara bein, Tejerua zarrari zer pasau jakon; be-
rak kontatzen dabenez.

Iturriko urakin etorren batian, Akerra txispa-
giña ikusi ei eban, bere araria soka muturretik lo-
tuta ebal. Arari-jokuan parte artzeko, eguneroko
entrenamentua eraitzera edo erain ondoren ei eto-
rren. Itxuria, araria egarrituta etorren eta Tejerua
ikusi ebanian pitxarkada urakin, aintxintxika asi
ei zan beragana, Akerrari eskutik iges eñaz.

Tejerua gizajuari, burrukara edo etorrela bei-
txandu jakon, ta zelan bere buru gogorra urtiak
pixkat bigunduta eukan, ez eukan frente eitxerik.
Estu ta larri igesixari emon zetsan, ondoeza eñ

biarrian. A ei zan perra otsa. Une aretan Arruitzko txikiakin be neurtuko ei zan. Tejerua bi ankan eta araria lau ankan; Akerra berriz al eban moduan, ta bere andria auskalo nun euan.

Nekez artu ei eban ataiko atia. Abixaran sartu zan peora barruan eta bixkor baño aguruago asi eskillarak gora, ta araria ondorian, ta, atzerago, Akerra arariari orruaka. A ei zan ikustekua.

Pasadiso au, Tejeruari, entzuten euazenetariko batek esan ei zetsan:

—Baña, arari bati zergaitik ainbeste bildur? Arariak etxaukak barren gizonantzako ezer txarrik.

Bestiak:

—Ez, erreta balegok.

XX

IJITUENAK

Orain urte batzuek, diñuenez, ijituak kristautu nairik, elizgizonak eiñ ei eben kanpañaren bat. Baña, andik jasotako frutuen barririk eztaukagu, emen kontatzera noian gertaeraren bat edo izan ezik.

Bergarako San Pedro elizan bada Mesa eskultoriak (Montañés aipatuaren jarrailea) egindako zoragarriko Kristo kurutzatu bat Ta, ara, bein berakin gertau zana.

Norbaitek burua berotu zetsan Erai izeneko ijituari, kristau izan dein. Milagruen bidez, kristautasunak eukazen bentajak erakutsiaz. Fedia eukanak Kristori eskatzia naikua zala, ta abar.

Erai gizajuak ez dakigu gauzak zelan aituko zituan. Dana dala, berak asko uste barik, zerbait eskatu biarraren premiñan agertu zan. Chabo, bere semetxua geixorik euan, il-zorian. Ta, seme bat il-eñian jarri ezker, olako kasu batian, justua da gurasuak zeozer nai izatia eta, motxall'en arteko sasi-medikuen etsipena artu ondoren, Erairi ez jakon beste gauzarik bururatu, predikalari aren gauzeri jamon eiñaz, Bergarako Santo Kristoari milagrua eskatzia baño. Egunero asi zan Mendarotik Bergarra-raño juaten. Kristori kristonetako erreguak eixera, bere Chabo semetxoaren salbamenerako. Baña, denporia aurrera ta obekuntzarik ez. Pazientzia galdu ta esperantza gutxitu jakonian, Kristo, kristoneko amenazupean ipiñi eban. Egun baten au esatera eldu zan :

—Zu, nere semia oneratu biar dozu. Ointxe daukazu prueba ederra neri fedia emoteko. Nere semia osatzen badozu, urtiak dituan domeketan ez naiz faltauko mesa batera be. Aitxu dozu?... Zeuk atara kontuak.

Erai motxalliaren eskabidiak gora-bera, egunetik-egunera txartzen zoian Chabo.

Urrengo egun baten, Chabo semetxo gizajua, txarretik txarragora zoiala ikusirik, an azaldu zan barriz be Santo Kriston altarara.

—Jauna, eztozu bete nik lengunian eskatutakua. Nik badakit zeure ezkuetan dagona; zeure nai edo ezian dago guztia. Baña, nai ta nai ez, nere semia salbau biar dozu. Onian ez-pada txarrian. Estaka bategaz kriston zapliadia artzerik nai ez badozu beintzat. Zer demonio?... Abadiak esan zetan lez, jakiñian neu, zeure eskuetan dagona milagruak eitxia ta parkatu? Ez orixe. Neure Chabo osatu edo bestela, neuk zeu, kriston makilladak emonaz birrindu.

Orraitxiokarren, irutxur batetik sakristauak entzun zituan aren azkenengo berbak eta larritu zan, motxalla arek Mesaren Kristo paregabiaz disparateren bat eiño eite eban. Parrokua ipiñi eban jakiñian, ta laster artu zituen biar ziran erabagiak.

Ijito zoruaren arrisgotik kentzeko, egun batzuetan beintzat, Kristo baliosua sakristian gorde, ta bere ordez beste bat ipiñi, a euan lekuan bertan. Txikia ta balore bakua.

Bai azertau be. Bi edo iru egunera, an etorri zan Erai magal-kirten bat eskuan ekarrela; bere semia il zala ta kontuak eskatze alde Kristori bizkarra berotzeko asmuz.

—Santu madarikatu onek egurkada ederrak artu biar jestaz. Kristo badok pe, kristonak ikusi biar jitzuk. Neuk kenduko jetsadaz, bartzak ez-
ezik, baita milagru usañak pe !

Baña... ! arrigarria ! Kristo txikia billau eban, aundiaren lekuan. Ta gure ijituak, ba-pe aspamentu barik, esan zetsan :

—I, mutiko, esaiok aitari urtetzeko.

* * *

Kalo zan beste ijito peto-peto bat. A be, tentau eben kristautasun bidietan sartzeko. Baita paskukua eitzera konbenzidu be.

Orretarako, ejerziziuak eitzen asi zan. Jakiña, bere senitxarteko Etxeberriatarrekin ollo-lapurretarako planen bat edo eukanian, ezin ba juan. Olakorik eztala eññ biar ? Jatorrizko anarkistak izanik, soziedadian alkartuta bizi ziran gizoneri ostutzia, euren *devel* jangoikuan aurrekaldian, ez zan delituzkua. Meritua zan, lapurretia. Mundukua, mundukuentzat. Burokrazia, propiedadia ta jauntxokeria, aundikeriz goratu nai ebenak asmautakuak ziran. Agiri-agirian, gizonan dejeneraziñua zan.

Abadia, ejerziziuetan ebillen gizon pilla bati Kriston Kalbariua erakusten. Ta, euren arteko zan Kalo Etxeberria be. Kristo kurutzian josita euan altariari kandela batekin argi eññaz, ba zoian abadiori Kalbario mendiko pasadisua ipi-apa kontauaz.

—Zuegaitik... zuegaitik il zan Jesus kurutzian. Zuegaitik dago egurrian josita. Bai!, zuegaitik. Bai! gizonak, bai! Zuek salbatziarren il zeben Kristo!

Abadiak, geruago ta gartsuago zeroian bere sermoia. Ta, Kalo, berriz, geruago ta arrituago, aren berba jarioa entzunaz.

Abadiak, bere berotasunian, urreratu eban kandelialia ixa Kristo ikutu arte, gero ta indartsuago berba eñaz:

—Bai gizonak!, sinistizue, gizonen salbaziño-rako ainbeste arduratu zan Kristo, zuegaitik il zala! Ta, ara emen kurutzian josita, zuegaitik! Bai zuegaitik il zan Kristo!...

Kalok, bere arritutik urtenaz:

—Bai, ta oin zuk, kandeliorrekin anakak erreiozuz ta gero, orregaitik pe, guri emon kulpia.

* * *

Choro izan zan, bolara aretan, paskuakua eitxeko burua berotu zetsenakua. Choro-ren apellidurik ez dakigu; baña, ziñuanetz, mendaroarra ei zan eta senitxartekuak ei zituan Orion eta Andoain a'dian. Guztiak ei zetozen Faraonen magaletik. Kalontzako moduan, Chorontzako be, ejerziziuak ain brillantiak izan ez-paziran be, juan zan orraitxiok konfesatzera.

Konfesore euan abadiak laster igarri zetsan a ez zala eguneroko komuniua artzen ebanetakua,

ta ezta gutxiagorik be. Paskuakua ganoraz eiño bazan, dotriña kontuan pruebatxo bat eraitzia bururatu jakon, ta esamiña preparau zetsan:

—Norek il eban Kristo?

—Ara, abade jauna, ez dakit ba nor izan zeikian.

—Zer?...

—Ez dakidala nor izan zeikian.

—Ez dakizula Kristo norek il eban?

—Ez jauna.

—Ezetz?

—Ez.

Abadiak, barriz be, arrituta:

—Baña, egia da gero, Kristo norek il eban ez dakizula?

—Egi-egia. Nik, sekula ez dot iñor il.

—Kristo norek il eban diñotsut.

—Ni ez naiz izan...

—Eee...! Zer? Zu ez zarala izan?...

—Ez jauna.

—Ez zara lotsatzen ori esaten?

—Ba... Ezetz... Ni ez naizela izan.

Ori esanaz, ta orretatik urtetzeke, bat-batian jaiki ta emon zetsan anka jokuari. Aintxixiketan elizatik urtetzera zoiala, atian tope eiñ eban beste zingaro antzeko arpegidun batekin. Kalo zan.

—Nora oia, Kalo?

—Konfeszera.

—Ez ari jua. Zergaitik eze, Krespo dalako bat il ei juek eta gure bizkarrera datuaz kulpak.

XXI

OITURA

Eskabitxe fabrikan biarrrian asi nai eban gazte bati, uezabak esan ei zetsan :

—Ez uste izan gero sardiñak latan ipintzea ain gauza erreza danik...

—Zergaitik ?

—Ustez, latan kabidu leikezen baño geiago sartu biar dira, ondo tolestuta.

—Ez zaitetz estutu, oin arte tranbiako kobradore izan naiz da.

XXII

FRALLE ONA

Etxe batian, Eibarko etxerik geienetan gertatzen dan bezela, andria egunero juaten zan elizara, baña, gizona ez eban egundo eliziak azpian artuko. Lantzian bein, andriari pelotia eitxe aldera edo bere parranden lizentzia ordeztu, ba-ekian gizonak erregalutxoren bat edo beste eruaten, errosario, urbedinkatu ontzi, mesa libururako santuren bat, edo olako uskeriren bat. Andria barriz, geienetan mustur luziekin begiratuz egoten bazan be, auzo-

ko atsueri kontatzeko eukitzen eban: "A!, nere gizona. Gizon guztien moduan, bere biziotsuak eukiko ditxu, baña neure onerako zer eñ be eztaki. Beti dakar erregalutxoren bat".

Bakarrik, auzokuak pe, beti izaten eben soñu bardiña, bakotxak bere gizona goratzen. Baña, auzuan, edozein gaberditan entzuten ziran etxia orpotik ataratzeko moduko orruak: "Oin arte nun ibilli aiz, golfo bergante aundixori!"; "Orrek ditxuk familixako gizonan orduak?!"; "Mozkor aundixa! Andra kotxauan erruki gabia", abar da abar.

Bein, aurrerago aipatu dogun gizona, azaldu zan lantziango erregalutxuagaz. Oinguan, egualdian gora-berak igartzeko fralletxo bat ekarren. Ta, barometru orde, andriak pozik ipiñi eban orman. Baita, denpora gutxian, auzoko andra guztieri erakutsi be. Baña, andik egun batzuetara konturatu zan ezetsala egualdiari beti zuzen igartzzen, ta gizonari esan ei zetsan:

—Onek frallionek pe, beti ez diño egia.

—Fraillia da ta...

—Ta, zergaitik ekarri zenduan ba?

—Ikusi deizun zelakuak diran. Ta, gañera, bedori onena dala.

—Bedori onena...?

—Bai.

—Guk entzun biar ditxugu entzutekuak. Zergaitik da ba ori frallerik onena?

—Bestiak jatunak diralako, ta ori, ez.

XXIII

FAKIR

Bizkai aldetik etorri ta tabernia zabaldu eban Plaentxian. Baña zelan gaitzizenik ez eukan, ori ez zan itxurazkua erriko- seme biurtzeko. Naikua euzki ez badauke be, orretarako ez dago kuporik autserrixan.

Andria, Asun zan; andrakume liraña. Gizonari, Mendatakua zalako, “probisionalmente” Mendata deitzen zetsen; ogi faltaz, ona ei da artua.

Ta, zorixoneko izena ipiñi biar ba...

Egun baten, bolo-bolo zabaldu zan, “Fakirra” zala.

Mendata gizajuak ez eukan ontzat artu beste erremediorik. Badakizu ba... tabernako bezeruak pe baziran da; Asun, bere andriak pe, ez eban beste biderik izan aguantau biarra baño. Berak pe laster entzungo eban Fakirresia. Ta, ago batez, erri guztia “Fakirra” deitzen asi zan. Ez zan ba ain argala be fakir itxura eukitzeko, baña...

Ez jakin batek, preguntau eban:

—Mendatari zergaitik deitzen jetsek “Fakirra”?

—Ba, “Asunekin” lo eitxen dabelako.

XXIV

NEREKIN EZ KONTAU...

Maitasuna ames bat ei da, ta errukarri esnatzen dana.

Joxentzako be, ezkondu aurretiko kontuak akabau ziran, bein sakristian firmak jaurti ondoren.

Suegriak laster ipiñi zetsan kondeziñua:

—Fin ibiltzen ba-aiz, domeka goizetan bakarrik egurretara.

Baña, etxe utsa, gerra utsa.

Ala ta guzti be, naikua ondo konpontzen ziran, suegria il zanetik.

Beñipein, naikua zeregin patxara apurtxo batekin bizitzen. Gizonan irabazi bakarra, urrixa izan, ta or-emen aprobetxau biar etxerako zerbait geigarriz.

—Gizon, juan gaitxezen gaur biok, egurretara. Egualdia ore usañez agertu arren ez dau euririk eiño ta.

—Ori asko esatia da, baña guazen, Kataliñ. Badakizu gero, bein illuntziko zazpirak ingururako, beti bezela, Anjelenekora txoriak keixara lezte jo biar dodala.

—Bai gizon. Ta, ala ezbalitz...

—Ala ezbalitz, egur guztiak sobre dagoz. Ez legoke bizi pozik.

Andra-gizonak, maitekiro, aldapan gora mendiratu dira, Erlei-errekan ziar. Egur zama eder bana, or-emenka, tajutu be bai. Ta, ara or, San Andresko ore-kanpaia nun asi dan. Ta, asi bada, asi da. Bere doñua garbi entzutzen dala, jo ta jo: “*An, an, an...!*”. Ta, parrokiako kanpai astunak erantzuna, bikotia eñiaz, bere draungada sakonakin, astiro: “*Nuun-da? nuun-da?, nuun-da?....*”. Ta, gaur oitzen ezpada be, esaten dabenez, aintziña eurengana alkartzen ei zan, jotze azkarrago batekin, mojen konbentukua: “*Tella-tuan, tella-tuan tella-tuan,...*” (1).

Ore-kanpaiak asi ziranian ekaitzan barri emoten, estutu zan gure parejia.

—Kataliñ, ez giñan ba, euririk ez zala jausikota? Emen dator, emen etortzeko arriabarra. Txingorak belarrixok ondo berotu biar deskuz. Ez dakit zegaitik, baña, ikustekuak ikusi biar ditzuguz.

Esan eta izan. Izugarritzko oñaztu, trumoi ta txingor zaparradak eta Erlei-errekan bera, angoraren indarra ta arri otsa, bildurtzekua zan benetan. Kataliñ ziara bildurtuta, berba egiteko baño ikara aundiaguaz, aitz zulotxo baten ezkutau zan; uste onez, orraitziok, gizonari, ikara mortalez bazan be, esan detsa:

(1) Ore-kanpaia, Plazentzian, ekaitzaren berri emateko jozen dan kanpaiari deitzen zaio. Oitura oni buruz, ikusi “Euzko-gogoa” aldizkariaren 2-garren zenbakia, 1958-garren urtekoa, 195 orrialdea. Bertan idatzi nuan *Ore-kanpaia*. Baiona, 1958.

—Joxetxu! zatoz ona, zatoz. Egur zamaua bertan-bera lagata, zatoz ona. Ementxe bixok, Jangoikuaren grazian, alkarren onduan ilgo garta...

—Ez, Katalintxu; ez kontau nerekin. Or-konpon!

XXV

ZER IKUSIRIK EZ

Berdabio sartu zan Burunera, ta:

—Ipiñi dak kuartillu bat ardau.

—Zurixa ala baltza?

—Igual dok, Txanbolin itsuarentzat dok eta.

XXVI

LOTSAGABEKERIA

Txistu Donostiara juan zan batian. Udan zan, da jakiña, iñundik iñora ezin eban billau ostaturik. *Hotel Euskalduna*-n esan zetsen, oe biko kuartu baten, oe bata libre euala, ta nai ba-eban, beste oian gizon zintzo bat euala ta bere aldetik ez euala alboko oian lo eiñ eziñik.

—Beno; ba, besterik ezian or eñ biarko dot.

Txistuk, oeratu aurretik, oitura eban bezela, biamonerako prest ipiñi zituan bere garbitasunerako eroiazen gauzak: jaboia, esku-pañua, orratzia, agiñak garbitzeko zepillua ta abar. Izan be, garbi ta txukun gustatzen jakona genduan gure Txistu.

Bixamon egun-sentixan, beste oeko laguna zerbait lenago esnatu zan ta Txistu esnatu zanerako, bestiori, Txistun gauzekin jabetuta, eurekin garbitu zan. Ta, gañera, azkenian, lotsagabiak alakuak agiñak pe Txistun zepilluagaz garbitu zituan.

Txistuk, orrek maniobra guztiok, berari begira pasau zituan, asarrian-asarrez, zerbait esateko baño erriago, ta arrituan-arrituz txistik eñ barik, bere begietatik suak urtetzen ebalala esan zeikian.

Alakoren batian, gogo txarrez, bera be jaiki zan, ta ez eban beste erremediorik euki, garbitu ta esku-pañu ber-beraren mutur batekin, iguñez, al zan moduan zikatu baño. Orraztu be bai. Baña, agiñak garbitu barik laga zituan. Eta, urtetzera zoziala, bestiak esan ei zetsan:

—Agiñak ez dituzu garbitu biar ala?

—Bai baneuka zerekin.

—Or dagon zepilluori ez dozu ba zeuria? Ni be orrekin zerbidu naiz, baña, barriz ondo garbituta laga detsuk.

—Ori ez dot baña orretarako.

—Ez al da ba agiñak garbitzeko.

—Bai zera... Nik ori, atzeko zulua garbitzeko erabiltzen dot.

XXVII

GOIZAGO

—I, Okelerre, ain seme gaztia eukitzeko, goizago ezkonduko intzan eztok?

—Bai; goizeko zazpiretan.

XXVIII

ZAZPIRAK BAT

Ermuar bat, eibartar bat eta Sesma plaentxiatarra jua ziran auto baten Frantziako Euskalerrira, turismo usañian. Erri batzuek errekorridu ondoren, ermutarrak eta eibartarrak esaten ei zetsen alkarri:

—Mugaz bestaldetik garanik pe ezin geinkek esan. A ta au, antzerakuak ez-ezik, igual-igualak ditxuk.

—Bardin-bardiñak. Etxiak, soluak, mendiak, basuak, basarritarrak, arrantzaliak... Ango arpegiak emen.

—Ta, euskeria aguan...

—Txapela buruan...

—Pelotia jokuan...

—Uezaba auzuan.

—Bai.

Belarriak erne, bien konbersaziñua entzuten euan gure plaentxiatarra. Aren esanetako errazoi biribilleri zerbait ezarri nairik.

Bestiak, eurenari jarrai:

—Ez dagok bueltarik. Egixak ditxuk orrek danok.

—Orrek danok eta geixago.

—Azkenian, izenak eurak pe igualak.

—Azkenian ez, lelengotik eta geixago.

—Bai. An Getaria ta emen Getary, an Berriz ta emen Biarritz, an Itxaso ta emen Itxaso...

—Baita errekek pe —ezarri zetsan plaentxiarrak.

—...an Larraun ta emen Larrau, an Ibarra ta emen Ibarre...

—Ta, alde bietan naikua barre —plaentxiatarrak—, emen Masparrate ta an amaika mas-parralpe.

—...an Etxarri ta emen Etxarri, an Lekunberri ta emen Lekunberry, an Noain ta emen Ainhoa...

Plaentxiatarrak:

—An Aizarna (hay sarna) ta emen Azkaiñ (azka egin).

XXIX

ERRETZALLIEN OSASUNA

—Ik daukak osasuna, ik. Larogeta bost urte soñian da trankil erreaz bizi aiz. Ez al daukak geixotzeko bildurrik?

—Bein edade batera eskerok, geixotu edo ez geixotu, Josefateko zelaia ez jaukagu urriñ.

—Lagaixok. Eriotza beti dok bildurgarrixa. Gañera, takorrixak, bizixana ei jaukak.

—Ilarenik ez daukan artian, bizixanakin ibilli geinkiaz.

—Iño...! Min-bizia gero, min-bizia dok.

—Min-illa obia ete dok ba? Erretziak ez jaukak osasunantzat zer ikusirik. Orrek ipuñak ditxuk. Ezaik ezer sinistu. Olako gauzak, medikuak asmatzen jtxuek. Egon ari seguru.

—Ez daukala ezer?

—Ez gizona.

—Ezetz? Ba, jakin nai badok. Mediku guztiak, buru batez, urtiak artu nai baditxut, erretziari lagatzeko esan jestek.

—Baj! Ipuñak! Nere anaiak ez juan erretzen, baña gazterik il zuan.

—Ze sasoikin?

—Lau urtekin.

XXX

ARTALIA BERE USTEZ

Gure inguruko basarri-etxe baten, beste askotan izaten diran letxe, seme iñuzentetxo bat euken. Nauzituaz bere zenera sartuko zalakotzat euazen bere gurasuak, baña alperrik. Okerretik-okerra juan zan eta, azkenerako, ziero zoratu zan.

Eztakigu zer dalata, sartu jakon buruan bera artalia zala, ta olloren bat aurrekaldian azaltzen jakon bakotxian igesari emoten zetsan. Ori zala ta, bere etxequak ez eben beste erremediorik euki, zorro-etxe batian sartu baño.

Medikua, sikiatra ona zan, ta gogoz artu eban mutillaren problemia. Lelengo egunetan, egunero lau edo bost aldiz, ordulaun batian, "Ni, ez naiz artalia" esaten ipiñi eban. Ta, iritzi ori buruan ondo sartu zetsanian, beste esankizun au: "Ni, gizona naiz".

Medikuak, bere auzia irabazitzat emon ebanian, deitu zetsan mutillari.

—Zu, zer zarala uste dozu?

—Ni? Gizona.

—Ez ete zara gero artalia?

—Ezta pentsau be. Ni, ez naiz artalia. Ni, gizona naiz.

Ori ikusirik, bialdu eban mutillori basarrira, gurasuentzako kartatxo bategaz. Kartiak esaten

eban: "Zuen mutillari, kendu detsadaz bere burua artalia zanaren iritziak. Oin eztau uste izango olluak jango dabenik. Alde ortatik trankildu zeikie".

Ala be, etxequak sinistu eziñik zeuden, da aitak preguntau zetsan:

—Artalia aiz ala ez?

—Ez. Ni, ez naiz artalia. Ni, gizona naiz.

—Seguru al ago?

—Egongo ez naiz ba seguru; bai orixe. Len, artalia nintzan ustiak neukazen, baña oin seguru nago gizona naizena.

—Orduan, juari ollatokira, ollueri zaperua emotera.

—Ez! Ori ez!

—Zer ba?

—Bildurtu eitxen naiz.

—Baña artalia ez aize!a jakiñian, eztaukak zertan bildurtu. I gizona aiz, ta ez abe jango.

—Nik bai; nik eztaukak dudarik gizona naizena. Baña, olluak ba al dakie artalia ez naizena?

XXXI

ALPERRIK GALDUTAKO URA

Zaldibar aldetik Eibarrera esne saltzen etortzen dan batek, lelengo aldiz itxasua ikusi ebanian, esan ei eban:

—Ai, ai, ai! Zenbat ur-galdu!

XXXII

NAIZ DA ITSUTU

Aizekeri astunak, noiztik bein lagunartean badauke lekua. Begietatik gaixo zala-ta, plaentxiatar bati, medikuak ainbat konseju on emona zan.

—I, Joxe Mari, batez be kontu aundixa euki biok edanakin, ardau gutxi ta ala be patxarra ta ostantzeko edari gogorrak gutxiago. Bestela, egunen baten, ire begi erre orrek bistia ziari galdu leikiek. Konprenditzen dok? Itsutu eingo aizela. Esandakua esanda. Eure kontu.

Gure Joxe Mari gizon alegre ta nunbait edanari laga eziñekua. Konsejuak gora-bera, jarraitzen eban tragozkada ederrak eñaz. Erdiko bat eskatzeko be oitura zeukan esatia: “Ia erdikara bat, naiz da itsutu”. Ainbeste erdikara izaten ziranez, lagunen belarrietan ondo sartua “naiz da itsutu” ori.

Beiñ, ondotoxo afaldu ondoren, konturatu ziran lagunok Joxe Mari, okotzerañok jan-edanez beteta, lo gogorrak artu ebala, ta euren ixillekuetan, alkarri esan zetsen: “Ontxe dok ordua eztenkada bat sartzeko”. Ta, ala eñ be. Argi guztiak emendau zitxuen eta kartetan balebilz bezela, asi ziran orruaka, batek “truk” eta bestiak “erretruk”, irugarrenak ukalondo ta ankaz golpetxo batzuk emonaz jux-juxtu esnatzeko lain. Esnatu biar ta esna-

tu zan, baña bere begiak ezer ez ikustian, dan-dana illunpian zeuanez, baña belarriak somatzen eben ango txortxorra ta zurrumurrua, ta batian "truk!" eta urrengo "erretruk!" otsa. Arritu ez-ezik, bildurtuta, diño Joxe Marik:

—Baña, mutillak, zuek ikusten dozue ala?

—Ikusiko etxuagu ba; bai orixe.

—Oi, oi, oi! Ointxe galdua nok. Medikuak bai neri esan, baña... Joxepantoni! Benetan itsutu naizela. Azkena, ez geixago! Ene, ene!

XXXIII

BIDIA ZUZENTZE ALDE

Bergarara eldu zan erbesteko bat, eta lelengo billau ebanari galdera eiñ zetsan, ta bai tokau be plaentxiatarra izan biarra:

—Aizu, esango al zenidake presondegi edo kartzelarako bidia zein dan?

Plaentxiatarrak:

—Ara, ni ez naiz emengua, baña ori gauza erreza da.

—Bai?

—Bai, Ara, ikusten dozuz or aurrekaldeko dandan daren erlojuak?



YULEN.

—Bai.

—Ba, ostutzen badozuz laster erakutsiko de-
tsue.

XXXIV

AURKA

Eztakiguz egiak izango ziran plaentxiatar arek
kontatzen zituanak, ala Tarascòn-go Tartariñen
antzerako aiziak eukazen. Afrika aldian kasan
ibilitako eran azaltzen eban bere burua.

Illuntzi batian, bere aiskide bati Afrikako ger-
taerak kontatzen:

—...ba bai; bazkaltzen gendela, uste-uste ba-
rik agertu jakuan tigre bat. Igesiari eman da, a
zuan perra otsa. Al ebanak al eban lekura. Baña,
ez jestan ba neri bakarrik jarraitu. Sekula eztxuk
izan nere anak ain lijerrak, a zuan aintxixiketia,
basamortuak jota egaztadan pasatzen najitxuan.
Ondo probau najuan nere junturak ez neukazela
uste neban moduko soorak. Eldu nintzuan men-
dia sei bat metruan ebagita euan leku batera ta
salto eiñaz jux-juxtuan obatu najetsan bestaldeko
egalari ta pultsuan igo biar izan najuan...

—Da, tigría?

—Berriz be, bestaldia artu nebanian, etxando-
tximistaz jarraitu najuan arru batetik bera. Ain-
txixika, juan da juan nindoiala, ibai bat azaldu

jatan aurrez-aurre ta, kokodrillurik euan ala ez begiratzeko asti barik, igarixan pasau nintzuan...

—Da, tigría?

—Ibaixan bestaldia artu nebanian, bixkor al-tzau najitxuan ankok median gora. Egundoko orma bat igo biar izan najuan, ez jausiko bai jausiko, ta orraitxiokarren, osasunagaz artu najuan orma gaña...

—Da, tigría?

—Zer dok ori! Beti: Da, tigría; da, tigría! I, noren alde ago, tigría ala nería?

XXXV

GURE SEMIAN MODUKORIK...!

Troke plaentxiatarran seme bat asi zan ziklista. Oingo moda barrixan, estudixatzeko gauza eztiran semieri, (ta, esango genduke, gauza diraneri be bai), ez ei dago oberik foballista edo ziklista erakustia baño. Orrek ei dakar ondasuna.

Troke guria, Txitxi baño arruago ebillen bere semia zala-ta. Lengo zaarrak esaten eben: "Ton-tua izateko ez dagola estudixau biarrik"; ta oingo gaztiak: "Aberasteko ez dagok listua izan biarrik". Or ba, denporiakín gauzak zelan aldatzen diran.

Troken lagunak buruko ulietarañok euazen beti gauza ber-bera entzutzen: "Gure semian modu-

korik! Atzo be, ari-arixak gelditxu zuan lelen atara barik. Pintxazo demontre baten kulpaz. Gure semian modukorik!”

Beti bat, beti bat; txori txarran kantia. Troken semia ez zan aotan erabilli bakua. Baña, iñoiz ez eban karrerarik irabazten. Batian pintxazua, bestian manibela ta urrengo kuadrúa edo pedala, beti eukan zeozer. Dana dala, denporia aurrera ta sekula irabazteka jarraitzen eban.

Igesko Andra-Marixetan, artu eban parte Plaentxia bertako karreran, aitxaren seme fenomenoak. Ta, ara nun gelditu zan azkenen. Ori gañera, bestiak ez zirala puntarengo karreristak.

Gertaera orregaitik, lagunak ezitxan egoazen, Trokeri adarra jotzeko.

Bixamonian, Meltxorreneko tabernan alkartu ziran, ta esan ei zetsen aitxorri:

—Da, semiak atzo zer eiñ jua ba?

—Gure semiak? Gure semian modukorik!...

—Oin be bai?

—Fenomenua dok.

—...Uste dok?

—Bai gizonak. Atzo be an jua zuan, sentellak darixola! Danak aurrian ditzuala!!

Gauza guztiak ei dira ze aldetatik begiratzen diran.

XXXVI

EZIN LEIKEANA

Urte mordozka bat dala, Urkuzulo Orbea-nian ei euken albidade aundidun biargin bat. Edozer gauzatan aitzen ei jakon, elektrizista, txispagintzan, dorniatzaille, barrenari, labari, akabatzaillera abar. Asmatzaille aparte gaiñera. Era guztietara azaltzen ei zan onen-onentzat. Ez dago esan biarrik Orbea-nian estimau eukela.

Baiña, gizon fiñaz gaiñera bene-benetako biargiña izanarren, arentzako be astelena astelen. Eztago bueltarik. Ez zan ajiagaz sarri juaten zana, baiña takian-potian izaten zitxuan beriak. Orregaitxik norbaitxek esaten ei eban, gizonan neurrira benderatzen zana zala.

Ta biargin onegaz sarritan gertatzen dan moduan; eskubide asko taillarrian, naiz da diru gutxi aldian.

“Gizonan neurrira” biurtu zan astelen baten, moldekaxtuta ebillen bere biarretan. Ezer azertau eziñik, danak oker urtetzen ei zetsan bere eskuetatik.

Orretan, Wenceslao Orbea uezaba zana azaldu ei jakon ingurura. Ta, ikusirik oker ebillela, lagunduz asi ei zan zuzentzen, baiña egiñalak-egin, biargin on-onori, barriz be lenera. Uste eze, naitxa ebillela okerrera.

Uezaborrek, sufridu eziñik :

—Ori dok xaxaria ; euk neuk baiño obeto jakinda, neuk erakutsi biar. Ik ustedok izan leikeala : gaixuak medikuari erakustia ?

—Ta, zuk uste dozu izan leikeala : gaixua aberats ta medikua pobre ?

XXXVII

IGARTZALLE TXARRA

Felix Legarre gutxin moduko zalia zan ollarjokura. Bein, bai-ei zoian Untzaga-kalian ziar besapian “Kanelo” bere ollar maitxia artuta, zein da ume txiki bat balitza bezela. Isaak Biteri medikua etorren bestaldetik eta zerbait esan biarrez :

—Ba-oia...

—Ba-najoiak.

—Eure olluorrek.

—Ollua ? —Felix Legarrek erantzunez—. Ollua ala ollarra dan igartzen eztakixanak, zera igarriko jok katarrua ala plumunixia dan.

XXXVIII

ETXE-KALTEN KOÑATUA

Etxe-kaltek aspaldi dala eukan bere ama ondoezik, gaizki txamar gañera. Ala ta guzti be, bai

senidiak eta bai auzuak esanak-esan, ez euan a beñoraezkeriokan zuzentzerik. Tabernan, tallarrian da etxian baño denpora geiago emoten eban. Beti txurrutian. Etxeratu orduko, juateko gauza bazan, goizaldia izaten zan.

Esaten jakon ba, besterik ezian, amaren azkenengo urtietan zuzentxuago ibiltzeko, baña alperri. Alperrik Marixak makillatu, berez biar du.

Ama, il zan. Entiarra eñ biar zalata, jua jakon abadia, zer mallatako entiarra klasia eñ erabagitzera. Gure Etxe-kalte be ez zan egunero komuniua artzen ebanetakua, ta berak ez-paekian be orrek baditu bere kaltiak: abadiekin eta fralliekin esperientziarik eza.

Ta, jakiña, Etxekalte-gana jua zan abadiak bazekin nundik asi; bada-ezpada goitik.

—Zer entiarra klase eiño detsagu? Primera-kua?

—Ba —izan eban Etxe-kalten erantzun guztia.

Egin biar ziranok egin, ta elizkizunen ondoren, jua jakon abadiori kontuak egitera. Bestiak barriz, argi ta garbi agertu zetsan ez eukala xemeikorik.

—Eztaukazula xemeikorik pe?

—Ezta lameikorik pe.

—Orduan, zertako esan zestazun primerako entiarra eitxeko?

—Jauna, ba... zeuk aipatu zenduan primera-kua-ta. Badakizu ba, gañera, ...murmurekua ez-

ta itxura,... ama be bazan da... En fiñ, beingua-
gaitik: Sursunkorda...

—Atzoko dirua zor da!

—Alperrik zabiz ba. Nun ilda jausi be estau-
kat eta.

—Orraitxiok senideren bat edo izango dozu, di-
rua aurreratuko detsuana.

—Nere senitxartian, koxketatik len be ondo
gabiz. Neri, bada ezpada, ezta gorantziarik pe ez
deste emoten.

—Baña, gizona, nolabaitx konpontzeko bidiak
eiñ biar doguz.

—A, bai. Baña, konpontze ori, uste dot, zeure
eskuetan dagola.

—Ba, zela ala zeozertxo asmau biar dogu.

—Alperrik zabiz. Nik ezin neike orrenbeste di-
ru billau ta.

—Seniderik urrena nordan esaidazu ta beraga-
na juango naiz.

—Arreba neskazar bat daukak.

—Nun?

—Madrillen monja.

—Tira, tira!; monjia ezta neskazarra. A,
Jaungoikuakin ezkondata dago.

—Ba, orduan, eskatu nere koñatuari.

XXXIX

OGEI URTE ZARRAGO

—I.

—Zer?

—Arritzen nabena dok, ik, ule zuria ta bizarra baltza eukitzia.

—Ez ari arritu. Ik ez al dakik, uliak bizarrak baño ogei urte geiago daukazena?

—...!

XL

ORI EZTOK LARRITZEKUA

Ba ei zan Plaentxian barbero ezaun bat, aitzia dodanez, gizon morrozko balientia.

Bein baten, erbesteko bat ei zan galdezka, ia erri artan barberia nun zan, eta plaentxiatar batek esan ei zetsan, ejemplutzat:

—Lurrian agiri dan odol lorratz oni jarraitu besterik ez dozu, bedorrek eruango zaitu barberia ber-bertara.

Eztakit animoso juan zan.

Barbero onek, azal zimurra euken agura zarri, matralla lautzeko, pelotatxo bat sartzen ei zetsen ao barruan. Ez zan sistima txarra.

Egun batian, aiñiketan azaldu zan Katarra lima-pikatzallia.

—I, aguro moztidak bizarra; entiarroa juañ biar juat eta.

Aren matrail azalak pe ustutako ardaubotia zirudian, ta sartu zetsan pelotia. Olan bardindu zetsatzen matralleko erretenak.

—Azkar, azkar —ziñuan Katarrak.

Alde bata moztuta, pelotia bestaldera pasatzerakuan, ara nun juañ jakon iztarriko zulora, ta okara estu batzuen ondore, pelotiori tragau eban. Ez zan auraxe una goxoa izan Katarrarentzat; ez orixe. Bere tripa barruan pelotia somau ebaniñ etzan giro arekiko umorian.

Baña, barberuak, trankiltze alde.

—Ez ari bildurtu. I, trankil. Ori ez dok ain larrigarria... orregatik ez aiz ilgo. Gañera, pelota bat gora-bera zer jetsak ba?... Agertuko ez-balitz be, ez deuat erreklamauko.

—Orixe falta genduan bakarrik. Pasau jatanaz gañera, pelotia kobratzia. Oo! Au dok estomanguko miña. Arraixua! Bide bat eik au atartzeko... Medikua, medikua!...

—Tira, ez ari ainbeste arduratu. Urtengo jok orrek, bere bidetik. Atzo bertan, beste bati be orixe bedori gertau jakuan, bedorrekin pelotiorrekin, eta gaur ekarri jestak.

XLI

AKORDATZEN...

Elgetan: ogi berua dirutan, aize otza duan.

Elgetako babia, egozkorra; ta jentia gogorra.
Txomiñ be, angua zanez, bertako urak zeroiazan.
Ala biar be, jatorrizko ezpalekua izango bazan.

—Baña, Txomiñ! Zelan jan ditxuk nik emon-
dako piku guztiak, eure anaiakin akordau barik?

—Ez ba, ama; jaten niarduala, denpora guz-
tian nere anaiakin akordatzen egon naiz, nik da-
nak jan baño len etorriko ete zan.

XLII

ALPERRIK...

Gaztandolako Paulok, Elgetara sarreran, kan-
posantuko ormia jasoaz piontzan ebizen gizon ba-
tzukin topo eñ eban.

—Artsalde on! gizonak.

—Bai zeuri be.

—Ba-diarduzue?

—Bai, badiardugu.

—Alperrik diarduzue ba.

—Alperrik?

—Bai. Alper-alperrik. Ze, eztago bildurrik ba-
rruan darenak urtetzeko, ta kanpuan darenak be
ez dauke sartzeko gogorik.

XLIII

NOK NORI?

Esate-baterako, etxerik aña tallar txiki Plaentxian. Mantxikulabe zanak pe baeban beria. Ta ez uste izan gero, beria txikixa zala pentsatzen ebanik. Ez zan iritzi orretakua. Mantxikulabe ez euan bere buruari gutxietsirik.

Bolara batian, mutil koxkor argi bat eban biargiñ, baña tallarretik kanporako biargintzekin. Mutillak, Mantxikuri biarra artu ta kanpuan bere kontura eiñdakua kintzenarako entregau.

Mutilla, ofizioz, akabatzallia zan. Eitxen ebana, bere ustez, irabaz neurri estuetan euala ta ezeuan uezabari erregalurik eitxeko.

Kinzenia kobratzerakuan, pieza bakotxeko ainbeste eta ainbeste, papelian biar zan eran zuzen ipintzen zekiana zan. Jakiña, sasoi aretan zentimuak pe euren nortasuna euken, eta kontuan urtetzen eben zentimu guztiak tajuz ipiñita eruaten zituan.

Baña, Mantxikuk bere antiajuak sur pun-puntan ipiñita ikusten zitxuanian, kontuan ainbeste zentimo sartuta zegozela, barre aizez, listokeri aundi bat eitxen eban ustian, esaten etsan:

—I, Timoteo, orrek zentimuok fuera-fuera. Kontua biribil askoz be garbixago dok.

Timoteok, alperrik esanak-esan, ez eban karre-
rarik ataratzten, beste iru edo lau aldiz be entzun
eban bere uezaba arrozkuagandik: “zentimuak
fuera-fuera”.

Baña gure akabatzalle argiak, merezi ebala
zentimuak errespetatzia, ta asmau eban nundik
partuko. Ba-ekixan ba nausian debillidadia nun
zan be-ta. Andik aurrera, kontu bakotxian, bi-iru
peseta-biko geiago sartzen zetsazen suman; zazpi
ta bi, amairu eiñaz. Baña, beti-beti zentimuak be
aldanik eta geien azalduaz.

Eta, orretara, jarraitu eben luzaro; uezaba,
barrez-barrez, zentimuak nundik lapurtuko, ta
biargiña, ixil-ixillik, peseta bikuak geiago kobra-
tzen.

Lapurrari, lapur t'erdì.

XLIV

ARRAIÑIK EZ, BAÑA PIKAU BAI

Santa Agedako erreka baztarrian euan bat, na-
sai jarrita, kañia uretaruz luzetuaz. Beste bat pa-
sau zan inguru aretatik, eta:

—Zer da; zerbait jauste ete dan ala?

—Ba.

Baña, pasadisuan zoiana, konturatu zan amua
uretatik kanpora eukala.

—Zer aparejua ligorrian daukazula be pikatzen dabe ala?

—Bai, irekin iruk.

XLV

BEREZKO BIARRA

Oindiok eztira urte asko, Eibar da Plaentxiako tallarrak biargiñak billau eziñik ibiltzen zirana. Bazan orduan galleguak karriau biarra, naiz-ta gaur euskaldunak sobra. Urte aretan, alperrentzako ez zan giro, biarrik eza aintzakotzak artu ezin baintzat.

Bazan, olako, Urdei edo deitzen zetsan etxe-kalte bat, beti biarrari nundik tati edo zirkiñ eiñgo ibiltzen zana. Ta, bein, biargin billa larri txamar ebillen uezaba batek engañau eban bere tallarrian asteko. Esaten ei zetsan: “Ez daukak biarrik eiñ biarrik be. Makiña automatiku batian ipiñiko aut, ta aixe zaindu besterik ez daukak”.

Poz-pozik zan Urdei, jaujaren bat billau zetsalakuan.

Inguru onetan, lenago be ezautu ei ziran olakuak. Jende biargiña bada be, artalde guztiak izaten ei dabe bere ardi baltza. Deba erreka naikua izardi emondakua da, ola zaarrak zirala ta geiago. Ala be, erri bakotxak, bere tajura aproposak di-

txu; bakotxak bere sikolojia moduak. Alkarren ondoko iru errik ditzuen izateko moduak ederto erakusten deskuez zarrak diñuen gertaera onek: Bein eibartar bat, elgoibartarra ta plaentxiatarra alkartu ei ziran eta euren arteko kezkek azaltzen asi ziranian, eibartarrak esan ei eban: "Nik etxuat eskatzen besterik, diru asko ta biarra aldan gutxien baño"; elgoibartarrak: "Ba, nik, biarra ta osasuna"; baña, plaentxiatarrana azkarriena: "Nik osasuna ta jateko gogorik ez". Aretxek ebagi zitxuan oin artekuak.

Urdeik be ori izango eban naiien. Jateko gogo barik osasuna izanezkero, biarrak eta gañerako obligaziñuak erabagita darez.


Izendautako egunien, juan zan Urdei, pipia jotia agindu zetsen tallar aretara. Eta, denporarik galdu barik, ipiñi eben makiña aurrian bere egin biarra ikasteko.

Uezaborrek esan zetsan:

—Ara, au gauza erreza dok. Onek makiñionek berez eitxen jok biarra. Automatikua dok. Neuk agintzen deuatena, agindutako moduan eifñ besterik ez daukak. Ikusiko dok...

—...?

—Martxan ipintzeko, ankiagaz sakatu biar detsak orri palankiorri; gero, ezkerreko eskuagaz manibela oni bueltak emon, eskumiagaz au kirten au gorutz altzatzen duan artian, ta segi orrelaxe...



YULEN.

Bestia, inuzentian moduan gelditu zan ziara arrituta, ta laster zeneratu zan. Uezaban esanetik bereratu zanian, erantzun zetsan:

—Bai, ta gero, bakarrik faltako jata, atzeko zulotik eskobia sartu ta bidebatez tallarra garbitxu.

XLVI

PAREJIA

1960-garren urtian, joko estua erabili eben pelotariak. Ez zan erreza igartzen zeñek urtengo eban txapeldun. Bizkai aldetik, Elorrixoko bada-ezpadako urak indartuta edo, uste-uste barik Azkarate agertu zan ordura arteko pelotaririk onentxue-nak benderatzen. Frontoietan ez zan besterik entzuten: “*Ori, ori!! Hilario!* diarra baño.

Azkenengo bigarren pelota partidua, Bergaran jokatu zan, Garcia-Ariño ta Azkarate. An zan Patxiko eibartarra be. Olako partidu batera ezin ba faltau. Bestela pekatu mortala izango zan Patxi-korentzat.

Jokua asterakuan, Patxiko, urreratu zan Garcia-Ariñogana, animuak emon nairik edo.

—Ia ba Jesus, euria dok eta.

—Larri biar. Ez dot izango joku erreza.

—Kazik, esango naeukek, irabaziko duala.

—Jangoikuak ondo lagunduko balesta, bai.

—Jangoikua? Zabalian ipiñi biar dok ala?

Itxuria, Patxikontzat, Jangoikua ezta toki guztietan, bestela ez zan arduratuko txokuan ala zabalian ipiñi leikian.

XLVII

OBE BIARREZ

Aintzina, Azkoitiko basarri etxe batetik etorri barri zan, gaur oindiok Basarri gaitzizenez ezautzen dogun bat.

Oin baño lenago be esan izan dogunez, Eibar-en ez zan sasoi aretan gaitzizenik bakorik, da kanpotarrerri be, etorri ala asmatzen zetsezen. Lelengo izena probisional izaten zan, Plaentxian “Fakirrarri” “Mendata” deitzen zetsen moduan, jatorrizko erria edo basarria arturik, ta gero, ezautu ala artzen eben kaleko bautizua, bakotxari zetorkion aukerakuena. Orregaitik, Plaentxiako bautizu aretan, aita-puntakuari abadiak itaundu zetsanian umiak zer izen eroian; ez arduratzeko, erantzun zetsan, plaentxiarrak, denporaz kalian ipiñiko zetsela-ta. Ta, bai ipiñi be. Uste barik kaleko fitxeretik kanpora ebillen erdeldun bat, arro asi zan esaten: “Aquí, soy el único sin mote”. Ta, plaentxiarrak: “*Sin mote* badok, etxaukak ipiñi biarrrik”. Ta andik aurrera “*Sin mote*”-kin ezautzen dabe

guztiak. Beste bati oster, okerragua pasau jakon, amenazuz esaten ziarduan: “Emen ez dagok barrabillarik neri gaitzizena ipintzeko”. Andik aurrera, illarterañok, “Barrabillaz” ezautu genduan Eibartik Plaentxiara bitartian. Baña, goiazen lengo arira, Basarriko semieri, jeneralian, “Basarri” uts-utsik deitzen jakuen —Basarri gure bertsolari ospatsuarena be ortik datorkigu—, baña ba dirudi, izenen kupua gastau zalako edo, Azkoiti aldeko basarriko seme oni ezetsen ipiñi beste geigarririk. Ta, gaur, Eibarren, ezta txakurrik pe Basarri ezautzen eztabenik.

Amasei-amazazpi urte izango zitxuan Basarrik, oindio Eibarrera etorri barri zanian. Estaziño-kalako Buenoneko ostatutik biajante bik urten ei eben illuntzi batian, gure Basarri atai aurretik pasatzerakuan, eta dei eiñ zetsen:

—I, mutiko. Mezedez, esango al deskuk “neska txikien” etxia nun dan?

—Zer?

—Ba... badakik, beste zerak...

—...?

—Bai mutil. Beste etxia...

Pasadisuan zoian nausiago batek entzun ebanian, laster jaso eban usu otsa. Ta bai igarri be arek zer nai eben.

—I, Basarri. Orrek ee... “tortolen” billa dabiak, eta eruaixak Gernikezianera.

—Aa! bai.

Lagunduko zetsela esanik, ba zeroiazan gorutz.

Baña, Basarri be ezan granuja zuzen-zuzena, ta bidian eroiazela, gogoratu jakon areri fetxurixaren bat egitia.

Bai. Buenonekotik obero.

Elgeta-kalian, Badet-eneko goian edo an inguruan bizi zan orduko parroku zan Enbil jauna, da bialdu zitxuan biajante biok bertara ; bera, zer pasauko zan begira peoran geldituta.

Atia jo ebenian, parroku jaunaren kriadiak urten zetsen. Bestiok, berbarik eitzeke, zein baño zein lenago, golpe neskiari. Baña, neskiari asi zan kurrirkaz, da parrokoa ez-eze, auzokuak pe agertu ziran zer pasatzen ete zan. Beste biajante biok barriz, konturatu ziran okerreko lekuan ebizela eta artu eben igesa, eskillarak bera, esanaz :

—Parkatu !... beste etxia zalakotzat... Orrek granujiorrek adarra jo desku ta... Parkatu !

Parroku jaunak laster antz emon zetsan zer pasau zan, da Juakiñ aguazillari parte emon zetsan.

Juakiñ, orduko aguazillen “kepia” zan, eta ez zan Eibarren sujeturik berak ezautzeka. Artu zitzuan era ortan okerrenak, —ze berak ba zekixazen mutiko bakotxan joerak, ta buruz ezautzen zitzuan nortzuk ziran sagar-lapurretan ibiltzen ziranak, nortzuk aterik-ate aldaba joten, nortzuk jentiarri ziri sartzen, ta abar, orregaitik ezan erreza bera-gandik libratzia—, asi zan pekataria nor zan galdezka ta danak uko. Baña, idizillakin banan-bana artzen asi zanian, laster agertu zan pekataria.

Kontseju zarreko eskillarapian euan kalabo-

zuan sartu eban Tarrankan aguazillak “kepiari” aginduz. Aixe bai zala kerizpia. Iñundik ez eukan zolorik ta katuen lazkotxe arratoiak ibiltzen ziran famia eukan. An egotalditxo bat eñ ondoren aze negar-zotiñak egiten zituen orduango gaztetxuak. Egundoko ederto domiñatzen zituan Juakiñ aguazillak.

Orraitxio, Basarrik ez eban eñ denpora askorik. Juakiñ aguazillak be Azkoiti eban bere sorterrri maitia ta bere zanetako odolak benderatuta edo errukitu zan Basarrigaz. Eruan eban Ispiziñora, ta:

—Ez aiz lotsatzen! Zer dala-ta eñ dok ori?

—Obe biarrez.

—Eee! Zer esan dok?

—Obe biarrez.

—Gero, ez neri adarrik jo. Bestela, txotxolokeriok neuk kenduko deudaz.

—Ba, bai. Obe biarrez. Leku txarrera nai eben jua, eta nik, onera bialdu ditxudaz.

XLVIII

EZ IZAN ITXAS-GIZONAK

Mutrikun sua euala-ta, eruan zituen Eibarko bonberuak.

Mangak jarri zitxuen muelletik, itxasoko ura artzeko. Ta, baziarduen lenbaitlen sua emetatzeko alegiñak eitxen.

Tartian, itxasoko maria berutz zoian.

Sua indartsu zan eta Mutrikuko alkatia benebenetan arduraturik ebillen suori beste etxe batzuetara pasatzeko arriskua ikusi-ta.

Urreratu zan bonbero batengana ta esan zetsan:

—Ez al dogu obe izango Bilboko bonberueri dei egitea?

—Ez gizona —ziñuan Eibarko bonberuak—, ezta orrenbesterañoko larritasunik. Laster benderatuko dogu.

Baña, orduak aurrera ta sua ez zan asko aplakutzen.

Berriz be urreratu zan alkatia lengo bonberuagana, ta:

—Kezkati naukazue, zuek benderatzeko baño su geiago ete dan.

—Baña, ez al zara konturatzen len baño aplakauago dagola?

—Bai, ori bai —ziñuan alkatiak—; baña, ala be Bilbokuak bonba obiak izango ditxuez, eta azkarrago emetauko leukielakuan nago.

—Areri be kostako jakue ainbeste ur jasotzia —erantzun zetsan bonberuak; ta itxasorutz apuntauaz—. Begiratu, lendik ona, itxasuari zelako berakadia erain detsagun.

—Itxasuari berakadia?

Baña, bera egin ebana itxas-maria zan.

IL

PETITAREN EZTENKADAK

1920-garren urte inguruan, Habanako frontoian ziran Nabarrete, Untzeta ta Ramon Gomez (Petit) eibartar pelotariak. Anakabe ondarrutarra be eurekin euan.

Anakabe, ondoezik txamar ebillelako, jokatzia gutxituta eukan eta ipintzen zetsezen partiduak galdu baño ez zitxuan egiten. Orraitxiok eldu jakon bere txandia, ta Petit lagun ebalá, zorionian irabazi eben partidua. Ta, intendentiak esan zetsan:

—*Muy bien, Anakabe, hoy has jugado como quien eres, te felicito. Has estado inspirado.*

Gero, dutxia artzen zeuazela, ixillian, Anakabek Petiti:

—Aitxik, Erramon,... zer dok “mixpillao”?

Petit okertxua izanez, garbi ikusi eban Anakabe gixajuak baekarrela aldrebeskeriren bat. Ta, gaiztuak alakuak:

—“Mixpillao” esan dok? Batedon-batek bota deuk ala?

—Bota desten edo eztesten, iri ezteuk ardura. Esaidak zer dan “mixpillao”.

—Ba,... benetan, Anakabe... Neri “mixpillao” esango balestakiek, ara... Danba!; nik, betondokua.

—Ondo dagok, Petit. Esan duana naikua juat.

Bixamonian, goizeko amaikak aldian, zuria edatera juateko usarixua euken tokian, an ziran pelotari, korredore, ta abar, lagun mordo bat. Euren artian Anakabe, arpegia kolore barik eta amorruaaz dardaraka. Petit bere aldamenian, zer ikusi biar ete eban, ezer esan barik baña bai Anakabe zaintzen, astakeriren bat eñ ezeixan. Andik pixkatera, or sartzan da intendentia, ta juan zan beragana, Anakabe. Eldu paparretik eta begietatik sua zerixola, esan ei zetsan :

—Aitxizu ia,... *“Mixpillao” será usté... Intendencia, y tu tia. Kakatsu!... Kakatsu!!*

Petit albuán izan ezpazan, danba ! be, or orrenbaten.

* * *

Petiten urterak, obeto esan da Petitarrenak, beti izan dira zelebriak. Aitxa-semiak, beti izan dira gizon argiak, batez be aita, oserbaziñoko sentidua bikañetakua eukana. Cubatik ziar ibilli ezker, ezta arritzekua, kaña baten lekuan bikaña eukitzia. Kaña leku aukeratua ei da ta.

Bein, eztakigu zer zala-ta, luzaro geixorik egon biarra izan eban. Ta berak diñuanetz, etxe aurrera azaltzen ziran txoriak pe, bakoitza bere izenez ezautzerañok eldu ei zan. Orrez gañera, oserbatzen ei eban, zortzi eztul klase eukazela.

Orregaitik, errekonozimentura juan zan batian, medikuak agindu zetsan:

—Eztula eñeik.

—Zer tonutan?

* * *

Beste bein, eibartar guztiak gogoratuko dira, Eibarrera zelan agertu zan iñoiz ezautu eztan moduko “Rolls-Royce” automobil dotore bat. Uste dot, erri guztia aua zabalik laga ebala. Kalez-kale buelta batzuk emon ondoren, Untzagako plazan gelditu zan.

Ain justu be, an euan Petit euzkia artzen. Ta berari dei egin zetsen automobillekuak, zerbait preguntau naian. Petitek berbia emon zetsen, da unatxo baten esplikaziño batzuek emon ondoren, be alderutz bialdu zituan. Ta Calbeton kaletik ezkutatu zan “Rolls-Royce” dotoria.

An inguruan muturra luzetuta ebizen autubatzalle batzuek urreratu jakozen Petiti, galdetuaz:

—Zer esan deuek?

—Biar billa dabizela ta ia nun falta diran pioiak.

Ez ori boliori iñork sinistu ebalako, baña aretariko batek, autua jakitziak baño eztenkadaren bat entzun nairik zirrikauaz:

—Da, zer esan detsek?

—Ba, Maltzako Barrabillazeneko kanterara bialdu jitxuat, antxe falta dirala biargiñak eta.

* * *

Petit bazan be, semia ezta gutxiago. Beinke: zer ikusi, a ikasi.

Neguko domeka otz baten, Kalamua inguruan kazan ibilli ta, otzak gogortu biarrian jo eben, bera ta bere lagun batek, San Roman inguruko txabola batera. Sartu ta lelengoko gauzia sua ixotu, inguruan billautako abar ta egurrekin.

San Romanguak, euren txabolatik keia urtezen ebala konturatu ziranian, erretzen ete euan estututa aintxixiketan juan ziran.

Basarritarra, estu ta larri llegau zan, arnasia bueltan eziñik. Ikusi ebanian barruan batedon batzuk euazela, pixkat trankildu zan. Baña, asarrez esan zetsen:

—Zer mutillak! Zelan bururatu jatsue txabola barruan sua eitxia?

—Ez, zera, “mantekaua” eingo genduan, dagon otzonekiñ.

* * *

Itziar aldian bazkariak merke eitxen zitxuen zaratiak, eibartar bat baño geixago eruan zitxuan alde artara kazara. Bein, euren arteko zan Petit gaztia. Bazkari merkiak artzeko okaziñuak zelan ez diran noiz nai izaten, aprobetxatze alde eiñ eban kriston “fafua”, kafe konpleto ta guzti. Bazkalonduan, guztiak alai ebizen, unamorixuan, ango kantau biarrak ez ei eukan akaburik:

*Ez det esango, bai det esango,
ez naiz ixillik egongo:
nere erriko neska gaztiak
ez dira monja sartuko.*

Jotakeia, ezekin konturatzeke. Korua eñaz kantau arren, ez ziran korurakuak:

*Aiek, oiek; aiek, oiek,
Arraguetako neskoiek...*

Baña, baña; urriñeko intxeurrak beti zarata ona ta ugaria. Pagatzeko orduan amaitu ziran aren kantuok. Orduan, Bilboko *Carlton*-a zirudixan. An ustu biar izan zitxuen boltzillo baztarrok. Iñork ez eban izan adorerik kantuan jarraitzeko. Ala be, Petiten boza entzun zan:

*...txin-txin,
txin-txin!
diruaren otsa...
Ederto ustu jaku,
gaur, soñeko boltza.*

Apal altzau ziran jarlekuetatik.

Aldetzerakuan, etxeko-andriak esan ei zetsan Petiti:

—Laureano, gorantziak aitari.

—Bai, emongo detsadaz. Len be orretxek izaten ziran merkenak eta.

L

TXANBOLIÑEN “KONPASA”

Nork ez eban ezautu Txanbolin? Txiki potolo bat, mallubizko surrakin. Auzo errikua zan, baña Eibarren ezta izango, ogetamar urtetik gorakorik, bere tanboliñian dantzarik eñ eztabenik.

Beraaz gogoratzen garanok, iñoiz mozkortuta ezautu genduan, da batzuetan zuzen.

Korriuanian jardun eban biarrian. Urte batzuetan Otuan aldamenian.

Bein, banku gañeko erremintxa artian azartzzen ebillela.

—Zer pasatzen jak, Txanboliñ? —esan zetsan Otuak.

—Konpasa galdu juat.

Da, Otuak erantzun zetsan, bere “konpasian”:

—Sarri ibiltzen aiz i “konpasa” galduta.

LI

ANGULAK PLAENTXIAN

Eibarren zabaldu dan autuak diñuanetz, Plaentxiako amorrain biberu batian angulak agertu ei dira. Ori dala-ta, plaentxiatarak Txitxi baño

arruago eí dabiz, ointxe uste-uste barik angulak jateko aukera etorri jakue!a ta. Egia izango da gañera, ze, Sesma kojuak Juanito Urzelay txistulari-xari pozaren-pozez eskuak igurtziaz, eitxen ei ze-tsean lenguan: "Au dok amama etorri jakuna, nun eta Sagar-errekako amorrain biberuan angulak, Agur, Aginaga! Plaentxiak zapaldu au".

Bai orixe. Ori ola izatera, amorrain-kumien moduan elduko dira angulak Sagar-errekako biberuan, ta gañera, urte guztian artu leikiez, udabarrixan zain egoteka. Baña, gauzak aurrera eruan baño len, euren segurantziarako, erabagi ei dabe Plaentxian, jakitunen bati bialtzia, analisisa eiñ deixan ia angulak ala bizixuak (zizariak) diran.

LII

ZIRISARTZALLIAK

Zirisartzalle bi ziran, biak plaentxiatarak. Valladolidgo Unibersidadian alkarrekin estudiau ei eben. Beti alkarri ulia artzen, ta biak alkar aitzen ziranian, inguruko guztieri. Olan pasau ei eben estudiantetzako denpora. Andik alde ebenian, bizi biarrak berakin ekartzen dituan aldakerak, munduan ziar banandu zituan, bakotxa bere aldetik.

Bene-benetan argiak eta bista onekuak ziranez, gerratian da gerra ondoren, jakin eben zelan jokatu, ta bata jeneral eiñ zan ta bestia obispo.

Urte asko ziran alkar ikusi ez zirala, ta or, gutxien uste ebenian da gutxien uste eben lekuan, nun suertau ziran. Donostiako Norteko estaziñuan trenan zain zeuazen biak; ta obispua konturatu zan bere lagun zarrakin, an euala andenian bere jeneral uniforme dotoriakin.

A zan bere okaziñua. Urreratu zan eta preguntau zetsan :

—Duda barik zu izango zaitugu estaziñoko jefea jauna. Ta, jakin nai neuke ia Madrillerako trenan seirak puntuan dan.

Militarrak obispuari, bape ikaratzeka :

—Seirak puntuan; bai andra.

LIII

ABERATS BARRIA

Estudixuetako lagun bi ziran. Bata oso argixa, beti lelen ataratzen ebana, ta bestia barriz, tontuenetarikua. Ala ta guzti be lagun aundixak ziran. Beti alkarri laguntzekuak.

Urtetxuak zeroiezen alkar ikusteka, kolejixotik urten ebenetik. Ta, lengunian alkartu ziran, aspaldiko aldiz, Bilboko kale baten. Alkarri zekulako buenajeria eñ ondoren, asi ziran bata-bestiari euren barrixak kontatzen.

Eskolan beti aurrenengo ibiltzen zana eskas-txuago ebillen ta bestia barriz dotore. Aberats barrixa genduan.

—Ondo bizi al aiz? —preguntau zetsan aberats barrixak.

—Baj, ala-ola. Defenditzen nok. Biarrik ez jatak falta. Ta eu?

—Ik beste eskola euki ezarren dirurik ez jatak falta.

Listo pobriak:

—Ni, Bankuan enpleauta nagok, konsideraziño onez. Goizeko bederatziretatik ordubatak arte eitxen juat. Gero, orrezgañera, arratsaldian tallar bateko kontabilidadia eruaten juat, eta gabian beste denda birena. Badakik pa, Bankuak etxok gexegirik pagatzen da... seme-alaberi eskolia emoteko be diru asko biar jok eta... Baña, eskerrak Jan-goikuari, osasuna jaukat. Eu, beintzat, itxura oneko ikusten aut.

Tonto aberatsak:

—Bai, ni, bizi, ondo bizi nok. Ezin naeikek ke-jau. Osasunik etxatak falta. Iru automobillen jabe nok. Badakik ba, jai egunetan be asteguneko koxiakin urtetzia eztok itxura, ta... gero, familixia erabiltzeko be beste bat biar, ta... Badakik ba,...

—Kontxo! Negozio onen batzuk darabixaz.

—Ba. Saldu-erosixan ibiltzen nok. Txatarrak, makiña zarrak eta barrixak, autuak eta barku banakaren bat edo beste, ta abar. Merkataritzan beti billatzen dok zeozer. Ez gauza aundirik dakidala-

ko, baña ikasi neban eskola apurrakin majo konpontzen nok, euneko bi (2%) kargatzen ikasi najuan, eta eunian erosten dodana berreunian saltzen juat. EUNETIK biko orrekin, ikusi eikian lez, irabazi desente txamarra gelditzen jatak. Baña... nik ik beste eskola banaekik...

LIV

OLLARRA OLLAR

Peru ta Marixa osteko bentanatik ollatokira begira euazela.

Ollarra an ebillen, ollo artian, bere zeregiñak eitxen. Lantzian ollo bat erebixan. Ta, Peruk zeroian kontua :

—Bat emon, bi emon, iru emon...

Marixak Peruri :

—Ori bai, ori-ori; ta ez i...

—Bai, baña beti diferentiekín.

LV

BURU AUSTE GOGORRA

Ardau trago bat eññ nai, ta ezín. Au zan dirurik ez eukan plaentxiatar baten burubidia. Ez eukan ezta nork tragotxo bat pagau be. Dirurik eza

ta lagunik eza alkarren kideko izaten ei dira. Ifarrak berorik ez, pobriak lagunik ez. Mundu onek badau malizia tamaña. Baña, problema astunak pe erabagitzen diranez, gure plaentxiatarak pe erabagi biar ta ara nola urten eban ikaragarrizko estuasun orretatik.

Urreratu zan Ezekieleneko taberna ondora, ta ala biarrez, ara nun ikusten dabən etxe-kantoitxik, ibai ertzian peskari bat euala. Urreratu zan, ta esan zetsan :

—I, mezede galanta eiño euke ba, daukanik eskallu edo naiz loñazta txikiña emongo baeusta.

—Zenbat?

—Bat bakarra naikua, ta aldanik txikiña gñera.

—Ori beste ez bok, artu pote ortatik.

Artu dau eskallu txatxar bat, gorde kurioso pañueluan ta sartu da tabernara. Beriala, baso aundi bat ardaurrekaldian eukala zoriontsu zan. Edan ta edan, ondarra ziara agortu baño len bota dau eskalluori basora. Ta jakiña, txutxuputxuka, ixilka, zerbidu dabən neskiari esan detsa :

—Ikusten don, emen zer dagon? Beñipein ardauari ura eitxekotan, eixozue itxurrikua ta ez ibaikua. Zer uste dozue ba? Gizonak edozer zikin-keri eran leikiala ala? Sokrates be olaxen il zonan.

Neskia ziara lotsatuta, ta an gertatzen zana iñork jakin nai ezik, ixillekuetan esaten detsa berrira :

—Sekula-santan, iñork ez deixala jakin, ixilik mesedez, ta sustua pasatzeko eraik beste aundi bat. Kontua alde batera dala, ezpanak garbitxu ta kitxo.

Dabillena tripa aundi, eztabillena buru aundi.

LVI

ERDI TONTUA

Bustingorri erdi-tontua aspaldiko aldiz azaldu zan konfesionarixora ta abadiak, ikusi orduko, pozarren eñ zetsan iñolako buenajeria. Baña, berekautan esanaz: “Erdi-tontuak pe iñoiz ba-jitxuek animaren kezka. Zer demoniokerik ete jarkak intzentsu edo kedatz usañera”.

—Zer daukak, Bustingorri? Kaletarrekin naastau intzantian gu gandik alden du intzalakuan, baña ez orraitxiokarren; ba-ator lengo bidera.

—Ba..., ba-kizu ba,... erdi-tontua be banaiz da... lantzian-bein okerreko bidiak ekartzen nau...

—Zelan? Okerreko bidia dok au ala?

—Ez, au ez; bestia. Ni ona ekartzen nabena.

—I, ona ekartzen abena? Zelan dok ori?

—Pekatuak.

—A! Ori beste gauza bat dok.

—Ba-kizu ba, ni erdi-tontua be banaiz da...

—Bai, bai. Da, zer.

—Ortik datoz nere okerreko bidiak. Lantzian-bein, gau illuna be izaten da... ta, ba-kizu ba, ni erdi-tontua be banaiz ta...

—Bueno, bueno, ta zer?

—Ba, iñoiz, gau illuna danian, auzoko eskortatik etxekora ardiren bat edo beste pasau izan ditxudaz, erdi konturatzeka. Ba-kizu ba, erdi-tontua be banaiz da...

—Bai, bai. Izan be, erdi-tontua aiz i ta.

—Bai ba...

—Da, erdi-tontua izanik, noizian-bein, etxak bururatzen zeuen esparrutik ardiren bat auzokora pasatzia?

—Ez jauna, ez; olakorik ez Jaungoikuan ize-nian. Ori eiño baneu, akabo ba, orduan tonto-osua nintzake.

LVII

FAKULTADIAK

—Ni beti izan nok ibiltari ona. Bein batian irurogei kilometro dzanga-dzanga ibilli nintzuan, bape ardura barik, neregaitik gaizki esanka ebillen bati zaplateko batzuk emotera juateko.

—Da, buelta be oiñaz eiñ zuan?

—Ez; kamillan.

LVIII

MASKUELO TA BELAK

Aurretiko *Zirikadak* liburua agertuta gero, Matxari aiskidiak emon zestan gertaera barregarri onen albistea.

Matxarik diñuanez, bera Barcelonan bizi izan zan bolara aretan, an ei zeuan Maskuelo erriko-se-mia be Fronton Palace-ko ate-zain.

Barcelonan, frontoietako bezeruak ez ei eben nai izaten sarrerria ordaintzerik. Nere iritziz, emen be ez; baña, bakarrik, beste biderik ez dagola barrura sartzeko. Barcelonakuak ziñuenez, frontoia be-ra naikua zala dirua galtzeko tokirik; ta dirua galtzeko, aurrez pagau biarra ez ei zan euren bu-ruetan sartzen. Galdu eiñ biar, da galtzekotan be sarrerria ordaindu biar? Ez orixe.

Eta, orretxegaitik, geienetan frontoia duakue-kin betetzen zan. Da, gero, kontuak eitxerakuan diru gutxi azaltzen zalako, bai enpresiak eta bai federaziñuak neurri gogorrak artu zitxuen. Da, lantzian-bein, ispetoriak ipintzen zitxuen, iñori duan sartzen ez lagatzeko.

Orduan izaten ei ziran Maskuelon asarriak, larritasunak, biarrak eta izardiak. Egunero duan juaten ziraneri sarrera ukatu biar. Latza zan beretako. Ondo ekian zeñek diru asko jokatzen eban, da zeñek ez; baña goitik etortzen jakon agindua be-

te biar: dan-danak ortaindu biar ebela. Maskuelo orrek estutzen eban. Zelan ukatu millakak pesetak jokatuko zitxueneri? Orko sei edo zortzi peseta mokordo gaitik, zeñek ukatu? Eta, gañera, nor-bait juaten bazan jerenziara esanaz, alako edo olako aundikiren bati ez zetsala sartzen laga? Jakiña, agindua-agindu; baña berak ondo zekian, alako bezeroren bat kalia laga-ta, asarria etorrela.

Ala edo ola, Maskuelo aurrera zoian, eztabaida aundi barik. Sarrera ziara itxita egon biar zan batian, eldu ziran emakume bi, beti bezela duan sartzeko asmuetan. Maskuelok parka eskatuaz, baña egun aretan ezin zeikiala duan sartu.

—Nola ez? Zeintzuek eta gu sartu ez?

Maskuelok, ezetz. Eukazen aginduak sits da mits kunplidu biar zitxuala.

Bada-ezpadako neska biak, baietz.

Lelengo tandia Maskuelok irabazi eban; neskek ez ziran sartu. Baña jua ziran jerenziara zer jasotzen jakuen esatera, eta gure eibartar ate-zain jatorrak artu eban agindua: sartzen lagatzeko.

Neskek etorri ziran eta Maskuelon aurrekalde-tik pasatzerakuan, esan ei zetsen:

—*Qué soso!*...

Maskuelok, begirakuna bat bota zetsen goitik bera, ta esan eban:

—Zozo iñori! Biriarruok!...

Baña, Maskuelo ez zan pozik geratu, usterik olako txaplata birentzako "biriarro", "zozo"-ren

ordez esatia, gutxitxo zala. "Beste usu-tortolak ez ete ditxuk gañera".

Pasau ziran ordu bi inguru ta amaitxu zan jokua. Jentia asi zan kalera urtetzen. Tartian lengo neska puxiga biak, beste batekin; eta zelan dirua galdu eben, Maskuelok entzun ei zetsan irugarrenari:

—*Estamos a dos velas...*

Ta, bai etorri be gure Maskuelori burura:

—Belas? Belas diñozue? Orixen zarie bai zuek, ez zozo ta ez biriarro, belak.

Eta gaur arte, Maskuelo beriagaz atara zan: belen iritxiakin.

LIX

ZARTZAROKO AIZIAK

Umia, aitxixakin, Elgoibarko illan azkeneko feriara juan zan batian, puxiga batekin etorri zan. Ta, gabian, ez euan umiori puxiga barik oeratzetik.

Oian luak artu ebanian, puxigiak eskutik iges eiñ zetsan da oraiñel gañian gelditu zan.

Gaberdian, amandria larritu zanian, oetik jai-ki zan zeregiñak eitxera; ta ontzian jartzerakuan, puxigia, zapaltziaz bat errebentau zan, "Pflaut!". Ta, amandriak:

—Iño ! Au zuan izatekua. Irurogeta amaika urte jaukadaz da, nere bizitzan, egundo ez juat bota olako putsik.

LX

“ARDURABAKUEN” JIRA, ARIOPLANUAN

Euskerakin batian, badarotiaz Eibarrek amaika jatortasun. Eibar aundiagua, ezta obiagua. Obiaguakin konforme giñake, ta ez aundiaguakin. Baña, Eibarrek, aspaldiko urtetan ez dau izan obekuntzarik. Iritzi au usten jata aintziñako denporekin gogoratuaz.

Beste oitxura askoren tartian, aratoste edo karnabaletan kalez-kalezko karrosak izaten ziran, bertso berriak kantauaz. Batzen eben diruakin bazkari on bat eitxen eben kantari kuadrillakuak ta sobrantiak ospitxalari edo erriko pobrieri. Orregaitik zituan oitura orrek bere alde onak.

Ezautu genduzenetan onenetakua izango zan “Ardurabakuen” kuadrilliak eiñ eban karrosia. 1930-ian zan. Kañaberazko armazoi bati, teliakin, emon zetsen arioplanu itxuria, bizikleta erroberak ipiñi. Atzekaldian, buztan azpikaldian gurpil bata ta aurrekaldian bi. Aurrekaldeko errobera bixak pedalekin erabiltzeko, ta arioplanu barruan jarri-

leku bat eta manibela. Ez dakigu, "Ardurabakuak" orretan gastau zitxuen diru guztiak, baña eskatze-ko orduan ondo ekixen gastua aitxatzen. Tela zurizko arioplanua, zutiñik jus-justuan egon zeikian, baña "Ardurabakuen" umorezko ameseta aretan, mundua gutxi zan euren egaztadarako.

Kuadrillan izentau zitxuen bakotxa bere karguetan: Anjel Markano piloto, Benito Rejil oserbadore, Agustin Etxeberria mekaniku ta Serafin Esnaola sukaldari. Biar be bai ainbeste kargu, eukezen ideak aurrera eruateko.

Arioplanua eiñ, karguak errepartidu ta ez euken besterik biderako dirua batzia baño. Orregaitik, ta bide batez Eibar agurtzeko, Itxason laguntzarekin batzen ziran Isasi-kaleko eskillara batzuetan, kalezkale kantatzeko, bertso berriak asma-tzen.

Ara, euren umoria bertsuetan, bertan aitxatzen dan Esnaolak kontautako modu-moduan:

*Kanta berri batzuek
dituguz atara,
aitzen emoten gatoz
erri onetara;
Arioplanuan juateko
asmuetan gara,
biar urtetzen degu
Ameriketara.*

*Guk ez degu izango,
gauza oberikan,
biar ondo armozau
goizian-goizetikan;
ez degu eramango
barrutik otzikan,
bildur gabe juateko
lañu gañetikan.*

*Amairu lagun gera,
guztiok argiak,
ez gaitu bildurtuko
otzak eta euriak.
Bizirikan etortzen
bagera erdiak,
kontatuko dituguz,
guk, ango berriak.*

*Biar urtetzen degu
guziok aidian,
ikusiko gaituzu
agurka bidian;
ondo urtetzen besku,
daukagun idian,
ez gera etorriko
beste urte bian.*



*Anjel Markano jauna
 degu pilotua,
 gazte-gaztetatikan
 estudiatua;
 arek artzen duanian
 martxa diretua
 laster izango gera
 Amerikatua.*

*Benito Rejil jauna,
 gizona justua,
 oserbaziorako
 dago nonbratua,
 Austin Etxeberria
 mekanikakua,
 Serafin Esnaola
 kozinarakua.*

*Nueva York-era guaz
 lelengo runbuan,
 andik Brasil-eraño
 berriz urrenguan;
 gero, Polo Nortera,
 irugarrenguan.
 Bazterra billaukogu,
 badago munduan.*

*Polo Norten ei daude
ain paraje baltzak,
arako egin dituguz
apraposko galtzak;
eskuetan arturik
galzairuzko lantzak:
galdu ez gaitzen an
otzak edo artzak*

*Izotzez eiñda ei dago
ango mendi dana,
ara gora igotzen
izangou lana;
edukitzen badegu
edana ta jana,
esperantza badegu
llegauko gerana.*

*Igotzen badegu ango
mendi tontorrera,
begiraturkou andik
zer daon bestaldera;
biderikan ikusten
badegu aurrera,
laster llegauko gera
mundu baztarrera.*

*Aparatugiñan eñ degu
urte bian lana,
ortan gastatu degu
geure diru dana.
Oin berriz biderako
biar degu jana,
orreatik eskatzen degu
errialtxo bana.*

*Orra, berri-berriak,
guk, amabi bertso,
esanaz nola diran
gure paradiso.
Jainkoari eskatzen diogu
osasuna oso,
berriz ona etortzeko
danok animoso.*

LXI

XAPUA, XAPUA !

Gaitzizenen moduan, galduaz doiaz auzoko alkarrentzako eukezen izen ordiak eta esaerak, baina zarren artian oindiok pe erne azaltzen diraz olako griñak.

Eibartarreri, gaur farolak deitzen betse be, lenago xapua deitzen ei zetsen, batez be plaentxia-

tarrak. Eta plaentxiatar zelebrieri, gaur be oin-diok, autxerritarrak; Plaentxia, "ausa ta lokasia" (autsa ta lokatsia, eurak diñuen moduan) ei da ta. Ermutarrak, Bizkaiko txaputxeruak. Eta, Elgoibartarrak santu-saltzailliak.

Diñuenez, gaur Eibarko patroia dan San Andres, elgoibartarrak emon ei eben txarri baten trukez, ta orregaitik ei dauke oin Elgoibarko San Bartolome eleizako ateburuan txarria, San Andres-en orde.

Diñuezenak egiak izatera, elgoibartarrak apenaz daukenik santuentzako maitasunik. Batetik, San Andres emon txarri trukez, ta bestetik, diñuenez, erriko jaietan esaten ei dabe: "Egualdi ona biou. Bestela santua erre kara". Ta, no'la elgoibartarrak berbako gizonak diran, orregaitik eitxen ei dau San Bartolomietan egualdi ona. Ta, ez bergaarrren moduan: "Komeni bada". Ez, elgoibartarrak, beti; "Biou": Ez dakigu ba, santuorrek urari bildurra detsan ala igarian eztakian. Beintzat, erre kako ur-zikiñetan bustitzerik nai eztabelako edo, beti emoten detse egualdi ona.

Baña, ala ta guzti be, elgoibartarrak beti azaldu dira gizon fiñak. Euren aurrian, eibartarrak eta plaentxiatarrak, beti agertu dira arlote txamarrak. Guk, elgoibartarren iritziz: "dagonian bonbon; eztagonian, egon" eitxen ei dogu.

Onek dira zarren artian aoz-ao dabizen istoriak.

Eztakit zer zalata, plaentxiatar bat, tiki-miki batetik asi ta berbatu ei zan, eibartar batekin. Desafixau ei ziran Maltzan, burrukarako. Aurraz izendautako moduan, onen egunetan ta onen ordutan, an alkartu ei ziran, bien lagunak testigutzat ziralarik. Ez ba eibartarrak eta plaentxiatarrak betiko aiskide onak ez ziralako, baña, orduan beintzat, alkar minduta, eztenkadetarako diplomasiak bazartuaz, euren arteko ostilidadiak apurtu zituen ikubilka errazoiak itzuli nairik.

Eibartarra xapua bazan be, a beintzat, plaentxiatarra baño mutil morrozkuaua zan, da emon-emon eiñ da golpez maspilduta laga ei eban, azpian artua ta obeitzen ebalá esan arte.

Plaentxiatarrori bere lagunak eruan ei eben errekondora ta urakin arpegia garbitzen ziran artian senera etortzen ei zoian a gizajua. Lagun batek esan ei zetsan:

—Ederrak emon dostaz, kotxauori.

—Bai, baña berak pe entzun jostaz entzutekuak.

—Zer esan dotxak pa?

—Xapua, xapua! esan jotxat.

—Enee! Ik daukak baloria. Orixe esatiarren bakarrik bertan bera garbitu ez abenian.

—Ez, baña ixilian esan jotxat.

LXII

JATORRIZKO GUSTU TXARRA

Eibarren andragai zatarra billau ebala ta, ama batek, naturala dan muduan, ta esaerak diñuan lez: agiñian min daukanak, miña ara. Esan ei zetsan bere semiari:

—Anton, aze neska gangarra ta itxura bakua billau dozuna nobixatzat.

—Zer eiñ neike ba, nere gustokua bada?

—Ba, ori da gusto txarra daukazuna.

—Nere aitak bezelakua.

Auntzan umia, antzume.

LXIII

KORTASO-REN BALORAZIO NEURRIAK

Elgoibarko San Pedro ballian sortu ziran Kortaso-tarren jatorriak. Eibar aunditziari emon zetsanian, ainbeste ta ainbeste etxe bere erara eiñ zitxuana, aparejadoria zan, basokua izan ezik, beste iñungo eskolarik ez eukana, berak asmautako teknikakin gauzak aurrera eruan zitxuana. A zan gizona. Metrika sistemak beriak zituan arek. Gañerakuak ipuñak ziran.

Bere neurriak ez eben iñoiz fallatzen. Simentuak artzeko mendiari jan biar jakonian, aitzari iru kartutxo dinamita sartu ta bik bakarrik tirua eiñ. Dudia ba-euan irugarrena emetau zan ala ez, laster esango eban pioien artian; "Ixotuta dauan ala ez, ikustera juateko, zuen artian ez al dagok balixo ez dabenik?"

Jornalak ipintzeko, pioien kategorixia probau nai ebanian, jaten ikusi arte itxaitzen eban; ba, ortan igartzen zetsan bakotxaren almeneri: eguerdian, tomate gordin batekin konformatzen zan erdelduna, kipulia ta sardiña-zarrakin konformatzen zan gallegua, edo zelemín bat baba biar eban basarritarra. Kortasontzat, euren artian ezin zeikian egon albidabe igualik. Naiago eban, jan da lan.

Baña, bere ustez, naikua baba jateko aña pagatzen ez zetsan euskaldun batek, bere erara artzen zetsazen artiak. Bestela ez eukan gosia asezterik. Baña, Kortasok ikusi ebanian, aldamiño gañian, barian pare mobitzen; diar bat eiñ zetsan:

— I! Otxandixo! Zer pausu dok ori?

Beste, uste bako ekonomistak, erantzun zetsan:

— Au, amalau errialekua!

Ta, beste bein, errazoi bardiñegaitik, biarra lagata patxaran, takorri boltzia atarata, trankil ziarrogintzan asten zanian, eiñ dako ziarruak eskinka asi biar izan zan; denporia galdu ezeixan.

LXIV

KUADRU BAT GEIAGO

Komedixak amaitu ziranian, baztarretan al-denduta ebizen gizon guztiok asi ziran banan-bana etxeratzen. Mariño pelotaria be azaldu zan, alako-ren batian, Eibarrera, burua lengo samatik eبالا.

Kalera urten da lelengo agerpena "Astelena" frontoira izan zan. Sartu zanian, berakin zoianak esan ei zetsan :

—Au, lengo modu-moduan dagok.

—Ez —erantzun zetsan Mariñok—; kuadru bat geiago dagok.

—Ez, gizona. Zelan egongo dok ba len baño kuadru bat geiago? Len be amaika zituan eta oin be amaika dagozak, Mariño.

—Len bai amaika, baña oin amabi. Ez dok ikusten ala, bat geiago dagona?

—I, bistatik endredauta etorri aiz. Nik amaika ikusten jitzuat.

—Emen beian bai amaika, baña arekin goikua-kin?

Egia zan gañera. An, goikaldian, beste kuadru bat euan. A, zan kuadrua; ezin esan dakua.

LXV

BETI EDATEN

Asmurik onenagaz amaika gauza txar egin izan da mundu onetan. Ta, euskaltzale “garbizale” izeneko askok be orrenbeste eiñ ete dabien nago: garbitu biarrian, zikindu; erreztu biarrian, gaiztu.

Olako gauzatxuekin asi ta, amaika denpora ta indar galdu izan dogu euskaldunok. On-billa on-billa, bonbilla; gure artean jatortasun illa.

Izen barriak asmatzeko moda txotxoluak pe bere epokia izan eban, ta moda orrek indarrrik geien eukan denporan, ara zer gertau zan Eibarren:

Marzelo Arrizabalagak urtetxuak eiñ zituan Sevilla aldian armeria bategaz. Ta, denporadatxo bat pasatzera etorri zan Eibarrera. Sorterriakin ezin ba aztu.

Lagun zarrak artu eben eureaz, eguerdiko txikiteo garratzian, *klink* batian eta *klink* bestian.

Martzelo, Sevillatikan, entrenamentu faltan etorri zan. Txikiteo oitura “gordegarri” ori galduta ei eukan, ta laster asi zan, neurritik pasatzen zoiala konturatzen eta naikua eritziz, bapo eiñ eban.

Lagun artian bazan epokako “euskaltzale” bat be, ta Mari-ospitxaleneko atai aurrera eldu ziranian, esan ei eban:

—Guazen “izparringia” artzera.

Ta, Martzelok, protestaka:

—Tira mutillak, naikua dok. Beti edaten!
 Martzelok, “izparringiari” edari antza billau
 zetsan nunbaitx.

LXVI

AIZARNAREN PRONOSTIKUA

Aizarna bersolaria, izenak diñuan bezela, Aizarnan jaiua zan, baña Eibarko Tutulu basarrira ezkondu zana. Bere denporan astronomu (1) famia eroian. Baña ez zan izarrerri begiraka bakarrik bizi zana. Baeukan munduko etorpenentzako pronostikua be. Ainbeste txikiteorako jokerarekin zer ikusiko ete genduan arduratzen zan.

Gure denporan, izan be, ori dala dirudi euskaldunen *folkloria*, nork geiago edan eta nor gutxiago asetu.

Baña, esaera zarrak diñuan bezela: arda u gozua u lau begi ta oñik ez.

Tutuluko Aizarnan pronostikuak ondo igarri zetsan gaurko euskaldunen burubide biurri oni, bere intelijentzia luzetuz, tabernariak bildurtuz eta euskaldunak astinduz, sagardautegiak eskola bazituan be, bedratzi puntuko ederra bete eban:

(1) “Astronomua”, ez dakigu zer errazoi gaitik, baña egualdiari igartzen detsanari deitu izan detse gure zarrak; metereologuari. Seguru asko, aintziña, ofizio biak beteko zituan astronomuak, ta ortik etorriko da.

*Edan neurri gabeak
zer digu ekartzen?
Asko konturatzeke
zentzua azkatzen,
amaika burukomin
itzak naastutzen,
gizon zuzenenari
bizkarra okertzen;
jarduna ugaritzen,
bistia lausotzen,
oñak trabatutzen,
lotsaria galtzen...
Giza-lege guziak
erruz ukatzen.*

LXVII

AMAMA! (1)

Erbesteko bat azaldu zan Eibarrera, Arratie-
tan, plaentxiarren bat lagun ebalá. Arrate-runtz
zoian jentetzia ikusirik, arrituta gelditu ei zan. Izan
be, esanagaz bakarrik, kanpotarrak ezingo leukie
sinistu eibartarrak Arrateko Amarentzat dauken
deboziñua. Arrate-egunian, Eibarren ezta gorri-
rik. Erri guztia os-osorik biurtzen da Ama-Birjiñia da-
gon mendi tontorrera.

(1) Amama!, sarri, erderazko jauja bezela erabiltzen da Ei-
barren eta Plaentxian. Gañerakuan, izatez, amama edo aman-
dria, amona da.

A, ikaragarrizko jentetzia ikusita, erbestearrari burua berotu jakon Arrate ezautzeko. Baña, plaentxiatarrak esan zetsanez, egun berian jente larregi ibiltzen zala, ta Arrate ondo ezautzia nai ba-eban, obe ebalá bixamunian juatia.

Bixamunian, an ziran gure gizonok Arraten. Plaentxiatarra lagun, ez eroian erakusle txarra.

Bata erakutsi, bestia erakutsi, eldu ziran Ama-Birjiñian aurrekaldera, ta bere azpian, baztartxo batian, diru-zorro bat euan, aurreko egunian batu-tako txanponeaz.

Plaentxiatarrak :

—Auxen dozu Arrateko Ama.

—Ta, or azpikaldian dagon zorrúa zer da ?

—Ori ezta Ama. Ori da, amama !

LXVIII

SOÑIAN ZEROIAN...

Egun tristia, udazkeneko arratsalde otza Plaentxian.

Txergorineko terrenuetan, bizitza askoko etxe aundi bat eitxen ziarduan kontratista batek. Lau-garren pisuko aldamiñuan biarrian zebizen igeltsero batzuek, aurrekaldeko fatxadan. Igeltsero bat, Polin, ezkondua ta ume askoren aita zana.

Kontratista orrek, amasei urteko mutil koxkor bat eukan errekadista. Guztiz estimatua, bai kontratistiak eta baita ostantzeko biargiñak be. Ziarioko argia zalako ta "xelebre" baten semia izanik gañera, aitaren ezpal ber-bera eukalako.

Polin gizajua, laugarrengo pisuan biarrian ebillela, aldamiñotik bera jausi zan, eta danen errukirako, bertan-bera golpian, siku, il da geratu zan. Kontratistiak, begiak markoz beteta esan eban:

—Au dok au arriabarra etorri jakuna. Zein da Polin, ainbeste umeren aita ta langille zintzua izan be. Sinistiak pe, ta il dala... Eta, zeñek emon oin alargunari barri tristia? Zeñek?

Errekadistiak:

—Jauna, neuk beteko neuke esan biar triste ori. Zuek danok baño anka azkarrauak daukadaz eta beriala nintzake alargunaren etxian naigabian barri emoten, bedorrek ala nai badau.

—Ez dok anka bixkorrak euki edo ez, goraberia. Burua biar jok azkarra, aldanik eta kuriosuen, dana batera esateko. Egia esan, i burutik be gu danok aña ba aiz. Baña, ez ez; gaztetxua aiz. Naiz da nik irekin konfiantza osua euki.

—Lagaidazu; pentsauta daukat zelan esan Polineziari bi zatitxan, bere alarguntzaren barria. Ikusiko dozue gero.

—Enpeñatzen aizen ezkerro, ta danon konfiantzia daukanez... juari ba. Baña, kontuz be kontuz gero alargunaren aurrian. Bat-batera soltatzeka, kurioso esan gero. Disimuluan.

Ori entzun orduko, alargunaren etxian zan, mutiko argixa. Eskillaretan gora, arnasa estuan eldu da zalapartada baten. Atia jo dau ta aurrez-aurre Karmen Polinezia; uste bako alarguna.

—Zer dok emen, ainbeste anka ots eta arnasa estukin? Jakin leikek?

—Badakizu ba, Txergorineko terrenuetan etxegintzan gabizela. Zure gizona be an zan eta...

—An zan? An dabilela esan naikok?

—Erregular. Puntuan an euan baintzat.

—Ori bakarrik esatera ez aiz ba, i, etorri. Ez tok?

—Ez ba. Badakizu ba, ni errekadistia naiz eta erreka batekin etorri naiz.

—Erreka guztietara orrelako azkaputs eta arnasa estuz eltzen baaiz, aguro eiño jok iriak.

—Aguro edo geruago, danok eiñ biarrekua da ori, Karmen. Datorrenian datorrena artu biar.


—Sasiletrau bat dirudik. Banaekian azkarra intzana, baña nora oia korapillo orrekin? Jakin leikek?

—Ez dostazu berbetan be lagatzen da...

—Tira, patxaratu adi, ta bota, botatzekuok.

—Esan nai dotsuk, ni etorri aurretuan, zure gizona, Polin, laugarren pisuan ebillela lanian da...

—Miñen bat etxuan ba artuko. Badakik, ire erdi berbekin estutzen asi naizena? Ia noiz akabatzen duan ipuin orrekin.



YULEN.

—Ipuña? Ipuña balitz utsa litzake. Gaur arratsaldian otz be baeuan da...

—Da, da!; da zer!

—Ba; da...

—Berrido be! Menga, eure, da,... orrekin. Esan dok, nere gizona aldamiñuan ebillela. Ta gero zer pasau dok?

—Ba, Karmen, otz be baeuan da...

—Berrido be! Kokolo ori. Len be esan dok. Esaidak zer pasau dan, ta aguro gañera.

—Esango detsuk pa, Karmen, egi-egixa gañera. Laugarrenian biarrrian dabilela, txamarria, jausi jako zure gizonari.

—Eta ori dok, izateko dana? Jangoiko maitxia. Zeozer grabia uste najuan, ala be. Or etorri aiz muturrak apurtu biarrrian, arnasarik artu ezin da. Gero, emen, batian: “aguro edo geruago danak eñ biarrekua dala-ta”; urrengo: “ipuña ez dala”; “arratsalde otza be baeuala-ta”. Kaskotik ondo ete agon be pentsatzen egon nok. Eta, total, azkenian esateko laugarren bizitzatik gizonari txamarria jausi jakola. Ori beste ezpok. Ba..., ba...; kosta jak esatia...

—Bai, baña...

—Zer baña. Txamarria jausi jakola ta ilgo dala otzak?

—Ez. Otsak.

—Zer?

—Bai ba, otsak, Karmen, txamarria soñian jantzita zeroian da.

LXIX

AIDIA

Kotxetxo bateaz ume-zain zoian andrakume batek tope eñ dau bere aintziñako lagun bategaz, da, alkarri berbia emonaz, mantetako umiari begiratuaz:

—Enee! Auxen bai dala eure gizona igual-iguala. Bere erretratua jirudiñ.

—Ez don guria. Auzoko Mikelana don.

—...?

LXX

KONSEJUTXO BAT

Maltza ingurukoa zan. Ez dakigu Eibarko aiziak ala Plaentxiakuak ikututa, baña gizajua, ganbaratik eñ-da ebillen. Berriz, aiziana barik, urana bada, Plaentxiakua izango da. Eibartarrak pe edaten dabe ta.

Dana dala. Eruan eben Donostiako Martin-Santos mediku zana gana, errekonozimentu zeatz bat eitxeko asmuhan.

Buruan aparatu bat ipiñi zetsanian, medikuari esan ei zetsan:

—Ondo dago neri olakuak eitxia; baña, ara, zeure on biarrez esango detsut: aparatu orrekin Eibarrera juaten bazara, seguru-seguru aberastuko zara.

LXXI

EZEZKORRAK

Bi lagun, gaur esaten dan bezela, pesimistak ziran. Schopenhauer-en teorien ikutua edo ei zeroien. Añ ezezkorrak ziran gizajo arek eze, munduko gauza guztiak baltz ikusten zitxuen. Izan be, gure egoera au ikusita, ezta gutxiagorako.

Alde batetik, Merkatu-komuna zala ta ez-zala; bestetik barriz, diru Bankuak kredituak kendu zitzuela, biarra urritzen asi zan. Ori dala ta, gure ezezkorrak alkar bildurtu besterik ez eben eitzen.

—Zer ikusteko ete gaitxuk?...

—Zer? Ez lan da ez jan.

—Orduan, ez Merkatu-komunera ta ez komunera.

—Gure tallarran be —batak bestiari— asi dok biarra urritzen. Oingo martxan etxakixat zertan gelditxuko garan; ola jarraitu biar bajuagu, laster k... k..., jan biarko juagu.

Eta, beste pesimistiak:

—Egongo ete dok danontzako lain?

LXXII

BERTSO BERRIAK, AUTOMOBIL ZARRARI

Ointxura artian, Eibarko mataderuan erabilli da *Fort* zar bat. Asmia ez-ezik, kalamidade guztiak berakin zitxuala esan zeikian. Ermere bakarrik

zan gauza a martxan ipintzeko. Ermere gaixotzen zan egunian, karruren batekin, al zan moduan, errepartidu biar izaten eben okelia.

Bertsuak atara ziran berari erretiru eske, ta itxuria alkatiak ondo artu zitxuan, zergaitik-eze, andikan lasterrea ekarri zan auto barria. Orrela, auto barriakin ixildu ziran auto zarra zala-ta errian ebizen autuak.

Denpora gutxira, Ermere il zan. Bazidurixan kamioi zarraren miñak biotzian ikutu ebala.

Ara, bertso umoretzuak, "Armendi" izenakin agertuak; baña uste da, dirala, Joxe Izetak zuzenduak.

*Bertso berri batzuek
jartzera naiz asi,
errukixa artuta
automobil bati;
errenka ta zatika
kalian da agiri,
okelia partitzen
karnizerueri.*

*Sarritan ikusten da
kale baztarrian,
iñora juan ezin da
itxura txarrian.
Okela zar da gazte
katxarro zarrian,
ez da giro egoten
bere aldamenian.*

*Derrigor izan biar
gizon jakintsuak,
okelak partitzeko
Eibar guztikuak.
Automobil orrekin
ditu merituak,
gure lagun Ermere
Palaziokuak.*

*Erremolkian dabil
aspaldi onetan,
lotsaria emanaz
bazter guztietan.
Erriko alkate jauna,
artizu benetan!
ori kendutziakin
danon bistatikan.*

*Automobil ori da,
lan asko eñ dakua;
bere burua berriz,
ondo pagatua.
Erretiro on batekin
emon deskantsua...,
irabazita dauka,
auto gizajua.*

*Orra, sei bertso berri
katxarro zarrari,
dabillelako beti
danon penagarri.
Gogoz eskatzen diot
alkate jaunari,
zarra erretirau-ta
berria ekarri.*

LXXIII

DUDAKUAK

Bolara batzuetan, olako burukizun batzuek izaten dira ta betiko rutinatik urtetziarren edo zelebratzen dira iñoiz berrikeri diran jaiak. Ori zan baile artakua be. Neska-mutil parejak bakarrik sartu zeikien.

Bat azaldu zan takillara ta eskatu eban sarrera bat.

—Bat bakarrik ezin geinke emon. Gaurko dantzia bikotxentzako da, ta bi artu biarko dozuz.

Ez eban beste erremedixorik euki, bi artu baño. Pentsaurik, diru kontuko gauzia bakarrik izango zala, ta txartel bi artu ezkerok erabagita euala. Baña, atian ezetsen laga aurrera pasatzen.

—Nai ta nai ez, parejiakin etorri biar aiz. Gizionezkua emakumiakin.

—Ni, zelan baña? Etxaukak nobixarik eta.

—Ba, nobixia ezpada laguna, ta laguna ezpada arrebia. Baña, emakumeren batekin etorri biar aiz; naiz da amakin izan.

Asarre juañ zan gure mutilla, baña bere artian esan eban: “Ondo dagok. Ori be bai? Ba, ikusiko juek ointxe zelako laguna ekarriko dodan”.

Juañ zan beste etxietara ta artu eban salgai egoten diranetakoa neska biurri bat. Apain-apain ipiñi erain zetsan emagalduari; baña axeri zarrari, ulia juañarren, antza ez. Beste barik, berakin azaldu zan baileko atera.

Ate-zaiñak bere aginduak zituan, da ez-etsan nai laga sartzen.

—Zer dala-ta baña? Len ez destazu ba esan, neskaren bat ekarri biar nebala?

—Bai, baña nik nere aginduak ondo bete biar jixuat, da emen ezin laikek sartu dudako neskarik.

—Dudakua?

—Bai. Ik dakarren ori dudakua dok.

—Dudakuak, or barruan darenak izango dira. Au jakiñekua da.

LXXIV

IRUROGEI KILOMETRO ORDUKO?

Txofer bat, egaztada guztian ej zoian errian, ta aguazillak txistuka gelditu erain zetsanian.

Aguazillorrek, kuadernua ataraaz; urreratu jakonian:

—Baña, nik zer eiñ dot ba? —galdetu zetsan txoferrak, arriturik.

—Ba, erri barrutik, orduko irurogei kilometruko martxan juan.

—Irurogei kilometru orduko? Zelan eruango dot ba orduko? Oindiok urten dodala ordu-erdi ezta ta?

Aguazillak, buruari azka eiñaz:

—Beno, beno. Parkatu. Olan badok jarraitu eike.

LXXV

ZELAN EMON?

Egundo gaixotu bako gizona zan. Etxeko bu-rua. Ta, naiez batek jota, oeratu biarra izan eban. Etxekuak, berez zala naturaleza onekua ta, gauza gutxi izango zan ustian, ez zetsen emon importan-ziarik. Baña, egunak juan da egunak etorri, obe-kuntzarik ez eukala ta, medikua eruan eben.

Gaixua ikusi ta ondo arakatu ondoren, medi-kuori sukaldera zan eskuak garbitzera, etxekoan-dria ta alabia jarraixan zitxuala. Prixaka be bae-billen medikua, ta etxekueri esan zetsen berba gu-txitan:

—Gaixua ez dago ain txarto. Errezeta onekin ekarri uztenak (ur-buztanak) botikatik. Onek ur-

buztanen premiñia dauka. Orretzek eiño detse bentaja aundixa.

Geiagoko esplikaziño barik, juan zan medikua. Amak bialdu dau alabja uztenen (1) billa. Botikarixua, ezauna be bazan da, alegindu zan gizenek apartatzen.

Etxera eruan zituanian, ango buru-austiak. Ez ba jakin zelan ipiñi. Amak diñotsa alabiari:

—Onek ur-buztanok bizirik dagonaz. Nola demontre emon baña onek nere gizonari?

—Nik uste dot, ama, malluka batekin akabautta emon.

—Emon, emon; baña nola?

Ama-alabak, jarduna goi txamartik zerabixen eta gaixuaren belarria sarritan danez zorrotza, onek oetik diar eiñ eban:

—Or zabize uztenak zelan gertau asmau eziñik? Ekarri zuez prijiduta!

LXXVI

TAKURRAREN IRITZIAK

Diñuenez, Takurra izan ei zan aintziña eibartarrik gorrietarikua; Txikillana bera baño gorriagua.

(1) Plaentxian *uztenak* eta Eibarren *ur-buztanak* esaten jakue beste toki bazuetan *izain* edo *uxaden* (erderaz *sanguijuela*) deitzen jakueneri.

Noizbait Untzagako plazan diskursoren bat edo eiñ biar izan eban. Lelengo sozialismua defendiduz, maltusianismuan alde asi ei zan jotake, baña gero, miña berotu jakonian, aren elizak eta obispuak erre biarrak ez ei ekan akaburik; inkisiziño-ko *autos de fe*-ren ordañak eskatuz. Aren iritziz, elizatarrak ei ziran, Malthus-en dotriñeri aurka zerenak, kapitalisteri mezede egiñaz, pobriak ugartzizen da izurratzen.

Bere ideetakuak ez ei ziran arritzen orrek entzunda. Baña bai naikua barre eitxen ei eben bere kontura. Orregaitik ez ei ziran faltatzen zirikatzailliak diskursua eiñ zeixan axaxa emonaz. Da, Takurra beti gertu, aurrekaldian amar lagun entzuteko baeukazen, ikaragarriak eta aundiaguak esateko. Beti banguardista, Txikillana, Madinabeitia ta Meabe, epel batzuek ziran bere ustez. Egiak esaten atrebitzen ez ziranak. Bere diskurso guztiak forjarien kantuz amaitzen zituan:

*Gora ta gora beti,
gora forjariak!
Langille trebe zintzo
ta mallukariak!
Lurpera ta lurpera,
beti nagusiak.
Guregaitik dituzte,
dituzten guztiak.*

Beretzat uelgak gutxiegi ziran. Beti ebillen erreboluziño eske. Gutxiagorik ez. Egozkor arek, bere

buruari gutxietsi barik, diskursuetan erabiltzen eban berba jarixuan uezabok eta abadiok ez-eze, erreboluzionarixuak ez ziran ezker aldekuak pe jo-ta-eratsi eitzen zitxuan. Entzunliak zenbat eta barre geixago, orduan da ikaragarriaguak ziran bere esan biarrak. Orruaka esaten eban, bera bakarrik zala benetalarixa. Gañerako guztiak berba bakarrik, barra-barra.

Olako azalkizunak eitzen zituanian, Enbil parroku jaunak estu artzen ei eban; baña, naiz, noizik beñian asarrerren batzuek izan, alkarrekin aixkide txamar konpontzen ziran. Bein, olako diskursu bat zala ta, deitu zetsan parroku jaunak, da juan zan Takurra sakristiara. Elizara ez. Ori ezta pentsau be.

—Ze astakeritzuk esaten abil or ziar? —esan zetsan Enbil jaunak—. Berriz be gure aurka jardun duala esan jestek.

—Ba,... bai,... gizurrak esaten dozuez da...

—Gizurrak? Zer gizur?

—Ba,... zerua dagola, ta...

—Da zer? Ik ez dok nai zerurik egon deixan ala?

—Bai, baña... Ez...

—Ez?

—Ez. Ezetz. Ez dagolako.

—Da ik zer dakik ba?

—Ba,... bakizu ba... Oingo filosofuak diñue...

—Zer?

—Beno. Ei diñue, ori eztala egixa ta...

—Zergaitik ez ba?

—Iñok ez dabela ikusi.

—Orduan, iretzat, Paris be eztok egongo, ikusi ez-padok?

—Ez, baña ikusi dabienak esan deste. Ta probau nai bazendu, zuk emoidazu Pariserako biletia ta nik emongo neskizu zerurakua.

* * *

Milla urte pasau ta ura bere bidetik. Bere sozialismuko teoria ta guzti, Takurrari, biarrak biarra eraitzen zetsan. Jateko irabazi biarra, biarrekua ez balitz, ez eban biarran biarrik.

Bere bizimodua barriz, ez zan iñori opa izatekua, guardillan bizi, ospital onduan bertara begira biarra, ta Urki ingurua kanposantu aldera begira lo. Bere denporarik geiena orrela izan zan, beti geroko obiari begira, ta atan orretan denporia ta urtiak aurrera.

Geixotuta, ilzorian, azkenetan euala, eruan zetsen Enbil parroku jauna. Takurragaz ez euan elixakuen konturik ta lagun moduan juan zan bizitaxo bat egiteko atxikian. Ia bidebatez ebitau zeikian zibilletik enterratzia. Iñundik al bazan beintzat.

Oeburuan jarri zan da eiñ zetsazen pregunte batzuek, baña Takurrak erantzunik ez. Begiak itxita, arnasa maxkal bat bakarrik ebala bizi zaren senalle, sorgor euan gizajua.

Konturaturik konort barik euala, une axe apro-
betxauaz, istrumuziñua emotia pentsau eban. Ta,
asi zan trepetxuok ataratzen, esanaz:

—Gizajua, ointxe emon biar deuat billetia, ba-
ña ez Pariserako, etxakiat zerurako dan ala infer-
nurako.

Bere zeregiñok amaitzerakuan, Takurrak ezke-
rreko begia pixkat zabaldu eban, zerbait esan nai-
aren itxuran. Enbil jaunak, jamonik eitxeke, is-
trumuziñoko (Extremaunción) legieri jarraitu ze-
tsan. Akaberan:

—...Pater noster.

Takurrak, arnasa estuka:

—Zu... zulora laster.

LXXVII

MAITASUN BAT

—A! bai, Ni ta gure Txomin, ezkondu giñala
ta geiago, alkarrekin primeran konpontzen gara.

—...?

—Izan be, nik eta nere gizonak gusto bardiñak
daukaguz.

—...!

—Pentsau be, biok bardin-bardin pentsatzen
dogu.

—...!!

—A, ta gañera, maitasun bat bakarrik dauka-
gu.

—...zer da?

—Ni!

—Aa!

LXXVIII

BURRUKALARIAK

Plaentxiatarrak baekixen, amaika erriko seme, gizon aundi izatera elduko zirana, baldin etxe aberatsian jaiotakuak baziran; bazala gatza ta piparra, mamiñaz gañera, euren buruetan. Baña, langille pobriak izanezkero, zalaparta gutxi, "tato ta tato" beti leku baten; kondeziño orretako gizontzat ez eualako munduan aurrera biderik. Izan edo ez izan, euki edo ez eukiren goran beran euan. Jardunak demas euazen plaentxiatarrentzat, nai bako errealidade orren aurrian. Ze, eurak beti, bes-tiak konturatzen ez baziran be, eukana nausi ezautu eben munduko gauzetan.

Eibarren beti izaten ei ziran erreglatik kanporakuak. Eibartarrak apartak ziralako. Orregaitik esan izan da: "Eibarko txitia, ollo". Baña, orraitxiok, ba ei zan Plaentxian be bat guztiz aparta. Takian-potian izaten dira olako ale-takuak be ta. Arekiñ diskutitzeko jakin eñ biar zan gero... Biar-giñ pobria izanarren, ez eukan arek iñoren leziño-

rik artu biarrik, langille ta pobria zer zan esplikatzeko.

Biargin arasuetan buru-belarri sartuta euan. Bera zan mitiñetan eta konferenzietan jentia bero-bero ipintzen ebana, bere tellapeko txinpartak plasta-plasta botiaz. Ez jakin ba Frantziako erreboluziñolari aundiak Danton, Robespierre ta gañerakuak egunen baten Plaentxian loña janen baten ezautu zitxuan, ze, Eibarko Txikillana ez-ezik, Takurra bera bezin askarria zan. Erreboluziñolarixak, itxuria euanez, berakin afari-meriandaren bat eiñ eben edo bestela berak igeskadaren bat Parisko Saint Antoine parte zarreko arri koxkor bakotxat daben istorixia jakitera.

Dana dala, leikiana da. Danok dakigu Esopo be Plaentxian ziar ibilli zana, Homero be juateko asmuetan ibilli zala, San Pedro ta Colon oster, etxe-etxeakuak.

Ainbestekin, guazen ba arira. Tallar baten bein, uelgara urten eben. Lelengo iru edo lau egun ederto. Esan be bai batzuek: "Au besterik ez ba dok uelgia..." Pare bat aste pasau ziranian, ara gauzak nola zatartu ziran, igarri be eitxeke. Etxeko-andrak pe zer ikusi aundia euki, ta sapatu arratsaldian, kintzenarik ez jasotziakin, ezegozen goxuak gero. Aren txoliña...!

Guardiazebillak tallarreko atian, malo. Gaizki euan gauzia. Demasa pasau biar eban. Biargiñak gogor be gogor eren eurenian, eta, ara nun, arratsalde baten ipur-garbitzalle edo ezkirol bat biarre-

ra zoiala, inguratu dabe biargiñak eta esan detsez kristonak eta bi. Onek, nunbait bildurtuta edo pistola bat atara ebala ta akabo. An armau zan armatzekua. Erri guztian zabaldu zan berri ori. Ziara astorau ta, ez euan geixago bakerik.

Manifestaziño itzala ipiñi martxan da ayuntamentura, zuzenian. Emen, jakiña ba, gure erreboluziñolariak artu eban berbia, odolak bero-bero ziralara, ta diñuenez, garbi ta ondo orraztuta, bizi-bizi ta astiro soltau ei eban kolkuan eukan korapillua.

Entzun daixogun berari: "Manifestaziño garau au ikusita, esan leike biargiñok esnatzen asi gara-la. Bada ordua. Guri eskerrak, gaur odolik jausi ez bada errixan, baña beti orretara gauzak juanko ez diranez, agintarixak kriminal ori sartu deixela karselan, geure eskutik justizia eitxen asi ez gaitezen. Laugarren astian sartu gara erriko biargin zintzuak uelgan gaozela, ta oindiok puntarik pe ez da ikusten. Biargiñak beti dauka errazoia. Errazoia ta bi. Ta, emen gare, ukalonduak maigañian ezarrita, kinzenako egunian, egun alegria izan biarrian. Andriak or-emengo dentetan erdia baño geixago gastauta daukala ikusten dabenian, egun triste orretan, nun da familixako unamori-xua? Esaidazue neri langilliak errazoia daukan ala ez. Ta, bitxartian uezaba esplotadoriak, galtzarua su berotan sartuta letxe, elizan meza nausi ta besperetan, Jangoikua aguan da demoniua kolkuan, azpijanian nundik biargiñari odola txupau-

ko. Orrek eta abade-pralliak, egu bariko belak, pobre izurratzalliak, gu esnatzen ez bagara, jan biar gaituela. Jangoikuak esan eban gizonak bere izardixakin ogixa irabaziko eba'la, baña ez eban esan gure odolakin sopak eiñ biar ziranik. Izardi-xa tallarretan lagata etxera juaten garanian jatera, gauza gutxi etxian. Ogi koxkor batekin platerian fiestan ibilli ta gero, banketiak amar minutuan akabauta dagoz, eta beruana kendu ezkerro bostian be bai. E, tenedore ta sartaña? Esaidazue emon barregurarik. Orrek Andra Mari jaixetan zeozertarako zerbitzen bajuek, ez dok gaizki! Denpora geixegi galtzen dogula guk eskopetako piezak akabatzerakuan dotoreegi ipintzen. Igateixak! igateixak zorroztu biar ditugu! eta ez deitzezela izan garixari burua ebateko bakarrik!, ez!!

—Ori dok ori, etorrixa!

—Berkak bakarrik ez ditugu eiñ biar, ez! Kontuan euki, biargiñak egundo be ez dogula ezer eiñgo ontzak olixua txupatzen daben moduan geu txupatzen gaitxuen patronillo, klero ta militar orrekin akabatzen ez badogu! Orrek danok, lelengo, probisionalmente, afusillau; ta gero, ondoren, ikusi zer kastigu merezi dabien! Bai! uelgia gutxiegi da, matxinadia, matxinadia biogu!!

LXXIX

BARAUTSIK AUNDIÑA

Arikitxa zarra be gizon zurra ei zan. Bere freretexiak, Eibarko errixan, erremintxa saltzen otxiñak eiñ dakua.

Denpora aretan be, biarrian ikaste alde, basarritik jetxitako mutiko asko ibiltzen ei ziran tallarretan, urte batzuetara biar bada uezaba izango ziranak. Ta bitxartietan onek izaten ei ziran errekaugintzan. Jakiña, mutiko askorentzat, asi barrian, bardin-bardin ziran milimetrua ta kilometrua, tartian metrua gora-bera zalako edo. Olako neurri izenak da gañerako erremintxa askorenak, zerbaitx ikasi artian, naastauta ibiltzen ei ziran aren aguetan.

Sartu zan Arikitxanian errekadista bat, eta :

—Pedro, kilometroko barauts bat.

—Zer? Tunela eitxeko dok ala?

LXXX

ALPERREN NAUSIA

Ez ba plaentxiatarak alperrak ziralako; orixe bai ez. Baña, ardi errebaño guziak izaten ei da-be euren ardi baltza ta, Plaentxiak pe baeukan

beria; eztula eitxeko baño alperraua. Marraskillutara juañ zan batian, zazpi ikusi ej zitxuan eta bost arrapau; birek iges.

Dornu aurrian marraskilluan konpasian ebillen batian, bere pareko bonbillia emetau zan. Ta, argi barik gelditu zanian, ukanondua dornu gañian arrimau-ta, ikubilla okotzian ebala, buruari eusten, geldi; kiñara eitxeko baño alperrago gelditu zan. Baña, uezaban begiak beti gañian izaten zitxuan. Biar be bai alako biargiñak.

—Zer? Eztagok ezer egiteko asmurik ala?

—Argi barik nago.

—Egongo ez aiz ba i argi barik? Noiz izan aiz ba i argia? Pentsatzeko baño be alperraua aiz ta...

—Ez ba, pentsatzen neuan.

—Zer pentsatzen?

—Ba, orixe.

—Zer dok, orixe?

—Ba, pentsatzeko baño alperragua naizela. Gero, pentsatzen dot.

—Lotsatu be ez aiz eitxen, lotsatu be? Kiñara eiñ eik!, kiñara!! Alper usañok baztartuta. Bonbillia erre dan ikusi edo zeozer. Zirt edo zart!

—Ez naiz baña bonbillara eltzen.

—Ori be bajuagu Memelu alakuori! Igoik neu-re bizkarrera!

Ez bat eta ez bi. Esan baeban, esan eban. Esan da eiñ. Gure alperren erregiak, banku gañetik uezaban bizkarrera igo eban.

—Auxe falta genduan bakarrik —ziñuan ue-
zabak arrituta—. Onek, kaka burutik bera be eiñ-
go jestak. Sekula alakorik.

Bestia barriz, o'axe zalakotzat, trankil.

—Zer dok?

—Bai. Erreta dago —aitzen emon zetsan biz-
kar gañetik.

Ori esanaz, bonbillia esku artian ebala geldi
euan, luak artu biarrian.

—Zer pasatzen dok? Erreta dagok ala ez?

—Bai.

—Ta, zeri begira ago?

—Ba, soltatzeko...

—Ba, soltaik soltau!

—Baña arixan (1) dago.

—Bueno, ta zer?

—Ba, soltauko bada, zeuk bualtak emoteko
zain nago.

LXXXI

ZEZENAK ELGETAN

Gerrate ondorian zan. Olako moda bat zabal-
du zan, lenago baztatu ziran zezen-korridak ba-
rriztekua. Korridia, zorionian, Españaiko jairik
bikañenetakua be bai, ta patriotismuak eskatzen

(1) Arixa, rosca.

eban, gure aunditasunerako, zezen-korridak barriz indartu biarra.

Ta, Eibarren da Bilbon korridak eitxen baziran, zergaitik ez ba Elgetan? Elgetarrak gutxiago ziralakuan ala? Erri txikiagoa izatia ezta bestiak baño gutxiago izatia; ez orixe. Gañera, Elgeta ez al dago ba gorago?

Elgetarrak be, jai nazional ederrori burutu biar eben nolabaitx.

Asi ziran jotakeia gertakizunetan. Beste zeregiñik ez eken guztiak eta urte guztian beste ezer eitxen eztabenak izaten dira beti prest, olako erri txikietan. Orregaitik ez zan laguntzallerik falta. Barriz, ez euan txatxarkeriarik, bein eitxen asi ezkerok, goitxik eiñ biar zan, iltzeko zezenak eta traje de luzekin. Zer ba?; jakitzia be ez zan gutxi.

Illiak aurretik, Elgetan ez ebillen beste auturik, zezenak gora ta zezenak bera. Gizon, andra ta ume, danak okupatzen ziran zezen korridarekin.

Gauzak aurrera zeroiezen. Barriketa barik gañera. Bilbon enkargau zitxuen alkilerreko traje-luzak eta lidiako zezena Lasturren. Presupuestuak geixago ez ebala emoten da iltzekorik bat bakarrik. Beste bi enbolauak; banderilliakin iltzeko papeleria eiñ da berriz Lasturrera itzultzeko. Kanpoko toriadoriak karuak zirala ta, erriko gazteriarideia eiñ zetsan alkatiak. Asko presentau ziran, baña esan eban: "Kaka-umiak fuera". Ta, nausitxuenak apartau zitxuan. Eta Ziarda basarriko

biai batekin eitxen zitxuen entrenamentuak, Txomin Porru, gizon luzekiña, kuadrillako jefe zala. Modu orretan, baldrasak baztatuaz, aukeratu zitxuen matadore, banderillero, pikadore ta gañerakuok.

Matadore bat, alabe, oso balientia ei zan. Bere buruagaitxik ardura ez zetsana. Ainbesterañok eze, bein, Uberako erre kara jua ei zan bere burua botatzeko asmu an, ta eiño go ei eban gañera, ura otza egon ez balitz.

Arek ziran ardurak, San Roke aurret xuan. Atso-maspasa batzuek ziarduen :

—Juan eidora Bilbora traje-luzen eske...

—Ene !

—Bai, ta bixar ei doiaz Lasturrera zezen billa. Salamanca-kuen inbirixarik bakuak ei dira.

—Ezta izango ! Or ba, zelan diran gauzak.

—Bai.

—Bilbora jua diranak pe, eztira etorriko Aramaitxakua jo aurretik.

—Ez, Joxepa ; oingo gizonak ez dira ez galduko.

—San Franzisko deboziño zkua dabe.

—Birjiñarik eztagon lekua.

Orduak aurrera ta agiri ez Bilbora traje billa jua ziranak. Bitxori bizi-alarguna ez euan oera juateko. Ez. Arduratsu euan bidian zerbaitx पासau ete jakuen.


Gaberdixan auto zaratia ta berba otsa. Eurak ete ziran ? Ixillekuetan bentanaratu zan Benitxa

neskazarra. Gerratian zutiñik gelditu ziran etxiak kristal barik geratu ziranez, oindiok danak konpontzeko euazen. Ez zan erreza danak batera konpontzia, ainbeste ta ainbeste falta zirala. Materixalak pe urri ebizen da. Orregaitik ez euan bentanak zabaldu biarrik, burua ataratzeko. Zuzenian jua zan Benitxa, abixara guztiagaz, ta ain zuzen be, kasualidadez, apurtu barik gelditxu zan kristal panalian sartu eban burua, ta doblau ezin zanez: “Klank!”, apurtu zan kristala.

—An, Benitxa neskazar autubatzallia! —Bilbotik etozenetako batek esan eban, kaletik.

Or ba, zelan diran gauzak. Uste barik, Benitxandako lotsaria. Zertako gelditu ete zan kristal ori osorik. Arioplanuak euken kulpia. Bonbardeuak ez. Bonbardeorik ez zan izan. Burrundariak apurtutako kristalak ziran. Ze, ainbeste arioplanu batera, ez zan gutxiagorako. Alde oneko jentian arioplanuak ez eben bonbardeorik eitxen; aidiak zaindu bakarrik, zeruetara okerrik jua ez deixan. Baña, bonbardeorik ez. Burrundariak. Ori zan guztia. Ori ta aingeruak zerura bialtzia. Ez ete dakigu ba?

Egunak aurretik, erriko plazan ziarduen tribuna giñan. Alde batetik ayuntamentuak eta bestaldetik etxe illara batek irutxur eitxen eben aldia aprobetxauaz. Tribuna arekin da balkoietan kabi-du zeikiazenekin, erri guztiak ikusi zeikian korridia. Gero, falta zan alderdiko zatixa, barriekin



YULEN

da burdixekin bete eben. Jardunarekin, plazia, ederto itxitxa gelditxu zan.

Bispera gabian, zezenak etorri ziran Lasturdik, oñez. Asto bat ekarren mantsotzat. Ta zezenok apal etozen, amatzako astuaren arrimora.

Goizian, azkenengo preparatibuok eñ zitzuen. Baña, eguerdixan, Guardiazebillak ekarri eben Bergaratik abixua, plaza itxian korridia eitzeko ez euala baibenik. *Terminantemente prohibido*, esan zetsen.

Zer eñ; ainbeste gasturen ondoren?

Orraitxiok, naikua ondo erabagi eben. Burdi bat kendu, alde bat libre lagatzeko. Orretara ez zan plaza itxia. Ta, burdi ori, prest euki, orretarako inzendau zitzuenen artian, zezena, libre euan alde orretara juaten zanian, burdixari bultza eñiaz zulua tapatzeko; ta, aldetzen ebanian, barriz zabaldu. Agintariak be konforme ziran, ta olan erre-medixau eben ustegabia.

Atan-orretan, eldu zan artsalde erdia. Korridako ordua. Jentez gañezka eñ ziran inguruak. Etxaplio batzuen ondorian, Itxuzabalgo soñujolia asi zan pasadoble bati antza emon naixan.

Agertu zira manolak, Uberatik ekarri eben tratore batian. Soluak goldiatzeko tratoria ez eukan gero edozeñek. Tratorian zaratia ta jentian txaluak, danak ziran batian, Itxuzabalen soñua itxutzeko. "Drakala, drakala" emon etsen plaziari bueltia, ta tribuna erdira juan ziran, eurentzako aprapos gertau zitzuen jarrilekuetara.

A zan emozinua. Sevillan be ez olako korridarik. Nai zana izango zan Sevillan, baña elgetarrak zeren billa usten dozu ibilli zirala ba?

Jentia pixkat zeneratu zanian, ayuntamentuko arkupetik urten dau Pagatzako Ezekiel kamiñeruak, bere txapel gorrixa buruan ebalá, Lapurdi auzotik ekarritako bior baten gañian. Ta bere ondoren, oñazian, toriadoriak, Txomin Porru kuadrillako jefe zala. Traje-luzekin eta abarketa zuriekin.

Tribunakueri agurra eiñ ondoren. Presidentiak bota zetsan giltza Ezekieli, baña alboregi juan zan, ta artzeko aldamenerutz eiñ ebanian, jausi da biorretik. Ango ulua, ta ango angua. Kuadrillakuak altzau eben. Miñik ez eban artu, baña biorrak iges eiñ eban, burdiaren utsunia euan lekutik zirkiñ eiñaz. Ezekielek, legia beteko baeban, plaziari bueltia emon biar ba, ta aintxixiketán emon zetsan. Sinistia be kamiñeru batek olako nekia artu zeikianik. Gero, atezañari giltza emon ondoren, kornetiña asi da, "Tuturu-tutuka".

Ez euan barriketarik, lelengo zezena lidiakua. Bestiak iltzekuak ez baziran be, lлена beintzat iltzeko izan zeixala. Gauzak zelan urtengo eben jakiteko prixa euken da.

Urten dau zezenak. Zintxa ori bat eroiala, Lasurko dibisatzat. A be, biorran bidetik, zuzen, plaziak kanpokaldera eukan utsunara. Baña, an euan Joxe-Martingo Jerardo mutil-zarra bere lagunekin, len baño argiágo, ta eupara batzuekin erain detse burdiari ta zuluá tapau.

Zezena noraezian, da toriadoriak urreratzeko bildurrez. A, ez izan Ziardako biala. Arekin ez euan afariketarik. Ezta erreza adardunari adarra jotia.

A zan kuadrúa a. Paulo Uranga elgetarrari ez jakon iñoiz bururatu olako kuadrurik. Bruegel eta El Bosco-rentzat be geixegi zirudixan.

Etxe illarian aldetik, Txomin Porrük, bere kapote gorriakin:

—Jee!

Esan baeban, esan eban. Or da zezena, abixarra guztian. Baña, ez kapara. Enbolautzat eta sokamuturretan asko erabillitako zezena zanez, batxillerra ezezik, anatomixia be ikasita eukan, ta gorputzera zuzen-zuzen. Txomin Porru luzekiña ankaz gora.

Jentia kurrirka eta ulukaz.

Zezena barriz, bere abixaran, sartu zan peorabatian. Peoriak, ostekaldera ate batetik pasadisua eukanez. Tope batekin ate maxkalori ausi dau, ta ostekaldetik ospa.

Kuadrilla guztia bere ondoren, baña zezenak mendian gora artu dau ta Intxortarutz. Nork arrapau a?

Akabo korridia. Gauza ziran gaztiak mendira zezen billa. Ta, gañerakuak Uriburutik San Roke aldera pasiora. Ze, ez euan a arrapatzerik. Intxorta mendiko bizkarretatik buzkantz usañera edo Elorrixo aldera jo eban zezenak. Baldin, ara jango balitz ta bertako ura edan, akabo. Zerak erren-

diduko eban orduan zezen demontria. Gizonik be eztago sosegauko danik Elorrioko urakin.

Telefonua jo dabe Elorrixora, kontu izateko zezenagaz.

Andik ordu batzuetara an ei ziran Elorrio inguruan. A ei zan kuadrúa. Kamiño baztarrian *camping*-ean euazen ijito batzuengana jo ei eban zuzen, ta an azaldu ziran Elorrioko kaliak ziar "Antxiketari-pontxiketari trianerian..." ijituak zezena atzetik dala, ta atzerago Guardiazebillak euren fusillegaz. Baña, gero jakin zanez, ijituok ez zezenari igenik, Guardiazebilleri baño. A zan izatekoa.

Beste zezenok, astuakin, barriz Lasturrera. Ta orrela amaitxu zan Elgetako zezen-korridia.

LXXXII

PRUEBIA

Fakundo juañ zan medikuagana. Aspaldi gibelatik ez ebillela ondo ta errekonozimentu on bat eixera.

Ondo begiratu ta milla pregunte eiñ ondorian. Eitxetsa medikuak:

—Sei illabete pasau biar dituzu ardaurik probau barik.

—Ta, sagardaurik?

—Ezta. Edaririk, ura bakarrik.

—Mediku jauna, bada-ezpada, zergaitik ez dozu eitxen pruebia kuixekin?

LXXXIII

ESKERRAK TOMATERIK EZ EUKANA

Erritar bat, urte askuan Amerikak urratu ondoren, etxeratu zan. Amerikano usain pixkat ekarri biar ba, ta diru apurtxo bat eskuartian errez erabillen.

Alkartu danian aintziñako lagunekin, konbidau ditxu afari eder bat eixera, euren artian Trapu lagun zarra maikide zala. Trapuk, bere gaztetako surra ziara aldatua zeukala konturatuta zegoen amerikanua, ta berari ezer esateke, beste laguneren bitartez, jakin eban surrian zer gertau jakon.

Afarixa aurea zoiala, amerikanuak, Trapu xelebria zala jakin da, bere aotik entzun nai ba, ia surraren aldatze ori nola izan zan. Ta, pixkaka zirikatzen asi da :

—I, Trapu, gauza batekin konturatzen nok, ire gaztetako surra ta oingua ez dirala bardiñak. Zer gertau dok or?

—Zer gertau dan? Esangostat ba. Ezagutzen dok ik Ezosi balleko Kasi? Ba, gabe baten, txo-
txolokeri bategaitik, ez gaituk pa asarratu. Asarratu gero benetan bera, e. Orretan-onetan, etxostak pa aginka eiñ surretik? Sinistidak, tomate pixkatekin untauta egoten bok, jateostak.

LXXXIV

BALIENTIA

Txomin juan da Miel Ubitxa-gana.

—Konke, i, izan aizela nere andriari zarra ta zatarra deitu detsana.

—Bai! Ta, zer?

—Zorionak, mutil. Ze, ni ez nok sekula atrebidu olakorik esaten.

LXXXV

GUTXI GORA-BERAKO NEURRIAK

Eskerrak Eibarko Eskola-Armerixiari, bai Eibarren eta bai inguruetan, zorionian sartu ziran neurrientzako konzeptuak. Ze, aintxiñakuak gutxi gora-bera ibiltzen ziran kontu orretan.

Bagenkiun Plaentxiako arotz bati, ollo txabilia eitzeko neurriak artu ta jotasua ibilli ondoren bere arotzerian; ez dakigu, neurrientzako zer ustetzuk zitxuan arotz arek. Amaitu ebanian, deitu ei zetsan eskatu ebanari ta arotzeriatik ataratzen asi ziranian konturatu ziran atian kabitzeko baño aundiagua zala. A zan gizonen xaxaria a, ollo-txabo-

lia, arotzeria zeputzat ebala, tranpan arrapauta laga eben.

Baña, Eibarko Andres arotzak eiñ ebana, oin-diok askarriagoa izan zan. Arritzen gaituana da, plaentxiatarrak tapatzia.

Aintziñako Eibarren, parroku jaunak, elizan ziran biar guztiak Andres arotzari eraitzen ei zetsazen; tellatuak ez, beste guztiak. Tellatukuak Txaintxikuri eraitzen ei zetsazen.

Aste Santuko prezoziñorako, Jesukristoren gorputz illaren irudi barri bat erosi ei eban parroku jaunak. Egurrian ederki egiña ei zan. Ta, kristalezko kajoi bat eitzeko agindu ei zetsan Andresi. Eztakigu Andres arotzak neurriak nola artu zitxuan, baña Jesukristo baño kaja laburragua eiñ eban. Parrokua larri, bixamonian prezoziñua eiñ biar zala-ta. Baña, gure Andres, maña askodun biargiña ei zan. Eiñak-eiñ, ez ei zan asko larritu. Arotz batek ez izatekuan aterik aña maratilla, no-rek izango zitxuan ba?

Bai asmau be Andres arotzak. Irudiari, belaun ingurutik, ankak ebagi ei zetsazen eta kontu guztiakin ipiñi zituan ezkerreko ankia, ezkerreko al-dian, eta eskumia, eskumako alderdian.

Parroku jaunak a konposturia ikusi ebanian, eskuak burura eruan da, esan ei eban:

—Baña, Andres! Zer eiñ dok?

—Jauna..., ba,... Jesukristo zan kajoian kabitzen ez zana ta, burua ebagitzia baño obe zala pentsau dot eta...

LXXXVI

EZ EUAN AIN GAIZKI

Sarrapel gaixorik euala-ta, Liandro bere laguna juañ zan bizitxara.

—Zer diñok, Sarrapel?

—Ementxe. Ez, nai neukian bezin ondo.

—Iño! Ba, ez ago ain gaizki be. Anka bixak oian daukaz beintzat.

—Anka bixak oian?

—Bai. Don Nikanor medikuak esan jestak anka bata kanposatuan duala, agola ta...

LXXXVII

PARISEN PARISKO ERARA

Parisen makiñaria feria euala ta, juañ ziran eibartar batzuek, ezer probetxuzkorik billatzen ete eben. Ezer billatzen ez bada be, atxikixa ederra izaten da lantzian bein aiziak kanbixatze aldera.

Plaentxiatarrak, munduan ain urri badira be, Parisko puntan billau zitxuen. Ze, Letek ziñuan moduan, edozein ez ei da plazentziarra, munduan, ainbesten artian, bost milla inguru bakarrik. A zan poza ta a zan alkar besarkatu biarra. Izan be, plaentxiatarrentzat, eibartarrak etxe-etxeukuak.

—Parisen be eibartarrekin tope? En fiñ, xapuak nun nai.

Ango “eufixak!” eta ango anguak ez eukan akaburik.

—Au ez dok beti gertatzen, ta zelebrou eiñ biar juagu —esaten eban plaentxiar batek.

—Ori dok, ori! —eibartarrak ago batez—. Guxtienez, alkarrekin afariren bat eiñ biar juagu.

—Zertako ibilli, eztotela nai, badotela nai? Orain ez bada gero jai.

Beste barik asi ziran txikiteuan. Eibarren edo Plaentxian balitz bezela. Alperrik ezta erri bietan esaera : “Dagonian, bonbon; eztagonian, egon”.

Batek ziñuan :

—Emen eztok txikiteorako Euskalerriko auke-rarik, baña, bixar, afaitxan eiñgo jitxuagu ordiak eta bi.

Bixamonian, andra ta guzti alkartu ziran afarixa enkargau eben lekura. Plaentxiatarrekin batian oñatiar bat be bazan, euretariko baten ostatu berian euana. Parisko puntan eibartarrak erritarren moduan baziran, oñatiarrak auzokuak.

Afarixa aurrera zoiala, asi zan euren arteko broma abarra. Eibartarrak, betiko moduan, plaentxiatarrak nundik tentauko ebizen. Ta, plaentxiatarrak asko estutu ez. Egundoko eztenkada zelebriak botatzen zitxuen, jakiñian eibartarrak orretxen billa ebizela.

—Benga biño, benga fuerga! —ziarduan batek.

Ta, bai batzuek eta bai bestiak, txurrutari gogor.

Eibartar batek, *Iriarenan* soñuz:

*Plaentxiatarrak esaten dotxe
errekiari "ibai"...*

Baña, plaentxiatarren berezko etorri zorrotzarentzat ez euan bertso guztia kantau biarririk, gauzak erdi esanda be aitzen ditxue ta. Bat-batekuan, plaentxiatarrak:

*Eibarrek pozik artuko leuke
Plazentziko "errekia"...*

—Ia, mutillak, Zer dok ori? Bertsuak laga errira goiazenerako. Parisen Parisko erara.

—Benga biño, benga fuerga!... —besterik esaten ezekin batek.

—Ori dok itza, ori! Parisen Parisko erara.

—Bai! Afalonduan, danok Montmartreara.

—Benga biño, benga fuerga!... —jarraitzen eban lengua berekautan.

—Ori eztok naikua —zaratatsuen ebillen plaentxiatarrak —Bein, Parisko erara aundixak eitzen asi ezkerok, andrak trukau ta bakotxa bere alde-tik.

—I, txo, txo, ori lartxo eztok?

—Ez gizona. Biar bada, bizi guztian ez juagu eukiko ona etortzeko aukerarik eta, ondo aprobe-

txau biar juagu. Paristarrak pe tapau. Parejak trukau ta al dabenak, al dabena.

—Ori dok egixa!

—Benga biño, benga fuerga!...

Txurrutan kontura alkarri burua berotzeko ezer falta ez, ta, atan orretan, azkenerako guztiak konformau ziran. Ostera, oñatiarrak, ez eban nai iñundik be olakorik. Baña, guztiak asi jakozen: “Beinguagaitxik zer jetsak ba... Ez ari izan ollua... Eztok ikusten, eu ez, beste guztiak konformau dirala ala?...”.

—Benga biño, benga fuerga!... —lelo berari jarraiz.

—Ta, benga bestia be.

—Benga!

Bere borondatian olan ez bazan be, danak kontra eukazen eta obeidu biarra etorri jakon.

Agurtuaz, bakotxak bere aldera artu dau.

—Agur!

—Agur!

—Akabo biño, benga fuerga! Ta, benga bestia be!

Bixamon goizian, plaentxiatar bat jetxi da ostatuko komedorera, armozatzera, ta an euan oñatiarra.

—Egun-on.

—Egun-on.

—Au dok ajia daukadana.

—Plaentxi, edanakin tontotuta, guk eiñ juagu disparatia.

—Zer disparate?

—Zer? Orretan ago oindiñok? Orraitxiok, Oñati inguruetan ez deilla iñor enterau alkarri trukautan ibilli garanik.

—Boj!...

—Boj! Etxen dok?

—Ez larritu, oñati.

—Ez larritzeko? Deskuidu santuan, ez deixela jakin, Oñati aldian, nere andria trukau dodanik.

—A! Baña, i, eure andriakin intzan ala? Guk, emen erositakuak jeukaguzen.

—...?!

LXXXVIII

“KOLETIA”

Kongo aldian baltzak ei dira, baña Plaentxian pasatzen diranak pe baltzak dira.

Domun-santu egunian, abadiak igo dau kulpitxora, ta:

—Gaur, Domun-eguna da, ta txinuendako “koletia” eiñ biar dogu.

LXXXIX

EZTENKADAK

Sesma, bere tornillerixan, ba-ebillen tornillueri ari emoten. Ez dakitx beronen tornilluak izango

ziran Bahamontesek, kaxketaldixak oratuta beste barik Frantziako bueltia bertan-bera laga ebanian, periodikuak esan eben burutik eiñda euala ta Plaentxiako korresponsalak eiñ eban deixa, etortzeko euren errira ta bertan billauko ebalá edozein neurritako tornillua, falta ebanan orde z ipintzeko. Ta, ez dakitx Sesmak eitxen zitxuanak ez ete ziran. Ez dira beintzat burua kantzau barik eiñ dakuak.

Ari-emoten biarrian diarduan lekuan, zerbait bururatu jako ta atara da tallarreko atai aurrera. An gelditu zan egonian.

Aurrekaldetik pasau zan batek, esan zetsan:

—Zer, Edur, jai dok ala?

—Bai.

—Bai?

—Bai. Geure patroia dok eta. Ta, ez dok itxura, geure egunian ari-ematen ibiltzia.

—Zer egun dok ba, tornilleruen jai izateko?

—San Jose de "Ariematea".

* * *

Jai bazkalondo baten, Jilaneko aurrekaldian euan plaentxiatar kuadrilla bat. Euren artian, Edur Sesma.

Maltza alderako kamiñotik azaldu da neska-mutil parejia motorrian. A zan izateko kuadrúa, atzekaldian zoian neskiari aiziak gonak altzatzen zetsazen ta iztar barrenak bistan zoian. Danak eu-

reri begira gelditxu ziran. Iñok uste barik, Jilaneke aurrekaldetik zubirutz sartu ziran. Jentia arri-txuta, nortzuek ete ziran. Ta, ara nun, zuzen-zuzen "Batikanora" (I).

—“Luistarrak” ete ditxuk ba? —galdetu eban batek.

Sesmak erantzuna:

—Bai. Aurrekua Luis ta atzekua “iztarra”.

* * *

Juan zan Aste Santuan, iru edo lau plaentxiarrrek eiñ eben Sevilla-ra jiria, ango prozesiño aipatuak ezautu guran. Euren arteko zan Sesma be.

Eldu ziran goizian, zuri bat edo beste be txurru eiñ biar ba. Gauziari bere koloria emote alde, ango manzanilla zarrak probauaz.

An ugari izaten diran txutxerixa saltzaille bat sartu zan eurak eren tabernara, kokotetik eroian ugaletik zestotxo bat tripa gaiñian ebala. Diarka:

—*Hay tabaco, hay tabaco!*

Sesmak entzun ebanian:

—Ikusten dozue emen zelan diran gauzak. Aita bakua dalako lotsatu biar litzakianez, bedori dabik jente guztiari aitzen emoten: “Aita-bako”.

Ta, gabian be, prozesiño ondorian, jo eben kafeterixa batera. Jakiñian edo ez jakiñian, zenbait tortola an ebizen beren edertasunak salgai.

(1) Plaentxiatarrak, “San Luis Gonzaga” kongregante soziedadiari, “Batikanua” deitzen detse.

Kafia artzen euazela, aretariko emakume bat urreratu jakon Sesmari. Ta, berbia emoteko atxikian, esan zetsan neskiorek:

—*Tiene rubio.*

Sesmak:

—*Si; el segundo apellido.*

Plaentxiaratu ziranian ba euken naikua gauza kontatzeko. Illuntzi baten, kazuela bat pretesto ebela, lagun artian alkartu ziran “Allegro”-ko mai luzian. An zan Kandelía be (gizon elizkoia, ixa tabernan da etxian beste denpora elizan eitxen ebana). Alkar agurtuaz esan zetsan Sesmak:

—Ta, Kandelía, nun izan aiz ba Aste Santua pasatzen?

—Arantzazun.

—Iño! Leku altuan. Gurekin berdintsu orduan.

—Zuekin?

—Bai. I, aize billa ta, gu, “a Sevilla”.

XC

ARGI GOSIA

Jateko gogo barik ebillen da medikuari deitu detse.

—Ez daukak jateko gogorik? Ta, zer sentitzen dok ba?

—Ara, don Karlos; nik e ... gauza argixa jateko gogua eukitzen dot.

Medikuak :

—Etxekoandre, ekarrizuz kandelia ta pospoluak, prijiduta.

XCI

ARTOBEROTARRAK

Artobero zan, bere ustez, munduan besterik ez lako gizona zala pentsatzen ebana. Bere basarria erakustera eruan eban Berdabio txokolaterua. Kunplimentuz zerbait esan biar, da :

—Zuek, Artoberotarrok, beti izan zarie azkarak.

—Ja ! Da, nere semia. A datok ixkua. Oin arteko Artoberotar guztiok txiki lagako gaitxuk.

—Iño !

—Gu bezin indartsua datok, ta gañera eskolan be argixa. Ikusiko baeuke erderaz zelan irakurtzen daben. Letrau bat jirudik...

—Zeuek pe beti izan zaraze sasiletrauak.

—Listua, gure semia. Ainbeste estudixau jok eze, euskeraz be ez jakik. Estudixuetan aiztu jakuan.

—Ta, zelan aitzen zarie ba alkar ?

—Aitxu ? Neu be ez nok gero ikasi bakua. Mendaro-txirristakan bertsuak be buruz kantatzen jixtuadaz...

—Iño !

—Bai. Izan be, Mendaro-txirristakan modukorik. Listua. Mendaro-txirristaka, munduan eta Mendaron bertsolaririk onena...

—Iño !

—Muestratarako kantauko deuat bat :

*Han veniro, han veniro,
Bilbotik andra bi,
Entre los dos han bebiro
Azunbre bi-txerdi.
Buena erracion es eso
Andra birentzako;
Baya un par de puercos
Txerri kortarako.*

—Izan be, Otañori ez jakuan bururatu olakorik. Ori gañera, Ameriketan be ibilli zala.

—Ikusi ta dagok, Mendaro-txirristaka, munduan eta Mendaro guztian onena.

Berdabiok, bere artian: "Tontua izateko ez dagok estudixau biarrik". Baña, kunplimentuz danak entzun biar.

Korta baztar batera eruan dau ta erakutsi de-tsaz an eukazen arlanduak.

—Iño ! Oteizaren erako eskultura astratuak nunbaitx...

—Ez, semia, arrijasotzalle izaten saiatu dein.



YULEN.

—Aa ? !

Euren artian euan idi-probarako arri bat be, ta Berdabiok :

—Ori, aundi ori be jasotzen dozue ala ?

—Ez, gizona ; ori idi-probakua dok. Ori, jentillak beren denporan jasoko juen, baña guretza-ko geiegi dok.

—Jentillak ? Zeintzuk zitxuan orrek ?

—Oindiok olan ago ? Gure amandria ez dok bizi. Arek bai ekixala jentillen barri. Erraldoiak zitxuan. Arek, etxia be, esku batekin, ipurditxik aterako laeukiek...

—Iño !

—Ala be, aintziña-aintziñakuak. Arraten anka bata, Illordon bestia ta Karakaten eskuak ipiñita, Maltzako errekan ura eraten ebenak...

—Iño !

—Bai. Arek zitxuan gizonak arek, ta ez oingo sistrinok. Au dok pa mundu-modua ? Jentillak, jentillak zitxuan gizonak. Arratera iru pausuan igotzen ebenak, ta ez gu, ordu-bete biar dogunok...

—Iño ! Ik asko dakik.

—Baña, begira, begira, konturatu ari zelako arrixak daukadazen. Ara, zortzi arruakotik asi ta amasei arruara arte, biribillak, borobillak eta kua-drauak. Ikusten ditxuk.

—Iño ! Bai. Au dok "bibliotekia" daukana.

XCII

"KLOKADAK"

Plaentxiatar bat Bolianeko tabernan, botillatik basora "Klo, klo, klo,... bota ala ziarduala; eitxetsa botilliari:

—Klo, klok!, eitxen dok, klo, klok! Neuk kendukostat iri klokadok.

Bai kendu be klokadak. Baña, gero, gerokuak.

XCIII

IZKUNTZA BAKARRAKIN JAI DAOK

Gaztaiari zuluak gutxitzen ebillen sagutxo batek, aze bildurra eruan eban katu zazkarran atzaparretatik bete-betian ospa eitxerakuan. Artu eban igesixa ta, estu ta larri, eldu zan bere zulora.

Katua zain, "Urtengok", esanaz. Ta, saguak berekautan, "Aspertuko aiz".

Atan orretan, denporia aurrera. Era berian, bakoitzak bere jokabidiari eutsiz, jarraitu eben luzaro, bata zuluana da bestia zulo kanpokaldetik.

Alakoren baten, txakur zaunka entzun zan. Lasterrera, katua algaraz, miauka larriak darixola.

Sagua orduantxe pozik. Ziñuan berekiko: “O-rrek arreglauko au. Zer uste eban ba? Begi guztiak ez juek batera negarrik eitxen. Iri be eldu jak txandia, eu baño gogorrago batekin. Majo benderatuko aiz”. Pozan-pozez, katua benderaturik ikusi naiaz, tentepotente ipiñi zan, da atara dau burua zulotik. Ataratziaz bat, oratu detsa katuak zarpiagaz. Eldutziaz bat esanaz:

—Txo, emen ez dagok txakurrik. Gaurko denporetan, jango bada, biarrezkua dok izkuntza bi jakitzia.

XCIV

CALBETON-ENTZAKO SARGU-ESKALLUAK

Abixua artu zan Eibarren, Fermin Calbeton etorrela. Calbeton diputaua denpora aretan, mezenas bat izan zan Eibarko erriantzat. Berari barriz, asko gustatze ei jakon Eibarko anbientia, ta zalia ei zan eibartarrekin, unamorixuan, afari-meriandak eitxen. Ta, a etorren geixenetan nola izaten zan Tomasito, “La Voz de Guipúzcoa”-ren korresponsala, afari-meriandetarako mokauak aukerutzen zitxuana. Ondo ekixazen Calbeton-en puntu flakuak eta dei eiñ detsa gazte kuadrilla bati:

—Mutillak, Calbeton-i sargu-eskalluak gustatzen jakuaz bai ta juan zaitxie danok peskara. As-

ko arrapatzen badozuez, potekara bat zeuentzat erregalauko detsuet.

XCV

PIKUTAN

Plaentxiako mutiko bi, gabaz juan dira piku lapurretara, auzoko ortu batera.

Alkar aitzuta euazen moduan, batak igo eban arbola gañera pikuak ostutzeko ta bestia gelditu zan arbolapian jaberik ete etorren zain.

Goikuak, artu ala kolkuan gordetzen zituan pikuak, noizikpeñian bat edo beste agora eruanaz eta lantzian bein azpikuari be jaurtiaz, denpora pasa jan deixan.

Bekuak, pikuan plastadia entzuten ebanian, inguru aretara juaten zan ta, illunian, bedarretan eskua pasauaz billatzen eban goitik botatako pikua. Goikuak naikua biar baeukan batutakuak kolko-ratzen ta al ebana agoratzan, bekuak be ez gutxia-go ortu jabia ta piku otsa zaintzen.

Ondo zeroien euren sistimia, baña uste-gabe bategaitik, bekuak deitu detsa goikuari:

—I, Martzeliño; pikuak bajaukak azurrik?

—Pikuak azurra? Ik esateko ez dok asko. Zelan eukiko jok ba?

—Orduan... xapuren bat jan juat.

XCVI

BELARRITXAKUAK

Felix Legarre Balenziagianian biarran ebillela, kamioi bat etorri ei jakuen aspaldi zain eren materalakin. Alanbre muelle-gaixxa ei zan rolluetan.

Kontra-maixuak agindu zetsen biargin batzueri kamioia deskargatzeko. Euren arteko zan Felix be.

Asi ziran karriuan. Ta, beste guztiak bizkar bakoixian rolo bana txintxilizka eroien artian, Felix Legarrek bat bakarrik. Ta berabe patxaran; prixa barik.

Ori ikusita, kontra-maixuori iraotu zan, ta esan detsa :

—Zer, Felix, ik pe bestien pare, aldia bakoixian bana ezin dituk artu ala ?

—Zer pentsatzen dok ba ik, belarritxakuak dirala ala ?

* * *

Askotan izaten dan moduan, zozuak beliari, ipur baltz. Olan ebillen erregaldiarian lazkotxe burua eukan bat, Mari-Katilluneko tabernan, Felix Legarri adarra jo nairik.

Baña, asi besterik ez zan eiñ, Felixek, berak ekixan moduan, goxo-goxo berba eiñaz, esan zetsan :

—San Juan bisperan puxigiakin ibiltzen diranetako bat dirudik.

* * *

Beste bein, pase sasoia be bazan, ta ego-aixe eguna gañera, ez ebillen beste auturik usuak gora ta usuak bera baño. Felix, sartu zan Mari-Katillunian, ta Rufinok, zerbaitx esan biar ta berba eixeko baño alperrago, esan ei zetsan:

—Felix, usuak ei dabixak.

—Bai. Iregaitik ibilliko ditzuk bai.

XCVII

BATA EDO BESTIA

Beste bein be, eldu zan txinuendako “koletia” eññ biarra. Sermoiak zelan amaitxu asmau eziñik ibiltzen zan abadia igo zan kulpitxora.

—Ara, Domunu-santu eguna be laster datorrela ta, parrokuak sermoi luze bat preparau erain desta, misiñuetarako dirua eskatuaz; baña ez dot asiko sermoi ori danok limosna on bat emoteko prest bazagoze.

Egundo ez ei zan batu egun aretan beste diru.

XCVIII

DIRUAN GORA-BERA

Diruaren gañian askotako ustiak dare. Diru gora-berako teoriekin obe da kontuz ibilli. Gizon batek diru barik era batera ikusten ditxuan gauzak, ber-berak diruakin beste era batera ikusten ei ditxu. Lelengo mallatik ikusteko jaio giñanok ezin ei geinke igarri dirudunak zelako kaltiak ditxuan berakin. Ta, zoritxarrez, aberatsen desgrazia konprendidu eziñik juango gara Josefateko zelairutz.

Dana dala, diruak ez gaitu eitxen zorientsu... bestien eskuetan dagonian.

Aintziñako Testamentu-zarrak diñuanez, lagun bat billatzen dabenak, tesoro bat billatzen ei dau. Eztakigu len ori olan zan. Baña, gaur egunian, seguru gare, tesorua billatzen dabenak lagun asko billatzen ditxuala.

Nordian argitasuna ta pobrian arrotasuna, berdintsuak diraz.

XCIX

LAGUNTZA

Ez ba auraxen lelengo aldiz zalako, baña, Fernando, an ebillen gau batian, atai aldetik, peorako

atia zabaldu eziñik. Ez zan gutxiagorako, eukan mozkorragaz.

Serenuak estadu orretan ikusi ebanian, urreratu jakon laguntasuna eskeiñiz.

—Pernando, nai dok atia zabaltzen lagundu?

—Bai. Giltza zuluhan sartzeko, ik eutsi atiari, geldirik egon deixan.


C

ERIoTZA PRONOSTIKAUA

Aurraz eiñdako pronostikuak, errez uts eiñ leike. Gizonik aundiñari be sarritan pasatzen jakuez olakuak; gauza bat esan da beste bat gertau.

Ainbeste agotan erabiltzen dan auzoko errian, Asmakillo gaitzizena daukan sasiletrau bat, Okillaneko Inaxio este-sobreko miñekin etsipena emonda Gimonen klinikara estu ta larri eruan biar ebanian, bidian geldituko zan ustietan, bere konsejua au izan zan: bada-ezpada ildako kajan eruateko. Esan da eiñ. Ildako kajan sartuta eruan eben, kamillan eruan biarran. Bi osteralperrik ez eitxiarren. Inaxio, tranze aretatik salbau zan eta kaja ganbaran gorde eben iltzen zanerako. Ola dira Asmakillon ilustraziñuaren kontuak, erioztza pronostikua aurraz emotiarren.

Gutxi gora-bera, olakua zan San Bartolome txiki egunian Elgoibarren pasau zana be. Azkona-



YULERT.

rraneko Kaximiro, sokamuturrian ebillela zezenak arrapau eban. An iguruan zan Arnoatekuan seme bat eta eruan eben Kaximiroi laguntza emotera. Ikusi orduko igarri zetsan oso grabe euala ta ainbat lasterren ospitxalera eruateko agindu eban, Estuasunezkua zanez, urren euan lekura.

Talaixa, Usurbil eta Errebiron artian artu eben, andan bezela, ta arek ziran saltakak Plaza-txikitik Maalako ospitxalera. Bidian, matarifia billau eben, ta a be eriotza kontuetan aitxua zalako edo, gelditu erain detsa ta artu dau Kaximiron pultsua.

—Berandu zoiaze. Onen arnasia ta puntzionamentua gastau ditzuk. Au juan dok.

Zer eñ, dudan ibilli ziran euren artian. Baña, bada-ezpada obe zala, Arnoateko semiak esan eban moduan, ospitxalera eruan. Ta, berriz be bizkor jaso zitxuen euren anakak.

Kaximiro gizajua, ospitxaleko oe batian laga eben konort barik. Medikuari ta abadiari telefonoz deitu ondoren, ez zala itxura monjen eskuetan bakarrik lagatzia ta, Errebiro bere karguan utzi ondoren. Beste biak azkar eñ eben ospa sokamuturrera; ze, itxuria aren bullak biarrezkuak ziran zezena sustatzeko.

Errebiro antxen, bakar-bakarrik Kaximiron gorputz onduan.

Alako batian, Kaximirok burua altzauaz:

—Nun nagok ni?

—Ospitxalian ilda —erantzun zetsan Errebirok.

—Ni...

—Egonari ixillik ! Ez ete jakixagu ba ? Jesus !
Sustotarako lain be...

CI

ARGIÑA TA MEDIKUA

Argiña, astelena be bazan da, arria landu ezi-
ñik ebillen, golpia an da golpia emen, baña golpia
ta apurtu... apurtu ta apurtu...

Aurrekaldetik pasau zan mediku batek :

—Argiñaren maillatu, bustiñak bardindu.

Ta, argiñak erantzuna :

—Medikuan falta, lurrak tapa.

CII

“BAITA NEUK BE”

Udako artsalde sargori baten, Kaxkurrio zana,
Gizurtegiko tabernan ei euan baso aundi bat sa-
garduagaz gozamenian ; ixa, edatia baiño ez eda-
tia naixago eba!a. Orretan, komunerako larrixa
etorri ei jakon. Baiña, norbaitxek sagardaua edan-
go zetsan bildurrez, bururatu jakon, “aju,aju !”,
egiñaz, iztarriko zulotik gargajua ataratzeko itxu-
ran basora muturra aurreratu “flits !” eiñaz. Gero

baso aurrian txarteltxo bat ipiñi, esanaz: “Kontuz! Txistua bota detsat”.

Orduantxe juan zan nasai komunera, nasaiago itxultzen zanian patxaraz tragoxkak eñaz gozatze-ko asmoz. Baña, bueltau zanian, txartelak “...txistua bota detsat”-en azpian, besteren baten letraz, geigarri bat eukan: “Baita neuk be” ipintzen ebana.

CIII

EZKERTIA

Anton Ezkerdo sartu zan medikuan etxera, illertia darixola, eskuak gerriaren ezkerreko alderdian zitxuala, aienez.

Medikuak:

—Ainbeste aspamentukin zer pasatzen jak, Ezkerdo?

—Gibeleko miña edo...

—Gibeleko miña? Da ezkerrian min? Gibela eskumako aldian dagok barren.

—Bai, baiña ni ezkertia naiz.

CIV

LAGUNA BAÑO GEIXAGO

Bein, ba ei euan Plaentxiako Silibistro itxura eskaxeko gizon batekin eta, orretan, Paparduane-

ko Manuel aiskidia azaldu ei zan. Arritxutako moduan esan ei zetsan:

—Ori be laguna dok?

—Ez; la una y *cuarto*.

CV

ERENTZIAK ZORPERATUTA

Andando aspaldi ebillen epetan; akatza an eta akatza emen, erango baeban baso laren. Bere irabaziak geiagorako ez ziran eltzen da korriduak aurrera eroiazan artzekodunen artian. Bolara aretan, obe biarrez, Orbea-neko tallarrian txorizua tenplau ondoren, Potoxio-nera sartu zan kintzena aundixagua izango ebala-ta. Baiña, epetakueri eutsiarren, ez zan geixagora irixten.

Txorizua zelan tenplau leikian? Ba, bai. Gaurko termika aurrerapenak eztabe oindiok olakorik ekarri. Orbea-nian ebillela, astelen goiz batian, ixillekuetan juan zan suteira. Boltsillotik atara eban txorizo mutur bat, tripa-tristurak kentzeko zeroiana. Ta, beste barik asi zan suteixan txorizo erretzen. Baiña, kontra-maixua be ezan edozein. Ez eban alperrik esaten Andandok: "Kontra-maixua ezin egon alde; beti kontra ta kontra. Orregaitxik dok kontrakuen artian maixua". Onegaitxik edo aregaitxik, kontra-maixuorrek begitxan

artuta eukan Andando, eta buztan-zirixan moduan beti izaten zan bere atzetik; ala be astelen goizetan. Juan jakoa suteirutz. Andando ziarka bera zaintzen. Ta bestiorrek somatzen eban zerbaitx bazerebixala ta astiro-astiro sutei aldera. Urreratu zanerako, txorizuori ondo erreta eta kixkalduta eukan; ikaztuta be bai. Beste erremedixorik ez ta tenasegaz artuta sartu eban uretara, pieza bat tenplatzen euala esanaz. Goiz artan, Andando giza-juak, tripa-zorrixak erabilli ei zitxuan.

Melitonaneko tabernan basotxo bat eran ondoren:

—Au be apuntau aurrerako —agindua emonaz, urtetzera zoian.

Melitonesiak esan ei zetsan:

—Beiñora eskeriok ez aiz allegauko iñoiz pagatzera.

Errukitu zan Andando ta esan zetsan:

—Ara, Melitonesia; egi bat esango deunat: emen bakarrik jaukanadaz zorrak, baiña derrigorrezkua dodanez eran biarra, aurrera be duan eraten jarraitu biarko jonat.

—Ba, ez eran biar ainbeste. Besterik ezian beintzat zor gutxiago eiñgo euke.

—Ala biar baiña, Melitonesia. Erentzia batek zorretan bete ninduan da.

—Erentziak zorretan bete? Ainbeste erango ez baeuke ez euke zorrik.

—Asko eran biar baiña, testamentua beteko bajonat.

—Testamentua?

—Bai, testamentua. Bein, deitxu jestanen Plaentxiatik, lagun bat iltzen euala ta bixkor jua-teko. Neu biar ninduala bere azkenengo borondatia eskintzeko-ta. Juan nintzoan; ta badakin zer esan zestan? Bera ez zala egundo erataillia ta damu zala, ta nere almenak ezautzen zitxualako deitxu zestala, bere ordiak alik eta geien neuk erateko. Eta, erango bajonat zorrak eiñ biar, pobre jaixo nintzonan da ainbeste erateko dirurik ez jatan eltzen.

CVI

EMEN NAGOK NI!"

Melitonanian alkartzen ziran kuadrillako ziran Takurra ta Joxe aguazilla be. Egun baten, txurrutari geitxo emon da, Takurra ta Joxe aguazilla alkar berbatu ziran. Ta, Takurra min-zikiñekua zanez, berba garratzak bota zetsazen aguazillari. Bestiak, alperrik lagunak izan, ez bat eta ez bi; artu ta giltzapian sartu eban.

Ez zan denpora asko pasau. Takurrak, barrutik, ankiagaz atia gogor joaz:

—Emen nagok ni! —diarrez.

Bestiak:

—Egonari ba.

Andik lasterrera berriz:

—Emen nagok ni!

Ola pasau eban gau erdira arte ta Joxek atara eban, aspertu zanian.

Bixamonian, Poxpoluanekuak sargu-eskailluak ekarri zitxuala ta, biak an ziran Melitonanian afa-ri-meriandan. Joxe aguazillak kontau zitxuan be-riak eta bi, gabian Takurrak erabilij zitxuan larri-tasunegaitxik. Ango adarra jo biarra.

Orduan, lagunetako batek esan zetsan Taku-rrari:

—Bueno, ta bart zergaitik dijar eitzen eban ba: “Emen nagok ni!”.

—Berak nik baño mozkor aundixagua euka-
nez, aztuko ete zan bildurrez.

CVII

“EJU, EJU...!”

Plaentxian, bi agura zelebren, erretirua artu on-doren alkarregaz urtetzen ziran pasiatzera. Ta, bein; kanposatupeko bide-ziorretik zoiazela, bron-kixuetakuagaz ebillena asi zan eztulka. Unatxo ba-tian, gelditzeka: “Eju, eju...!”.

Bestiak, errukitxuta:

—Ori dok eztula daukana.

Kanposantura begira erantzun zetsan:

—Or darenak artuko leukiek.

CVIII

OINDIOK AILLEGU BARRI

Jaiegun eguerdi bat zan. Plaentxian, bosgarrenge pisotik kalera jausi zan mutil bat. Kalia bete jente ei euan ta aguro pillatu zan jentez inguru guztia. Aguazilla konturatu zanian, jente artian leku eiñ ezin da nekez aurreratu zan. Pasua eiñ ebanerako, mutillori zutinduta euken, lau edo bosten artian elduta. Ta danak berari begiratzen zetsenez, aguazillak be ber-berari preguntau zetsan:

—Zer pasatzen dok emen?

—Nik eztakit ba, oindiok ointxe bertan ailegatzia eiñ dot eta.

CIX

TRUKEZ

Bein, Eibarko sozialista zar bik, ara zelako autua erebixen alkarrekin:

—Gizonok, geure denpora guztiak, opiniuak dirala-ta, beti or ibilli gaitxuk alkar benderatu naitan, baiña ointxe ba-goiazak alkartuaz.

—Baietz uste dok?

—Bai. Munduak orretara doian itxura guztiak jaukaz.

—Mundua-mundu dan artian ez dok olakorik ezautu eta ez da ezautuko be. Nik ez jaukat esperantzarik.

—Ba, abadiak, Juan XXIII-garrenak bere “Pacem in Terris”-en diñuanari kasu eññ biar ba-jetsek, nai ta nai ez, ezkerrera jo biarra jaukek. Oin arte gu eskumara eruan eziñik ibilli baditxuk be, oin ara nun datozen eurak ezkerrera.

—Ba. Ara. Benitxo. Orrek ezkerrera badatozak, ni eskumara najoiak.

CX

TRATU ONA

Plaentxian be, goze sasoian, biarrrik ez zan falta baiña bai janarixa. Dirua irabasten ba zan be, jana billatxia ez zan gauza erreza. Ta, diruakin be janaririk iñundik-iñora billau ezin. Esekiel zanak eitzen ei eban:

—Auxe dok auxe, diruagaz be janik ez. Lenago, gure denporan dirua zuan problemia, ta oin, biarra ugari daukagunian, zailduaz diru apur baten jabe eitzeko aukeria daukagularik, janik ingirau ezin. Baltza dok gero mundu au. Lenago beti diruakin amesetan. Alperrik, alkatiak, ondo portatziarren pregoia jo; “Benetan *gizona* dan gizonari, pausuko erriala”. Ez gizonik eta ez dirurik.

Ta, zorioneko biarrau iñork nai ez, ta nai ez genduana be falta. Oin barriz, nai ez genduana daukagulako, boltsilluan peseta batzuek eukiarren, poltsillo epela ta tripa-zorrixak. Gorrixak bialdu ziralakuan, egunero gorrixak ikusten. Au dok mundua.

Ez zan ez, gozua egonera a. Plaentxiako tornillugin famoso batek, Badajoz-ko bezero bati aitzen emon zetsan, dirua baiño naiago eba'la jana, ta aurrerako tornilluok urdeiazpiko trukez ia zergaitik ez. Uste barik, baietza artu eban eta ara gure tornillugiñak nundik jaso zitxuan pare bat urdeiazpiko. Ez zan gero barriketia. Ez da segurua be, gose denpora aretan urdei-azpikuak etxian eukitzia. Laster eruan zitxuan "Bankura", ta bertan gorde. Gero, bere etxeko andria, "Tornilleruzia", txekiakin juaten ei zan "Bankura" urdei-azpiko atalen bat biar ebanian.

CXI

"GIZONA!"

Nausi batek mutikuari:

—Azten aizenian, zer nai euke izan?

—Gizona!